




Kartzelan da
eraso matxista
egiteaz
akusatutako
gizona | 2

Euskararen
gainean
hausnarketa
egiteko deia
Arrasaten | 4

Eskualdeko hiru udalerritan
geralekua Laburbirak | 30



Moratoria eskatu dute Arrasateko
Garbiketa Ordenantzarendako | 12



UDAKo karatekek euskal selekzioa
ordezkatuko dute martxoan | 26



IRITSI DA EGUN HANDIA

Gaur, egubakoitza, da Traviata-ren estreinaldia, Kursaaln | 31

Operan parte hartuko dutenetako
batzuk, hainbat bergarar tartean,
XIX. mendeko moduko arropa
jantzita, eguaztenean.

CARLOS ETXANIZ

Gaztetxeetako
eta gazte
asanbladetak
kideak Oñatin | 3

Lehentasunak zehaztu nahi dituzte, Aramaion

Batzar irekia antolatu du Udalak gaurko, barikua, udaletxeko pleno aretoan | 23

SINADURAK

	Gora bizitza! 6 GARIKOITZTURBE
	6 Futbola eta euskara MONIKA BELASTEGI
	Arnas ez (soilik) bizi 11 NEREA MAKAZAGA
	14 Herriaren altzorra MARIJE UGALDE
	Kartela 18 LUKENE IGARTUA
	40 Udalak indartu MIKEL IRIZAR



ASTE HONETAN 'PUNUA'-N:

- Jon Ansotegi, Eibar taldeko jokalaria
- Elizak inmatriculatutako ondasunak bailaran

JASO 'PUNUA' ETXEAN: 943 25 05 05

DEBAGOIENA 2 | IRITZIA 7 | HERRIAK 9
KIROLA 26 | KULTURA 29 | GAZTEAK 33
ZURE IRAGARKIAK 34 | ZORION AGURRAK 35
TELEBISTA-IRRATIA 36 | ESKELAK 37
NON-ZER 38



943 71 48 45

www.hemen-garbiketak.com

Zure konfiantzako garbiketa enpresa

Mantentze garbiketak,
obra amaierakoak eta garbiketa orokorrak:

- Bulego eta lokalak
- Jabeen erkidegoak, garajeak
- Lokal komertzialak, azalera handiko saltokiak, hotelak eta enpresak
- Eraikin instituzionalak, eskolak, kiroldegiak, anbulatorioak, eta abar.



Intxaurtxueta 16 Behea • ESKORIATZA • hemen@hemen-garbiketak.com

Passat Alltrack



Udalaitz

Gipuzkoa etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70



Das Auto.



Debagoieneko Mankomunitatearen egoitza aurrean elkarretaratze jendetsua izan zen, martitzenean. | NEREA GIL

Debagoiena "Gipuzkoako zabortege" ez bihurtzeko plataforma eratuko dute

- ▶ Oraingo astean agerraldi zabala egin dute
- ▶ Hurrengo martitzenean bilera irekia izango da

G. ARANA / U. MADERA | DEBAGOIENA
Debagoienean hondakinen %80 inguru gaika biltzen den bitartean gainerako eskualdeetan ez direla %50era ailegaten, eta,

horregatik, "besteak arduraz jokatzaren hasten" direnean hasiko direla eurak "solidaritateaz" hitz egiten. Horixe adierazi eta aldarrikatu zuen oraingo asteko

martitzenean Debagoieneko herri-talde jendetsu batek, Debagoieneko Mankomunitatearen atarian, *Zabortege ez!* lelopean egin zuten agerraldian.

ERREFUS KOPURUA

	2014		2015	
	KILOAK BIZTANLEKO	KILOAK GUZTIRA	KILOAK BIZTANLEKO	KILOAK GUZTIRA
Antzuola	58,58	128.232,00	50,85	111.522,41
Aretxabaleta	139,23	964.854,39	56,85	397.688,80
Arrasate	248,92	5.488.835,31	106,13*	2.340.310,56
Bergara	69,85	1.031.138,12	68,60	1.017.395,89
Elgeta	230,26	262.268,30	83,89	94.035,09
Eskoriatza	123,40	501.490,00	75,59	309.167,45
Leintz Gatzaga	34,26	8.840,00	118,53	28.920,39
Oñati	65,35	732.008,00	72,71	820.279,41
DEBAGOIENA	145,66	9.117.666,12	81,51	5.119.320,00

*Arrasaten apirillean hasi zen sistema berria martxan.

ITURRIA: DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

Hori abiapuntu, lurraldean sortzen den zabor nahasia Debagoienara ekartzea ez dutela onartuko esan, eta Mankomunitateko arduradunei eskatu zieten Epeleko zabortegearen proiektuari ezezko irmoa emateko.

Arrasate, Bergara, Oñati eta Eskoriatzako herriak egon ziren mahaian ordezkaturak eta debagoiendar talde zabala atzean, babesa adierazten, tartean pertsona ezagunak ere bai: Mikel Biaín, Oñatiko alkatea; Ino Galparsoro eta Agurte Barruso, Arrasateko eta Bergarako alkate

ohiak; Juan Luis Merino, Irabaziko zinegotzia; edo Mila Elortza, AHT Gelditu elkarlaneko kidea.

Bilera irekia

Eskaera hori babestu eta indartzeko iragarri zuten helburu horiei begira lan egingo duen eskualde mailako plataforma bat sortzea dela euren asmoa. Eta eguna ere jarri zuten horretarako: bilera izango da datorren martitzenerako, hilak 23, 18:30ean, Arrasateko Kulturategi areto nagusian. Gaiarekin interesa duen edozeinek parte har dezake.

Kartzelara bidali dute, bikotekide ohia eta ahizpa jotzeaz akusatuta

Domeka goizean gertatu zen ustezko eraso matxista, Arrasaten

U.M. | ARRASATE

Martitzenetik Martutenen dago Arrasaten atxilotutako 35 urteko gizona, bikotekide ohiari eta haren ahizpari eraso egiteaz akusatuta. Kartzela zigor prebentiboa ezarri diote orain. Behin betiko zigorra bikotekide ohiari eragindako lesioen larritasunaren arabera izango da. Eta era berean, emakumearekiko urruntze agindua iritsiko dela espero du Ertzaintzak. Eraso jasan zuen emakumea, berriz, Gasteizen dago ospitaleratu.

Domekan atxilotu zuen Ertzaintzak ustezko erasotzailea. Emakume batek poliziari deitu zion jakinarazteko bikotekide ohiak eraso egin ziola. Ertzaintza emakumearen etxebizitzara bertaratu eta gizon batek bikotekide ohiari ostikoak eta ukabildak eman zizkiola konprobatu ahal izan zuten. Eraso jasan zuen emakumearen ahizpak bien artean sartzen saiatzeagatik kolpeak jaso zituela azaldu zuten Segurtasun Sailetik. Poliziak anbulantziari deitu, eta ospitalera era-

man zituzten. Era berean, Ertzaintzak ustezko erasotzailea lokalizatu eta goiz berean atxilotu zuen, bikotekide ohiari eta haren ahizpari lesioak eragiteaz eta etxebizitzan indarrez sartzeaz akusatuta. Polizia-iturrien arabera, atxilotutakoak aurrekariak ditu, beste bi bikotekideri eraso egitearren.

Erasoa, berriz, ustez zeloek eraginda egin zuen gizonak, jakitean bikotekide ohiak beste mutil-lagun bat zuela, nahiz eta gizona bera ere beste emakume batekin bizi zen.

Elkarretaratzea

Arrasateko Emakumeen Mundu Martxako plataformak gertakariarengatik "erabateko gaitzespena" adierazi eta elkarretaratzea deitu zuen atzoko, eguena, eta bat egin zuen deiarekin Arrasateko Udalak ere. "Emakumeen aurkako sexu bortizkeria eta eraso fisikoak dira emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasunaren adierazgarri latzenak. Indarkeria matxistak, ordea, aurpegi asko dauzka eta hau errotik desagerrarazi nahi badugu, ezinbestekoa da herritarren zein erakunde publikoen erabateko erantzukizun eta inplikazioa", adierazi zuten, besteak beste, plataformatik.

Arrasateko Udalak, adierazpen instituzionala baliatuta, hauxe gaineratu zuen: "Emakumeenganako indarkeria (psikologikoa, ekonomikoa, fisikoa, sexuala) ema-

kumeen duintasunaren eta segurtasun fisiko nahiz moralaren aurkako eraso larria da, eta, ondorioz, giza eskubideen urraketa larri eta onartezina". Eta esan zuten "sentsibilizazio eta prebentzio ekintzak" indartzen jarraitu behar dela: "Etor-kizuna ordezkatzeko dutenei zuzenduta, gure herritar gazteenei zuzenduta, alegia".

Arrasateko PSE-EEK ere "gaitzespen" eta "atsekabe" osoa erakutsi ditu. Eta, besteak beste, Ertzaintza zoriondu du ustezko erasotzailea "azkar eta modu eraginkorren" atxilotu delako.

100 kasu berri urtean

Deba-Urola barrutian indarkeria matxistarekin lotutako 100 kasu berri inguru antzematen ditu Ertzaintzak urtero. Arrasateri dagokionez, halako 20-25 kasu berri antzematen dituzte.

Benetan pisua galdu nahi duzu?



Eсан baietz betiko

RPS: 741/13

Rosa Sarabia doktorea

PronoKal[®] metodoa

Zientzia eta zorrotasuna pisua galtzeko

- Kontrol mediku zorrotza
- Pisu galtze handia - Gosegabezia



centro médico UDALAITZ

Euskal Herria plaza 3. ARRASATE

Tel.: 943 79 44 22.

Bilbon: Clinica Sarabia: Ercilla kalea, 42.

Rosa Sarabia doktorea
Medikuntzan eta kirurgian lizentziaduna

OBESITATEAREN ETA GEHIEGIZKO PISUAREN UNITATEA
BOTOXA - EZPAINAK - MESOTERAPIA
BARIZEAK - HAZIERA FAKTOREAK
BULARRAK - SUDURRA - SABELALDEA

Medikuntza estetikoa eta kirurgia plastikoa

Gaztetxeen eta gazte asanbladen gaineko hausnarketa Oñatin, topaketak baliatuta

- ▶ Ehunka ordezkari izango dira
- ▶ Asteburu osoko egitaraua dute



Gazte bat topaketen prestaketan laguntzen, eguaztenean. | MAITE TXINTXURRETA

UBANE MADERA | OÑATI

Gaur hasita, barikua, Euskal Herriko gaztetxeetako eta gazte asanbladetako 100 lagun pasa Oñatin elkartuko dira, bertako Antixena gaztetxeak antolatuta Euskal Herriko Gaztetxe eta Gazte Asanbladen Arteko Topaketetan. "Gaur 110 bat kide espero ditugu, baina asteburu osorako 150etik gora etorriko dira", zehaztu dute Antixenetik. Nafarroatik -Lesaka, Lizarra-, Arabatik -Gasteiz, Zuia, Audio-, Bizkaitik -Durango, Sopela, Barakaldo, Bilboko hainbat auzo-, Gipuzkoatik -Beasain, Azpeitia, Donostia, Orereta...- eta, jakina,

Debagoienetik ere bertaratuko dira; azkenon kasuan, Arrasateko, Bergarako eta Aramaioko gaztetxeetako eta gazte asanbladetako ordezkariak izango dira topaketetan.

Asteburu-pasa datozenek Oñatiko gaztelekuan egingo dute lo, zaku eta esteratan, eta boluntarioen laguntzarekin gosaria eta beste izango dute bertan "30 bat lagun ibiliko dira asteburuan bertan lanean", jakinarazi dute topaketen antolatzaileek, azpimarratzeaz bat alde aurretik boluntario gehiagok ere jardun dutela topaketok antolatzen.

Iaz ere izan ziren halako topa-

ketak, Laudion izan ere. "Bertaratu ginenok, gai askotaz hitz egin genuen, gure artean zeuden egoera ezberdinak eta aniztasuna agerian utziz. Aldi berean, horrelako ekimenen garrantzia azpimarratu genuen hainbat puntutan elkarlanari ekiteko abiapuntu gisa. Hala ere, aurrera begirako ezer ez genuen martxan jarri. Aurten, topaketen antolatetari berrekiteko beharra ikusi dugu oñatiarrok". Horixe da, hain justu, aurtengo topaketak Antixenean egitearen arrazoia.

Hausnarketa eta eztabaida

Eta hori abiapuntu, egitaraua mardula dute egunotan garatzeko eskualdera bertaratuko direnek. Hausnarketarako, eztabaidarako eta aisialdirako ekimenak uztartzen dituen, -egitaraua, taulan-

Hala, gaurko mahai-inguruetako batean Bilboko Errekalde auzoko emakumeen etxe okupatuaren esperientzia partekatuko dute: OIHUK. Bigarren, berriz, Topatu eta Ernai elkarteek egingako *Gure kabuz ala hil* dokumentala hainbat herritan erakutsi ondoren, haren gaineko ondorioak landuko dituzte. "Beste bizi eredu bat lantzen da dokumentalean, banku etikoa, Gasteizko Errekaleor auzunea, kooperatiba erako enpresa txikien... esperientziak jasotzen dituen", esplikatu dute topaketen antolatzaileek.

Horrekin batera, asanbladen funtzionamendua ere izango dute langaien artean, gaia aztertu duen Joxemi Zumalabe fundazioko adituen eskutik. "Asanbladena behin eta berriz agertzen den gaia da; nola funtzionatzen dute gure asanbladek? Harreman parekideak al ditugu bertan? Belau-naldi aldaketak nola kudeatzen ditugu? Harreman horizontalagoak lortzeko bidean nola ari gara?". Antzeko galderak jarriko dituzte mahai gainean.

Gaztetxeak alternatiba

Eta, gaur egungo sistemari begira, gaztetxeak alternatiba modura duten funtzioa berbagai izango dute. "Orokorrean, dagoen eztabaida da antolatzen ditugula antzerki, kontzertu... ekimen mordoa gure kabuz, gehienetan aisialdiarekin lotutakoak; baina gero, hori guztia, hau da, beste bizi eredu bat, sistema kapitalistaren eta patriarkalaren aurrean, egunerokotasunean inplantatzea kosta egiten dela, zailtasunak ditugu", esplikatu dute Antixenetik. Hori guztia

bihar, zapatua, izango da, goiz partean.

Manifestazioa

Bestalde, hausnarketatik bai, baina mobilizaziotik ere izango dute topaketek: bihar, 19:00etan, manifestazioa egingo dute, besteak beste. "Kortxoeneakoak -Donostia- eta Tolosakoak -Ezpara gaztetxea-, adibidez, badatoz. Gaztetxeak defendatzeko aukera izango da manifestazioa", esplikatu dute Antixenekoek; "gaztetxeen aurka ematen ari diren erasoei erantzuteko kanpaina" jarri gura dute martxan, eta Oñatiko manifestazioa izango da kanpainaren "abiapuntua".

Asteburu borobiltzeko, aisialdirako tartea ere utzi eta kontzertuak izango dira gaur eta bihar, bi egunetan: Mor More, Fiachras, Dekot... musika taldeek jardungo dute. Eta jakina, domekan traste guztiak batzeko eguna izango da.

Oro har, topaketetarako gonbita egin dute antolatzaileek: "Jendea etorriko da eta igarriko da, giroa izango da".

EGITARAUA

OTSAILAK 19, EGUBAKOITZA

17:30 Harrera.

18:30 Mahai inguruak: *Gure kabuz ala hil* ondorioen lanketa

- OIHUK-koen hitzaldia

22:00 Dokumentala: *Probatu ez duenak ez daki zer den hau*

23:00 Kontzertua: Mor More

OTSAILAK 20, ZAPATUA

10:00 Eztabaidak: *asanbladen funtzionamenduen analisia,*

botere harremanak ardatz. Eta Gaztetxeak, egungo sistemari alternatiba gisa.

13:00 Plenaria.

14:30 Bazkaria, preso gaztetxeroen lagunen eskutik -txartelak Arranon salgai-

16:30 Erresistentzia tailerrak.

19:00 Manifestazioa.

21:30 Jaialdia: Trikimailu, Fiachras, Pelax Cowboy's Orchestra, Dekot.

Espekulatzailer baten aurkako salaketan, epaileak familiaren alde

U.M. | ARRASATE

Debagoieneko Kaleratzeak Stop plataformak jakinarazi duenez, joan den urriaren 21ean Irlandako inbertsio funts espekulatzailer baten kontra jarritako salaketan, epaileak inplikaturako Arrasateko familiaren alde egin du bi autotan; baten, familiaren ondasunen bahitura atzera botatzea agindu duelako, eta bigarrenean, epaileak jakinarazten duelako familiaren zorra "norbaitek" kitatu egin duela. Kaleratzeak Stop-ek "funts putrearekiko garaipen" gisa hartu du honakoa.

17.000 euroko mailegua

Kasuaren aurrekariak honako hauek dira: Arrasateko familia batek, 2005. urtean, 26.000 euroko garajea erosteko 17.000 euroko mailegua eskatu zion Kutxabank-i. Hiru urtera, bikotea lanik gabe geratu zen, eta mailegua ordaintzeko zailtasunekin. 2010ean, garajea enkantera atera zen eta Kutxabankek bereganatu zuen 6.000 eurotan. Hala ere, Arrasateko familia horrek oraindik zor handia zeukan; kapitala amortizatu zuen, baina interes, berankortasun interes eta beste kontzeptu batzuegatik zor handia

zuen. 2013an, oraindik 17.000 euro eskatzen zizkion Kutxabankek. Urte bat igaro eta gero, Arrasateko familia horrek jakinarazpen judizial bidez jakin zuen Kutxabankek Irlandako funts espekulatzailer bati saldu ziola bere zorra, 255 eurorengatik. Debagoieneko Kaleratzeak Stop-en esku ipini zuen familia kasua, eta plataformako abokatuek hainbat irregulartasun antzeman zituzten salmenta prozesu horretan; euren iritziz, familiaren eskubideen urraketa gertatu zen. Funts erosleari salaketa ipini zioten eta orain ailegatu da erabakia.



2016ko EZOHIKO BATZAR OROKORRERAKO DEIA

Kontseilu Errektorearen erabakiz, Elkartearen Ezohiko Batzar Orokorrera deitzen da. Batzarra, **Aretxabaletako Kiroldegian**, egingo da 2016ko martxoaren 12an, goizeko 08:30ean lehen deia eta, kasua balitz, bigarrenean, 09:00etan, egun eta toki berean, hurrengo eguneko gai zerrendaren arabera:

GAI ZERRENDA

1. Aktak onartzeari buruzko informea eta akordioa.
2. 2016ko Gestio Plana onartzea.
3. Fagor S.Coop.eko Estatutu Sozialak 2, 6, 7, 15, 16, 21, 24, 27, 34, 40, 54 eta 56 artikulua aldatzea.
4. Kooperatibako Estatutu Sozialen Printzipioen Deklarazioa atala eta 25, 44, 46, 51, 53 artikulua aldatzea.
5. Barne Erregelamenduko Sarrerako 3.3 atala eta 33, 41, 68 eta 69 artikulua aldatzea.
6. Galderak eta eskaerak.

Kontseilu Errektoreko Idazkaria
Aretxabaleta, 2016ko otsailaren 19an

*Espresuki jakinarazten da bazkide guztiek dutela Fagor, S.Coop.eko Estatutu Sozialari, Kooperatibako Estatutu Sozialari eta Barne Erregelamenduen aldaketei buruz proposaturako aldaketen testu osoak eta beraien justifikazio txostena egoitza sozialean aztertze eskubidea, eta dokumentu horiek dohainik eskuratu edo bidaltzeko.

Jasone Mendizabal | Euskaltzaleen Topaguneko zuzendaria

"Euskara ez da despolitizatu behar, baina bai atera behar da konfrontazio politikotik"

► *Berrikasi eta berrikusi* dokumentua landuko dute

► Arrasaten elkartuko dira euskaltzaleak bihar, zapatua

UBANE MADERA | DEBAGOIENA

Ziklo baten amaierara heldu da euskaltzaleetasuna. Euskara garatzeko aldaketa behar da. Hala ondorioztatzen du, besteak beste, *Berrikasi eta berrikusi* dokumentuak, Euskaltzaleen Topaguneko Topalabea lantaldeak landutakoak. Iaz maiatzean argitaratu zuten, eta hainbat herritan aurkeztu ondoren, bihar, zapatua, Arrasaten landuko dute –Kulturate, 10:00-14:00-. Parte hartuko dute, besteak beste, Debaguneko euskara elkar- teek –Bergarako Jardun, Aretxabaletako Loramendi eta Arrasateko Txatxilipurdi, Ekin Emakumeak eta AED–. Topalabea taldeko kideetako bat da Jasone Mendizabal (Arrasate, 1968), Euskaltzaleen Topaguneko zuzendaria ere bai.

Aldaketa beharra argia omen da, diozue ez gaudela osasuntsu. Zergatik? Datu soziolinguistikoen arabera, ezagutzen asko egin dugu aurrera. Baina, era berean, ikusten dugu erabileran sabai baten kontra egin dugula eta ez dugula aurrera egin. Eremu euskaldunetan galerak ditugu... Zerbait oso desberdina egin beharra dugu oraingo egoera gaingaitzeko eta aurrera egiteko. **Topalabearen dokumentuak aldarrikatzen duen oinarrietako bat zoru komuna da. Zer da hori?**

Euskaltzaleen artean eraikitzen dugun konpromiso esparrua. Eta partekatzen dugun hori izan beharko litzateke indartsuagoa eta ados-

tuagoa. Historikoari begiratuta, adibidez, frankismoan euskara ez zekien jende askoz gehiago zegoen, baina bazegoen etorkizun askeago baten ametsarekin batera euskalduna izango litzatekeen gizarte batekiko ilusio partekatua, euskaldun ez zirenek ere partekatzen zutena modu zabalean. Jendea hasi zen euskara ikasten... hori ja ez da horrela. Uste dugu zelanbait euskarak aurrera egiteko lanketa hori delegatuta geratu dela euskalgintzan edo erakundeengan herritarren aldetik. Normalizazio kuota bat lortu dugun sentsazio horrekin ez ote dugun, neurri baten, ardura gure gainetik kendu. Eta ardura ez da ez euskalgintzarena ez instituzioena bakarrik; gizarte osoarena da. Zoru komuna esaten dugunean da konpromiso berri bat guztionagoa izango dena. Hori egiteko zazpi bide irudikatu ditugu, hausnarketarako eta eztabaidarako.

Zeintzuk?

Adibidez, hiztun komunitate eman- tzipatua. Hemen kokatuko litzateke zoru komunaren ideia. Bestelako interesen gainetik euskararen bueltan proiektu partekatu bat eraikiko zukeena. Gizarte osoa inplikatu beharko litzateke: euskalgintza, eragile sozialak, politikoak, ekonomikoak...

Bestelako interesen gainetik diozue; Berrikasi eta Berrikusi dokumentuan euskararendako arnagune politikoa

eskatzen diezue alderdiei. Euskara despolitizatu egin beharko litzateke?

Uste dugu badirela dinamika zahar batzuk kalte egiten digutenak, konfrontazio politikorekin lotutakoak. Argi dugu euskararen gaia politikoa dela, eta Topalabelen txostena ere politikoa da; beraz, ez da despolitizatu behar euskara, baina bai konfrontazio politikotik atera. Azpimarratzen dugun beharretako bat da gure hizkuntza politikak ez lirakeela horrenbeste oinarritu behar alderdien politiketan. Oinarritu beharko lirake zientziek agintzen duten politiketan. Hor irudikatzen dugu autoritate zientifiko baten beharra. Zoru komunak adosten duen bisioari erantzun beharko lioke plangintza ahalik eta teknikoan, zientzian oinarritutako plangintzak, eta instituzioek horri begira politika zehatzak garatu beharko litzateke. Erreferente zientifiko batek lagunduko luke guztiontzat– instituzioentzat, eta gizarte eragileontzat– ardatz orokor batzuen bueltan norabide berean lan egitea. Konfrontazio politikotik ateratzeko

"Euskararen estatuserako beharko genuke erreferente zientifiko bat"



Jasone Mendizabal Topagunearen egoitzan, Durangon. | TOPAGUNEA

ko bermea ematen duen bidea litzateke. Euskararen corpuserako Euskaltzaindia sortu genuen moduan, euskararen estatusaren bueltan beharko genuke erreferente zientifiko bat. Hau guztiau babestu beharko litzateke legearekin eta baliabide ekonomikoekin. Eta hori da instituzioen papera.

Sinergien beharra ere azpimarratzen diozue. Zeinen arteko sinerjiak?

Euskalgintza asko garatu da, profesionalizatu, espezializatu... baina nor bere esparruan, mikroan. Ez dugu asmatu euskalgintza moduan estrategia eta helburu komun makroak ekoizten. Behar ditugu ikuspegi luzeko bestelako adostasun eta estrategiak. Sinerjiak ez dira ezta ere baliatu eragile sozialen (euskalgintzaren) eta erakundeen artean. Bikoizketak izan dira, lankidetzako oso-oso ahulak... eta, atzera begiratuta, nonbait arrakastatsuak izan badira euskararen berreskurapenerako zenbait ekimen, izan da herri ekimenetik sortutako proiektu batek instituzioen babesa izan duenean. Debagoiengan bertan Goienak, herri ekimenetik sortu eta instituzioen babesa izan duela, garapen handia izan du. Beraz, sinergia horiek funtsezkoak dira. Ez da nahikoa instituzioetan euskara zerbitzuak eta bestelakoak izatea. Herrira bueltatu behar da protagonismoa; hor dugu erronka indartsu bat. Bestalde, gure hizkuntza dago beste bi hizkuntza handiren artean elkarbizitzan.

Beharko genuke beste hizkuntzetako erreferente batzuk euskarara erakarri eta euskaltzale batzuk ere –OPIak, Oso Pertsona Inportanteak– erreferente bilakatu, protagonismoa euren eskutik joan dadin. **Agiria herriz herri aurkezten diharduzue; ze erantzun jaso duzue?**

Agirian autokritika eta kritika dezente dago. Aurrera egiteko astintzen ditugu hainbat kontu, eta bageneukan kritikarako beldurra. Ez da horrela izan. Oso harrera ona jaso dugu. Bi kezka/galdera nagusi atera dira. Bata da euskara politizatu-ez politizatu horren inguruan –eta berriro ere, argi utzi gura dugu konfrontazio politikoa dela saihestu beharrekoa, ez politika–. Eta bestea zoru komunaren bueltan: euskaltzale sutsuengana dagoen kezka da adostu behar badugu zoru komuna horren euskalduna ez den horrekin edo erdaldu-narekin, galdu egingo dugula; zoru komuna dela beherapenekin etortzea. Baina euskaraz bizi ahal izateko behar dugu gizarteko esparru zabalenera iritsi, parekoak ez bada- ki, nahiz eta nik borondate handia izan, ez da nahikoa. Bihotzak bakarrik ezin du. Gizarte zabaletik des- konektatzen bagara eta bakarrik geratu, erabilerak ez luke etorki- zunik eta marjinal izaten bukatu- ko genuke. Euskara guztiona dela esaten dugu eta hori oso esaldi polita da, baina leloa izatetik egiaz- ko sinismen eta praktika batera jo beharko genuke.

Udal finantzaketa fondotik jasoko dutenaren berri eman die Ogasunak udalei

HERRIZ HERRIKO DATUAK

UDALERRIA	AURREKONTUA 15	LIKIDAZIOA 15	SALDOA
Antzuola	1.276.868,19	1.298.913,57	22.045,38
Aretxabaleta	4.051.541,81	4.121.492,48	69.950,67
Arrasate	12.894.358,65	13.116.982,29	222.623,64
Bergara	8.681.816,73	8.831.710	149.893,27
Elgeta	669.635,71	681.197,10	11.561,39
Eskoriatza	2.387.091,78	2.428.305,39	41.213,61
Leintz Gatzaga	221.632,94	225.459,48	3.826,54
Oñati	6.580.899,26	6.694.519,78	113.620,52

ITURRIA: GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

LEIRE KORTABARRIA | DEBAGOIENA

Astelehenean batzarra izan zuten Ogasun eta Finantza foru diputatu Jabier Larrañagak eta Gipuzkoako udaletako ordezkariak, Gipuzkoako Finantzen Kontseiluaren barruan, eta Udal Finantzazioko Foru Fondoaren emaitzen berri eman zieten ofizialki udal ordezkariak. Fondo horrek %1,7eko hazkundea izan zuen iazko ekitaldian; guztira, 437 milioi, %99,85 udalendako eta beste %0,15a Eudelendako. Debagoi- neko udalek, Aramaiok izan ezik, 634.735,02 euro jasoko dute.

"Zuhurtzia"

Gipuzkoako Finantzen Kontseilu- aren arabera, Foru Fondoak 2014an baino 19 milioi euro gehiago ditu 2015ean, %4,32ko hazkundea alegia.

Banaketa pasa den asteko egue- nean Gasteizen elkartu zen Herri-Di- rubideen Euskal Kontseiluan ados- tu zuten hiru lurraldetako Aldun-

diek eta Eusko Jaurlaritzak, bertan burutu baitzen 2015eko likidazioa. Udalerriek aurreikusita zeuden 429,5 milioien ordainketak 2015ean zehar jaso zituzten, eta otsailaren 25ean jasoko dute aipatutako 7,4 milioiko gainsoldata.

Kopuru hau era horizontalean banatuko da Gipuzkoako udale- txeen artean, bakoitzak duen pisua- ren arabera.

Larrañagak datuaren irakur- keta baikorra egin du eta Gipuz- koako udalenzako albiste ona dela nabarmendu. Hala ere, "zuhurtzia" eskatu die tokiko administrazio- dauden ziurgabetasunak horreta- ra behartzen gaituzte eta". "Esku- ra ditugun baliabideei ahalik eta etekin gehien atera eta gure era- kundeen jasangarritasuna bermat- zeko garaia da", azpimarratu du Larrañagak, eta udalei zentzu honetan lan egiteko eskatu die.

1.080 euroko pentsioak eskatu dituzte erretiratu eta pentsiodunek

Elkarretaratzea egin dute Bergaran, Duintasuna elkarteak deituta

MAITE TXINTXURRETA | DEBAGOIENA
Gipuzkoako hainbat erretiratu eta pentsiodun batzen dituen Duintasuna elkarteak deituta, elkarretaratzea egin zuten martitzen goizean Bergarako San

Martin plazan, *Pentsio duinen alde* lelopean. Horren ostean, batzarra egin zuten Irizar jauregian. Elkarre horretako kideak hilero batzen dira Gipuzkoako herri batean, eta oraingoan Ber-

garan bildu dira.

Herri ekimen legegilea

Duintasuna elkarteak pasa den azaroaren 23an herri ekimen legegile bat aurkeztu zuen Euskal

Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako parlamentuetan, pentsioak igotzea eskatuz. Eusko Legebiltzarrean ez zuen aurrera egin. "Ez digute eztabaidatzen ere utzi", adierazi zuen Duintasuna elkarteko Arantza Corralesek. Orain, sinadura bilketa kanpaina abiatu berri dute.

60.000 sinaduratik gora jaso nahi lituzkete, ondoren horiek Parlamentuan aurkezteko. Bestalde, gaur egun Madrildik kudeatzen den pentsio sistemaren eskumena bertako legebiltzarretara ekartzea ere eskatu zuten.

Menpekoendako laguntzak

Bergaran egin zuten batzarraren beste gai nagusia menpekotasun egoeran dauden pertsona nagusiendako diru laguntzen murrizketa izan zen. Elkarteko kideek azaldu zuten aurreko legegildaren amaieran, Gipuzkoako Foru Aldundian Bildu zegoenean, esan zutela 634 plaza sortu behar zirela, besteak beste, menpekotasunaren arloan. Salatu zuten oraingo EAJren gobernuak plaza kopuru hori murriztu izana eta

proiektua atzeratu izana. "Murrizketa %1,3koa izan da, baina gai honetan garrantzi handia dauka", zioen Marian Esnaolak.

Duintasuna elkarteak esan zuten erabaki horren ondorioz nagusien egoitza edota eguneko zentroetako itxaron zerrendak luzatu egingo direla. Udalek kudeatzen dituzten egoitzak Diputazioak kudeatzeko prozesua ere gelditu dutela salatu zuten elkarteak.

Bestalde, gaineratu zuten pertsonen menpekotasuna zehazteko balorazioak atzeratzen ari direla, eta, horren ondorioz, menpeko pertsona horiek gehiago itxoin behar dutela diru laguntzak jasoteko.

Orain, gaia lantzen eta eztabaidatzen dihardute, eta aurrerago informazioa pasako dute egoitzetara eta jubilatuen etxetara, eta euren aldarrikapenak instituzioei helarazten ahaleginguduko dira.

Sinadura bilketa Arrasaten

Atzo goizean, pentsionista talde bat Arrasateko anbulatorioan izan zen aipatutako menpekotasun laguntzen murrizketen aurkako sinadurak batzen. "Aurrerago, pentsio duinen aldekoak eskatzen ere hasiko gara", azaldu zuten bertako mahaian izan den Karmele Iparragirrek. "Sinadura pilo bat lortu dugu", dio.

Eta gaur bertan beste sinadura bilketa bat egingo dute, goizean zehar, Arrasateko Laubide plazan egubakoitzero egiten duten azokan.



Bergarako Irizar jauregian batzarra egin zuten elkarretaratzearen ostean. | MAITE TXINTXURRETA

ARRASATE EZAGUTZERA NATOR!

SAIO BERRIA

GOIENA TELEBISTA

OTSAILAREN 25EAN 22:00ETAN

SAIOAREN EKOIZLEA:

m
MONDRAGON
UNIBERTSITATEA



DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

goiena

'Demasa Lilatoira!' deialdia, lasterketara elkarrekin joateko

Martxoaren 6an Donostian egingo den ekimenera joateko izen-ematea zabalik dago Bergaran jarritako Kilometroak 2016ko denda ofizialean

KOMUNITATEA GOIENA | KILOMETROAK 2016 | BERGARA

Kilometroak 2016ren baitan, martxoaren 6an Donostian jokatu den Lilatoira joateko taldea osatzeko dei egin dute. Lasterketan parte hartu nahi dutenentzako da deia. Izen-ematea Demasa dendan egin ahal izango da, baina dagoeneko lasterketan izena emanda dutenak ere dendatik pasa daitezke eta izena eman, Bergaratik denak elkarrekin joateko.

Elkarrekin joateko deia

Martxoaren 6an da aurten Lilatoira. Emakumeen eskubideak aldarrikatzeko urtero egiten den lasterketa da, hain zuzen ere; gisa horretako betaranoenetakoa eta ospetsuenetakoa: 27. edizioa da aurtengoa. 10:00etan abiatuko da Bulebarretik eta 5 kilometroko distantzia egingo dute lasterkariak.

Geroago eta jende gehiago doa Lilatoira eta Kilometroak 2016 dela-eta Bergarako lasterkarien artean taldea osatu nahi dute: *Demasa Lilatoira!* Horretarako izena eman daiteke otsailaren 22ra bitartean Kilometroak 2016ko Demasa

sa dendan -Bidekurutzeta kalean- astelehenera egubakoitzera, 19:00etatik 20:00etara, eta zapatuetan, 12:00etatik 13:00etara. Prezioa da 10 euro eta, trukean, lasterketaren poltsa, dortsala-txipa eta lilaioiko kamiseta jasoko dira.

Dagoeneko izena emanda dutenek ere badute taldera biltzeko aukera eta, horretarako, Demasa dendatik pasa izen-emate orduan eta epeen barruan edota e-posta honetara idatzi behar da: kmk16@bergara.ikastola.net.

Kilometroak 2016tik adierazi dutenez, autobus berezia antolatzeko asmorik ez dute, baina autobus zerbitzu berezia egon badago eta Sportbus webgunearen bitartez har daiteke txartela. Bergaratik 08:00etan aterako da, autobus geltokitik, eta itzulera 13:30ean izango da Bulebarretik. Autobusaren joan-etorria 12 euro dira.

Kamiseta bereziak

Demasa Lilatoira! deialdia dela-eta kamiseta berezia aterata da, Kilometroak 2016rekin bat eginez. Kamiseta berezi horiek dendan eros daitezke 10 euroren truke.

Aldarrikapenak

Kilometroak 2016ko Prebentzio taldetik antolatu dute *Demasa Lilatoira!* Helburua da egun horretan bat egitea emakumeen aldarrikapenekin eta, esplizituki, "eraso sexistei ez esatea eta errespetuz gozatzera animatzea jendea".

Kilometroak 2016 Txikia

Bestetik, otsailaren 28an, domeka, Kilometroak 2016 Txikia ospatuko da. Kilometroak 2016 dela-eta, urtean barrena egiten diharduten ekitaldien arteko beste bat izango da. Helburua da Kilometroak presente, kalean, egotea.

10:00etan emango zaio hasiera Aranzadi ikastolako jolastokian. Zinta mozketa egin ostean, Labegarietarantz abiatuko dira trikitilari eta guzti, Espolotik eta Gabiriatik barrena. Labegarietan jolasak eta jatekoa eta edatekoa izango dira. Ostean, itzulera, berriro ere jolastokira, bidegorritik, tuneletik eta Oxirondoko azokatik igaro ostean. Ikastolako jolastokian umeendako jolas-jarduerak, musika, jana eta edatekoak... izango dira.



Ordaindukoak atzo goizeko manifestazioan. | M.T.

Ordaindu plataforma kalera irten da pankartak kendu izana salatzen

M.T. | DEBAGOIENA

Atzo, eguna, Ordaindu plataformak deituta, manifestazioa egin zuten, goizean, Arrasate pasealekutik abiatuta. Mondragon Kooperatibari euren norbanako moduan boluntarioki jarritako dirua itzultzea eskatzen duten Fagorrek zenbait bazkide eta bazkide ohi batzen ditu plataforma horrek.

Normalean, arratsaldean egiten dituzte manifestazioak, baina oraingoan beste aldarrikapen bat ere bazuten; izan ere, elkarretik salatu dute pasa den astean Aretxabaletako saihebidetan jarrita zeukaten pankarta bat kendu zuela Auzo Lagun enpresako langile batek. Ordaindu

Mondragon Korporazioa jo dute erantzulezat.

Hori dela eta, adierazpen askatasunaren aurkako eta "demokraziaren kontrako" ekin-tza izan dela adierazi du Mikel Olabek, Ordaindu plataformaren izenean. Era berean, elkarretetik adierazi dute ez dutela onartuko euren kolektiboarekiko "inongo erasorik". (Ordaindu idatzitako gutuna, osorik, 8. orrialdean).

Mobilizazio gehiago

Ordaindukoek manifestazioak eta mobilizazioak egiten jarraituko dute. Datorren astean, Eskuratu plataformako kideekin batera aterako dira kalera.

Sei ordezkari debagoiendar izango dira Berdeago ingurumen azokan asteburuan

Arrasateko eta Bergarako hiruna enpresak standa jarriko dute Durangon

M.T. | DEBAGOIENA

Gaur hasi eta domekara bitartean Durangoko Landako gunean egingo dute Berdeago Euskal Ingurumen Iraunkortasun Azokaren laugarren edizioa. Make It Visual enpresak antolatu du, eta bertan dihardute Miren Fernandez eta Ander Iturriagaitia bergararrek, Juan Zubiaurre eibartarra-ekin batera.

Landako gunean, iraunkortasunaren arlo desberdinetan lan egiten duten Euskal Herriko zein kanpoko 73 enpresak jarriko dute standa, eta interesa duten guztiei euren langintza azalduko diete. Horien artean, sei Debagoiengoak dira: Arrasateko Ekitemik (eraginkortasun energetikoa), Bietek (energia berriztagarriak) eta Ion Leihoak eta Bergarako Rebattery (baterien konponketa), Ixotu (LED argiztapena) eta Sabaitek (Sabai tinkatuak).

"Azken kontsumitzaileari zuzenduta dago azoka", azaldu du Juan Zubiaurrek. Hala ere, gaineratu du epe luzera sektore profesionalarengana eta administrazio publikoengana ere iritsi nahiko luketela.

Babesleen artean ere bada Debagoiengo ordezkariak: MCC taldeko Eroski supermerkatuak,



Azokarako prestaketak, asteon, Landako gunean. | MIREN FERNANDEZ

batetik, eta Oñatiko Ulma Architectural Solutions, bestetik, laguntzaile moduan.

Hiru gune

Azoka osatuko duten stand horiez gain, ekitaldi desberdinak egiteko hiru gune ere izango dira. Batetik, *Hitz Berdea* izenekoa, non adituek hitzaldiak eskainiko dituzten. Hain zuzen, gune horretan izango da aurtengo ekitaldirik garrantzitsuenak. Bihar, 09:00etatik 13:00etara, 60 profesional izango dira han *Pasiv Haus*-ei buruz solasean. Erai-

kitzeko orduan ahalik eta energia gehien aurrezteko eta ingurumena ahalik eta gutxien kaltetzea helburu duten etxeak dira horiek.

Bestalde, *Zirkulo Berdea*-n haur eta gaztetxoendako ludoteka jarriko dute, eta *Film Berdea* gunean, berriz, dokumental emango dituzte.

Aurtengo azokan hiru gai nagusi jorratuko dituzte: eraginkortasun energetikoa, mugikortasun jasagarria eta hondakinen kudeaketa. Egitaraua eta informazioa, www.berdeago.com-en.



Hiru alkateak akta sinatzen, Bergaran. | BERELAN FOROA

Berelán Foroa elkarte bezala eratzeko akta sinatu dute Debagoiengo hiru alkatek

JOSU BILBAO | BERGARA

Bergarako, Antzuolako eta Elgetako alkateek Berelán Foroa eratzeko akta sinatu dute. Foroaren helburu nagusia da bigarren sektorearen garapenerako hausnarketa-gune izatea.

2011n sortu zen eta lan ildo desberdinak jorratzen aritu da: trebakuntza; momentuko baliabideen premiak identifikatzea; sare industrialen berrikuntza; enpresen erabakitze guneak

berreskuratzea; eta kooperazio sareak sortzea.

Orain, erakundetzarekin batera, 2016ko kudeaketa planean ezarritako helburuak eta lan ildo nagusiak zehaztu dituzte: berrikuntza arloan, enpresek dituzte beharrei aurre egin; enpresen inplikazio eta garapena, Enpresare Foroari bultzada emanez; industria aktibitate berriak erakarri; eta enpresa txikiei laguntzak bideratu, besteak beste.

Defentsa pertsonal saioa antolatu dute Bergarako kiroldogian Debagoiengo emakumeendako

Defentsa pertsonala ikasi gura duten Debagoiengo 14 urtetik gorako emakumeendako ikastaroa antolatu dute Agorrosin kiroldogian. Martxoaren 5ean izango da, 10:00etatik 13:00etara bitartean, eta izena eman behar da kiroldogian bertan; azken eguna martxoaren 4a da. Saioa deialde da, baina ikastaro egunean eroan behar da elikagai bankurako jatekoren bat: arroza, kontserbak... Taldea osatzeko sei lagun gura dituzte, eta, gehienez, 40.

ZABALIK



GARIKOITZ ITURBE
goiena.eus/komunitatea/

Gora bizitza!

Bizitzak momentu ezberdinak eskaintzen dizkigu eta momentu horiek bizi eta sentitzea gustuko dut. Momentu horietako baten ezagutu genuen Admel. Mutil saharar hau Fuerteventuran bizi da eta gameluekin duna artetik ibiltzen da gu moduko turistak paseatzen.

Berarekin izan genuen solasaldiak ongi irudikatu zuen bizi dugun errealitatearen ikuspuntu ezberdinen talka. Saharatik irten eta Frantzia bizi izan zen. Bertako bizimodu zurrin eta lanarekiko jendeak zuen harremanaz hitz egin zigun. Goizean goiz etxetik irten eta berandu arte lan egiten zuela zioen. Atzera begiratu eta bizitzako bizi-penak lanak mugatutako egunerokotasunari loturik zituela zioen. Bizitza horrek bere ingurukoei ematen zien segurtasun eta estatusagatik, norberaren gogo eta nahiak alde batera uzteak kezkatzen zuen. Lanerako bizi ziren. Bizitza horretan itota, Fuerteventurara etortzea erabaki zuen. Bertan bizitza beste lasaitasun eta patxada batekin hartzen omen da. Hemen, bizitzeko lan egiten da. Saharan zuen bizitza moduz alderatu du.

Aspaldi nabil gai honekin kezkatuta. Admelen gogoetak behin baino gehiagotan izan ditut buruan, behin baino gehiagotan lagun ezberdinekin izan ditudan elkarrizketetan. Darabildan bizitzeko modu edo erritmoa sanoa al da? Lanarekiko dudak harremana sanoa al da? Hobeto esanda, nahi eta gogoak alde batera uztea sanoa al da? Inguruan ditudan hainbat eta hainbat gaixotasun ez al dira aurretik esandakoaz loturik egongo?

Admelek bizitzako esperientzietatik ateratako ondorioa inteligentia iruditzen zait. Lan egin nahi dut bizitzeko, eta ez bizi lan egiteko. Gero, hori praktikara eramaten asmatzea da kontua; edo, behintzat, horretan saiatzea.

Bizitza iraun baino gehiago delako, gora bizitza!

Norberaren gogo eta nahiak alde batera uzteak kezkatzen zuen

USTEAK USTE

MONIKA BELASTEGI | mbelastegi@goiena.eus

Futbola eta euskara

Futbola da egun gizartean oihartzun handiena lortzen duen fenomeno. Espainiako Ligako Lehen Mailan gertatzen denak kirol mundutik harago izaten du eragina: denok dugu futbolari ospetsuen bizitzaren xehetasunen berri. Gugandik gertu, Eibarren –eta sarri Arrasaten– Lehen Mailako taldea dugu, eta, apala izan arren, hor gertatzen direnek ere badute isla gure egunerokoan. Iaz Garitanok Almerian euskararen alde erakutsitako jarrerak euskararen aldeko hainbat kanpainak baino eragin handiagoa izan zuen. Aurreko astean, Takashi Inui Eibar taldeko jokalarri japoniarri euskara-japoniera hiztegia oparitu zion Jon Goikolea arrasatearrak. Agian, iritsiko da Japoniara.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE | goiena.eus/komunitatea/



HANDIK ETA HEMENDIK

Bigarren erorikoa

Elixabete Garmendia
<http://goo.gl/hEXr6E>

Gregorio Mujikak Telesforo Aranzadi etnografoari buruz: "... sekulako herrena da bere ezaugarriak behinena. Ibiltzerakoan, hanka laburren erregulatzen du don Telesfororen garaiera; horregatik, martxan doala, luzera material eskaseko gizona da. (...) Baina, bat batean, solasaren berotan, animatu, eta don Telesforo altxa egingo da azkar, eta hartuko du horrela erraldoiarena dirudien garaiera; izan ere hanka sanoak, tinko eta tente, goian eusten dio antropologoaren gorputzari". (Gregorio Mujika, *Los titanes de la cultura vasca*, Auñamendi, 1962).

Mujikak herrenarena puztu egiten ote duen lirudike, kontrastez Aranzadiren garaiera intelektuala nabarmentzeko, baina kontua da idazleak erretratatu duen bezala ageri dela bergararra 1930eko argazki batean: hanka sanoaren gainean bermatuta, eta hanka gaixoa zintzilik, lurretik hamarren bat zentimetrora. Ba, ezintasun horri aurre egin, eta Aralarren

eta Aizkorrin dolmenak bilatu eta ikertzen eta Kortezubiko Santi Mamiñe eta antzeko leizezuloak miatzen ibili zen Aranzadi. (...)

Herrena, umetan mokor hezurrean sortutako tumore batetik omen zetorkion Aranzadiri. Urte batzuko geroago, beste gaixotasun batek eragin zituen herrenak gurean: poliomieltisak. (...)

"Ohetik jaikitza nindoala, min handia nabaritu nuen hanketan. Zutik jartzen saiatu nintzen, baina erori egin nintzen. Lurrean botata, negarrez, ateraino joan nintzen arrastaka eta garrasi egin nuen: ama, ama, mina daukat hanketan!". Rosa Lertxundik (Donostia, 1950) *Aprendiendo a vivir* liburuan (Ushuaia, 2011) kontatzen dituenak polioak jotakoen bizipen-ereduak dira nolabait. (...)

Kontua da gaur egun Espainian 45.000 pertsona daudela polioa pasatutakoak, horietatik bi mila baino gehiago Araba, Bizkai eta Gipuzkoan, eta seiehundik gora Nafarroan. 1976an menderatutzat eman zen gaixotasuna. Ordurako AEBetan Post-Polio Syndromeaz hitz egiten hasita zeuden; alegia, polioa izandako askok urtetara garatzen

dituzten sintoma neuromuskularrak, neurririk gabeko nekea, indar galtzea eta abar eragiten dituztenak.

PPSa diagnostikatu zioten 2005ean Ana Gisasolari (Zumarraga, 1959); terapia alternatiboak erabiliz eta landuz lortu du gurpil aulkari ihes egitea; *La fuerza está en tu interior* liburuan, bere esperientzia kontatzeaz gain, terapia horietako lezio praktikoak azaltzen ditu.

Kontua da postpolio sindromeak ez daukala botika bidezko tratamendurik, oraingo; areago, osasun sistema ez dagoela prestatuta gaixo horiei beren-beretik arretarik emateko; horregatik, hilaren 22an EAEko Legebiltzarraren Osasun Batzordera joatekotan dira Euskadiko Polio Elkarteko ordezkariak, eskaera hau eskuan: arreta integrala ziurtatzeko bideak ezartzea.

Ospitaleko gela handiak, metalezko ohe txikiak ilaran, ume banarekin... zuri-beltzeko argazkian ikusita, uzkurto egiten du bihotza irudiak; ohe horietan egotea suertatu zitzaienei —edo setati jarri eta ihes egitea lortu zutenei— entzunda, ondorio argia: bigarren gaixaldia arintzea dago jokoan.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria Aitor Izagire
Zuzendari nagusia Iban Arantzabal

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Ubane Madera
Sailtako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)


Maketazioa Imanol Soriano, Garbiñe Beitia.
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundinano, Ziortza Martín, Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia.
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Fax: 943 25 05 00
berriak@goiena.com

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05 | Fax: 943 25 05 00
publi@goiena.com

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 00
harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 18.850 ale
Diffusioa: 18.507 ale



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Erabakitze eskubidea (legalitatea eta legitimitate demokratikoa)

Xabier Igartua eta Felipe Uriarte
(Oñatiko Gure Esku Dago)
Oñati

Estatus politikoa erabakitze herri galdeketa aldarrikatzen dutenen aurka ilegala dela argudiatzen dute batzuek, euskal herritarrok eskubide horren jabe ez garela nabarmenduz.

Kataluniako Diplomazia Publikoaren Kontseiluak (DiploCAT) antolatuta EHUn egindako mahai inguruan esandako aipamen interesgarri batzuk ekarri nahi genituzke:

Gizarte ekintzaren irismen bakarra momentuko araudian oinarrituko balitz, Neolitikoan egongo ginatke. Gizarte aurrerapenaren giltza legalitate/legitimitate binomioak dauka.

Demokrazia formalean zilegitasunak aldarazten du legea. Legeak ez du eskubiderik sortzen, aitortu baizik, eskubideak legeen aurretikoak direlako.

Demos edo komunitate batek, nazio batek kasu, etorkizuna bere kabuz erabakitze eskubidea du. Herriek aske izateko eskubidea dute, nola? Erabakitze eskubidea bermatuz.

Erabakia hartzen dugunean, orduan gauzatu da erabakitze eskubidea. Legeak baino gehiago, erabakiak sortuko baitu eskubidea.

Gaur egun dugun adierazpen askatasuna, biltzeko eskubidea, manifestatzeko eskubidea... aurretiaz milaka herritar erabiltzen hasi ondoren gauzatu ziren. Berdin emakumeen bozka eskubidea zein langileek duten greba egiteko eskubidea eta zer esanik ez giza duintasun eskubidea; hau da, Hegoafrikan zein Ameriketako Estatu Batuetan beltza ala zuria izan, eskubide berdin jabe izatea aldarrikatu zutenekoa. Hala nola Rosa Parks-ek uko egin zionekoa autobusean jesarrita zegoen eserlekua gizonetako zuri bati uzteari.

Legitimitatea gehiengoaren borondatea onartzea da, baldin eta gehiengoak gutxiengoaren menderatzea gauzatzen ez badu. Kataluniako zazpi milioi herritar ezin dira Espainiako 45 milioi herritarren artean gehiengo izan. Berdina gertatzen da Euskal Herrian. Egiturazko gutxiengoek eskubidea dute beraien ahotsa kontuan hartu

GUTUNAK

Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio.

Gutunarekin batera bidali beharrekoak dira: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa.
Gutuna helarazteko bideak dira: Oñalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.eus | Faxa: 943 25 05 00

dadin, bestela gehiengoaren tiranian egongo ginatke, eta hori demokraziako arauen aurka doa. Printzipio demokratiko honen izenean, Kanadako zein Erresuma Batuko gobernuek onartu behar izan dute Quebeceko eta Eskoziako herritarrek – egiturazko gutxiengo beraien estatuan– duten estatus politikoa erabakitze eskubidea.

Euskal Herriko edo Kataluniako herritarrok ez al gara Quebecekoek edo Eskoziakoek duten eskubidearen jabe?

Debagoiengan zabortegi kutsakorrik ez

Iker Azagirre Yurrebaso
Arrasate

Hondakinak hitza azken urte hauetan denon ahotan izan da.

Erraustegi bat eraikitze asmoak eman zion gaiaren zabalkundeari hasiera. Deuseztatze sistema horri aurre egiteko hondakinak gaikako bilketa egokia antolatzea ezinbesteko zela ikusiaz, gaiaren eztabaida bilketa erarantz desbideratu zen.

Hainbat bilketa sistemaren ezarpenak egin dira azken urteotan. Herritarrek oso erantzun ona eman dute eta erraz asko moldatu dira etxeetan hondakinak behar bezala kudeatzen. Eredugarria izan da eskualdea horretan, Europa mailan ere bai. Hori guztiak azken urte hauetan Debagoiengan bizi izandakoak dira.

Eta orain, bizitako horiek guztiak bizi eta gero, hiri hondakinentzat zabortegi kutsakor bat eraikitze mehatxua ageri zaigu eskualdean; Bergaran, Epelen, hain zuzen. Diputazioak Gipuzkoako zabor nahasi gehiena gordeko duen zabortegi eraiki nahi digu Debagoiengan. Papera, janari hondarrak, plastikoak, aluminioa, txatarra... batuko dituen eta arratoiak erakarri eta usain txarra sortuko duen zabortegi, alegia.

Hori onartezina da! Lehenengo, zabortegi kutsakor bat izan genuen

urteetan, horrek zekarzkien arazo guztiekin. Ondoren, erraustegi baten ondorio latzak jasan behar izan genituen; bestalde, gure eskualdeak, gaur egun, hainbat industriari eta gremio desberdinei isurtegi kontrolatua eskaintzen die. Baina orain, hondakin industrial ez arriskutsuen isurtegi horretan, hiriko zabor kutsakorra bota ahal izateko aldaketak egin nahi dituzte.

Nahikoa da! Eskualdea hain ondo ari denean, %78ko gaikako bilketa maila lortu duenean, zein argudio dituzue inposizioa horrekin aurrera jarraitzeko?

Zabortegiari buruz galdeketa egingo duzuela espero behar al dugu?

Izan ezazue ingurumenarekiko eta herritarrekiko begirune bera. Hobe lukete beste eskualde batzuek zabortegiaren inposizioa, behar den bezala hondakinak biltzeari aplikatuko balio... ez genuke horrelako zabortegi eta erraustegi munstroen beharrik izango.

Debagoiengan zabortegi kutsakorrik ez, ez eta ez!

Aurretik iragarrita zegoen zirku baten biografia

Julen Lizaso
Hernani

Gipuzkoako zaborren auzian, batez ere, 2008a ezker, elementu argitzaileak falta dira, informazioa modu ezberdinetara baitatorkigu.

2008an EAJk onartu egin zuen materia organikoaren bilketa bikoiztea (%4tik %8ra) eta Zaldunbordan (Irun) eta Sasietan konpost planta bana martxan edukitzea 2010erako, Lapatzeko txikia baitzegoen ordura arte.

2011n, Gipuzkoako Aldundiko gobernuaren aldaketa gertatu zen, eta,aldi berean, bizkaitarrek 2007a ezker errausteko bidaltzen zitzaizkien errefusa hartzeari uko egin zioten. Arazo horrekin, EH Bilduk zenbait herritan zabor bilketa

sistema berri bat ezarri zuen edukiontzi handiak kenduaz. Ondorio gisa, errefusa bilketa 4 aldiz gutxituko zuen eta ustelkiak, berriz, 10 bider handitu. Beste herri batzuetan, aldiz, errefusaren edukiontzi handi horien erabilpena mugatu egin zuten. Nolanahi ere, bi moduekin, ingurumenarentzako emaitza oso onak lortuz, baina oso txarrak errauskailuaren negozioarentzako.

2015. urtean, Gipuzkoako Foru Aldundiak gobernu aldatu zuen berriro eta EAJk errefusaren edukiontzi bidezko bilketa itzultzea babestu zuen. Pasaia bezalako herrietako zabortegietarako frakzioa bikoiztera ere iritsi zen. Edukiontziak, bai, baina edukiontzi ahalik eta handienak, zaborren bilketa eta kudeaketaren inguruan dagoen negozioa kamioi handiak dituztenentzako bakarrik izan dadin.

2016an, gainezka egingo duela aurreikusirik, Urola Erdiko Mankomunitateak Lapatzeko zabortegian besteen errefusa onartzeari utzi egin dio... 2010erako eraikiak izango ziren konpost plantak Gipuzkoan egin ez izatearen ondorioz.

Arazo tekniko bat ala arazo politikoa, Asensio jauna? Elkartasuna ala konplizitate ari zara exijitzen Urola Erdiko Mankomunitateari?

PNV behartu zuen EH Bildu organikoaren esportatzera Funesera, eta EH Bilduk PNV errefusa esportatzera... baina zergatik Kantabriara, Bizkaian kudeatzeko dituzten hornidurak denon artean ordaindu baditugu? Non dago iritzia daukaten gipuzkoarren ahotsa? Hau guztia gizarte lotsagarrikeria hutsa baita.

Ausolagun-eko Kontseilu Errektoreari

Mikel Olabe
(Ordaindu)
Arrasate

Kooperatibista agurgarriok: Ondo dakizue, Fagor Etxetresnetako bazkideek eta

bazkide ohiek denbora luzea daramagu MCCri hauxe eskatzen: gure ekarpen boluntarioak, merkataritza-maileguak eta egiteke dauden ordainketak bueltatzea, baja hartu ostean.

FEDen hartzekodunen konkurtsoan izan ginen, eta ez zizkiguten gure aurrezkiak bueltatu.

Aurrezki haiek kooperatiban inbertitu genituen, interes baten truke, eta urteetan lagungarri izan ziren kooperatiba hobeto joan zedin, autofinantzazio bidez, eta, gainera, lanpostuak sortzen lagundu zuten. Horrek onura ekarri zion inguruneari, Arrasateri eta eskualdeari.

Gure arazoa konpontzeko bideak agortzen ari zirela ikusita, demanda bat jarri genion MCCri: 950 pertsona, 47,8 milioi euro eskatzen. Bideak aipatzen ditugunean, negoziazioaz, elkarrizketaz eta irtenbideaz ari gara. Horiak dira bide bakarrak kooperatibetan eta haietatik kanpo izan daitezkeen eztabaidak konpontzeko.

Gure aldarrikapenak aditzera egiteko, manifestazioak egiten ditugu, astero, Arrasaten eta beste leku batzuetan. Batzuetan, Ordainduaren izenean; eta beste batzuetan, Eskuraturekin batera.

Horrez gain, Euskadiko hainbat erakunderekin batzartu gara: Eusko Jaurlaritzarekin, diputazioekin, udalekin, MCCrekin, Fagor Taldearekin... Ez dugu etsiko, gurea dena lortu arte.

Era berean, adierazpen askatasuna erabilita, hainbat propaganda-ekintza egiten ditugu: pankartak jarri, kartelak, prentsa-oharrak, eta abar. Planetako biztanle guztiek eta, bereziki, kooperatibistek eta haien enpresek errespetatu beharko luketen eskubidea da hori.

Bada, egunean, hilaren 18an, 10:15ean, Ausolaguneko langile batek gure pankartak kendu zituen Aretxabaletako saihesbideko zubitik. Buelatzeko eskatu genion, baina erantzun zigun bere nagusiaren agindua zuela ez bueltatzeko. Gure ustez, leku publikoetako bidegabe jabetza da hori, ezin justifikatuzkoa, eta adierazpen askatasunaren kontrako ekintza bat ere bai.

Idatzi honen helburua hauxe da: hartu beharreko neurriak hartzeko eskatzen dizuegu; izan ere, kooperatibismoaren barruan ezin dira demokraziaren eta elkarrizketaren aurkako joerak onartu. Ez ditugu onartuko gure kolektiboaren aurkako mota horretako erasoak.

Zuen erantzunaren zain. Agur bat, Ordainduen Zuzendaritza Batzordearen izenean.

HERRIAK

ONATI

Titulatu berriek lan esperientzia izateko beka

- ▶ Lau gaztek herriko enpresa banatan dihardute urtarriletik
- ▶ Egitasmoaren bigarren deialdia prestatzen ari da Oñatiko Udala

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Ikasketak bukatu dituzten gazteek lan esperientzia izan dezaten eta aldi berean enpresek gazteen gaitasun profesionala ezagutu dezaten jarri du martxan Oñatiko Udalak titulatu berriendako beka programa hau.

Bekak sei hilabeteko iraupena du eta urtarrilean lau gazte hasi ziren herriko lau enpresatan lanean beka honi esker. Lana, Karea, Magnet eta Altuna Hermanos enpresetan ari dira, hain zuzen ere, lanean. Ekainera arte egongo dira. Sei orduko lan jardunaren truke 600 euroko ordainsaria jasoko dute hileko.

Jarraipena

Joan den urtean jarri zuen martxan ekimen hau Oñatiko Udalak. "Aurretik proba pilotu bat egin genuen baina deialdi arautua 2015ean atera genuen. Bi zerrenda osatzeko deialdia izan zen: titulatu berrien izenak jasotzeko, bata, eta bestea, herriko enpresek garatu asmo zituzten proiektuak jasotzeko", azaldu du udaleko enplegu teknikariak, Unai Kortabarriak. "Lehen deialdi horretan 15 gaztek eta sei enpresak agertu zuten interesa programa honetan

parte hartzeko", gehitu du Kortabarriak.

Gazteen ikasketak eta enpresen proiektuak aztertu eta lotu ondoren, lau gazte hasi ziren urtarrilean herriko enpresa banatan lanean. Magnet Kooperatiban interneteko zerbitzuak eta sare-rako aplikazioak sortzen dituzte, esaterako, eta horien diseinuan dihardu Amaia Guridik; Lana kooperatiban, berriz, egurrekin egiten dute lana eta ISO 9001 normaren eguneraketa egiten hasi da finantza arloko ikasketak dituen Alain Anton; Karea enpresa ikus-entzunezkoak ekoizten dituen enpresa da eta horren marketin plana ari da egiten Jon Irizar; Altuna Hermanos enpresan, berriz, kalitatearen kudeaketa eta kontrolerako sistemaren ezarpeneko proiektua gauzatuko du Josu Millasek.

Programa honen lehen beka ekainera artekoa izango da, baina egitasmoak izango du jarraipena. "Udalak badu asmoa programarekin aurrera jarraitzeko eta oraindik hurrengo deialdia egin ez badu ere, plegua prestatzen ari gara eta urteko lehen hiruhileko honetan kaleratzea da asmoa", dio enplegu teknikariak.

Enpresa barrutik ikusteko aukera

Eraikuntzarako egurrezko taulak eta habeak egiten dituzte Santxolopeztegi auzoan dagoen Lana kooperatiban. "1962an sortu zuen Lana bailara mailako baserriar talde batek, euren proiektuak merkaturatzeko. 90eko hamarkadatik hona, baina, industria kooperatiba baten moduan funtzionatzen du. Egunduko bigarren enpresa handiena da bere sektorean. Hiru geruzako tableroak egiten ditugu, batetik, eraikuntzan enkofratuak egiteko erabiltzen direnak. Habeak ere eraikuntzarako dira, baina Europan eta munduan gehiago erabiltzen dituzte penintsulan baino, eta Txekiako plantan egiten ditugu", azaldu du Lanako komertzialen koordinatzaileak, Mirari Zilaurrenek.

Egun, 60 langile inguru dira eta horiekin batera dihardu finantza ikasketak egin dituen Alain Anton gazte oñatiarrak. "Egunerokotasunean komertzial sailean dihardut eta logistika arloan eta ISO 9001 programa martxan jartzeko egingo dut lana", azaldu du.



Mirari Zilaurren eta Alain Anton. | O.E.

Bekaren berri izan zuenean ez zuela birritan pentsatu aitortu du: "Langabezian nengoen eta gazteok lan merkaturatu sartzeko ditugun zailtasunak ikusita, izena ematea erabaki nuen".

Sei hilabeteko beka programa honi esker, lan esperientzia hartuko dute gazteek eta horrek badu pisua lan berria aurkitzerako orduan. "Curriculum sendotu egingo da, bai, eta hori ondo dago. Baina liburuetan eta arbetan ikusi eta ikasi duguna benetan

zer den ikusteko aukera paregabea ere bada beka hau. Enpresa batek nola funtzionatzen duen barrutik ikusiko dut eta hori sekulako esperientzia da", dio Antonek.

Lanak ere abantaila onak ikusten dizkio programa honi. "Aurretik unibertsitate programak erabili ditugu, baina produkzioarako batez ere. Orain birmoldaketa batetik gatzoz, hazten ari gara, eta aukera ona iruditu zitzaien. Langabezian dauden gazteei aukera ematea ere bada", dio Zilaurrenek.

Proiektua garatzeko bidea

Kepa Aranburuk sortu duen Karea enpresa sortu berria da. Ikus-entzunezko ekoizpenak egiten dituen enpresa bat da, korporatiboak, administrazio ezberdinetarako era askotako bideoak, dokumentalak, musika bideoak, eta abar. "Nik oso profil teknikoak daukat, Argazki Zuzendaritza ikasi nuen eta nire lana, beti, grabaketak eta edizioak egitean zentratu da, eta gehien kostatzen zaidana alde enpresariala garatea da. Horregatik, udalak programa hau martxan jarri zuela jakin nuenean, proiektu bat garatu eta profil honetako norbaiten bila hasi nintzen enpresa ideia berria aurrera atera ahal izateko", dio Kepa Aranburuk.

Programa begi onez ikusten du Kepa Aranburu oñatiarrak: "Udalaren aldetik oso inizatiba ona dela deritzot, bai enpresendako, baita proiektua garatzen duten pertsonendako ere. Gurea bezalako enpresa txikien garapenerako laguntasun handia da programa hau, bestela garatu ezingo genituen proiektuak aurrera ateratzeko ahalmena ematen digu.



Jon Irizar eta Kepa Aranburu. | O.E.

Kepa Aranbururekin batera egun Karea osatzen duen beste kidea Jon Irizar da. Komunikazio Graduko ikasketak egin ditu Deustuko Unibertsitatean, eta "lan mundura sartzeko gaur egun dauden zailtasunak ikusirik, aukera ezin hobea" iruditu zitzaien udalak eskainitako beka. "Bi hilabetez fabrika batean aritu nintzen lanean urte amaieran, ikasitakotik ezer ez zuena. Programaren berri banuen arren, kalean enteratu nintzen Kepak zuen beharraz, eta berarekin

hitz egin ostean, ez nuen bitan pentsatu. Gaur-gaurkoz KAREA enpresarendako marketin plan bat egiten dihardut; beste modu batera esanda, Kepak zeuzkan etorkizuneko ideiak jaso, eta bezero sare egonkor bat lortzea da nire helburu nagusia. Ikasitakoarekin erlazio zuzena duenez, oso gustura ari naiz. Horrez gain, eta lantaldea bi pertsonen soilik osatzen dugula ikusirik, ikasteko ere balioko didala deritzot; finean, biok atera behar baititugu "babak eltzetik", azaldu du Irizarrek.

ESANAK

"Sei enpresak eta hamabost gaztek eman zuten izena lehendabiziko deialdian"

UNAI KORTABARRIA | ENPLEGU TEKNIKARIA

"Beka ekainean bukatuko da, baina programarekin jarraitzeko asmoa du Oñatiko Udalak"

UNAI KORTABARRIA | ENPLEGU TEKNIKARIA

Euskaltzaletasunaren egoeraz zer duzu esateko?

Topaguneak 'Berrikasi eta berrikusi' agiria aurkeztuko digu bihar Kulturaten, 10:00etan

KOMUNITATEA GOIENA
AED ELKARTEA | ARRASATE

Debagune osatzen dugun euskara elkarteok gonbidapen berezia luzatzen dizuegu euskaltzaletari bihar, zapatua, Kulturateko areto nagusian (10:00) egingo dugun saiora etor zaitzeten. Saiolari hasiera emateko, Jasone Mendizabalek eta Iñaki Martinez de Lunak Euskaltzaileen Topaguneak sortutako *Berrikasi eta berrikusi* dokumentua aurkeztuko digute. Ondoren, gaia gurera ekarri eta bailaran etorkizunari begira ditugun erronkak izango

ditugu hizpide, *Eta Debagoienean... zertan eta zelan gabiltza?* galderari erantzunez.

Irakurketa kritikoa

Berrikusi eta berrikasi dokumentua euskaltzaletasunaren azken hamarkaden irakurketa kritikoa bat da, etorkizuna begirada berriz ikusteko helburuarekin. Orain arte egin dugunez eztabaida zintzoa suspertu nahi luke, eskarmentu horrekin hobeto heldu eta ekin diezaiozun egiteko dugunari. Atsegin handiz entzungo eta jasoko dituguzure parte hartze eta iritziak.

Arrasateko extremadurarren Corazon de Encina elkarteok batzar orokorra egingo dute domekan

Corazon de Encina elkarteok zuzendaritza taldeak aditzera eman duenez, urteroko batzar orokorra egingo dute domekan, elkarrean bertan; lehen deialdia 10:00etan da eta bigarrena 10:30ean. Batzarrean landuko dituzten gaien artean daude honako hauek: 2015eko kudeaketaren, ekintzen eta diru-kontuen balantzea, 2016rako ekintzen eta aurrekontuaren aurkezpena eta zuzendaritza batzorde erdiaren aldaketa, presidentea barne. Gainera, zuzendaritzak proposamen berriak ere egingo ditu eta, ohikoa denez, galderen eta eskaeren tartea egongo da.



Askasibar baserriko Rakel Perez de Arenaza baserritarra urtarrileko azokan. | IMANOL SORIANO

Neguko produktuak eta xaboa egiteko tailerra biharko azokan

Otsaileko merkatuan 17 postu egongo dira, tartean Kilometroetarako materiala saltzeko denda; xaboiaren ikastaroan izena emateko azken eguna da gaur

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Bihar egingo da, Seber Altube plazan, otsaileko baserritarren azoka (09:00-14:00). Ohikoa denez, sasoiari sasoiko produktuak izango dira bihar ere, neguko askotariko produktuak. 17 postu izango ditu azokak, eta horietatik 15 saltokiak dira: Arrasateko zazpi postu, Debagoieneko lau, beste eskualdeetako bi eta tresneria saltzeko bi saltoki. Gainera, aurtengo Kilometroak jaialdia anto-

latzen diharduen Bergarako Aranzadi Ikastolako arduradunek denetariko materiala saltzeko postua jarriko dute. Geratzen den postua etxean erabilitako koipearekin xaboa egiteko tailerrarendako izango da.

Xaboa eginez, olio berrerabili

Xaboa egiteko tailerra izango da, hain justu, otsaileko azokaren bereizgarria. Idurre Aranguren eta Nerea Altuna arituko dira irakasle lanetan, 10:30etik 12:30era. Modu praktikoan azalduta, bi xaboi mota egiteko teknikak landuko dira: eskuzko garbiketarako xaboi-takoa eta garbigailurako xaboi likidoa. Helduendako tailerra izango da, bereziki prozesuan erabiltzen diren osagai kimikoak direla

eta. Aurretik izena ematea komeni da eta gaur da horretarako azken aukera; interesatuek BAZera edo Udalaren webgunera jo dezakete. Plaza mugatuak dira. Euskaraz izango da, eta doakoa. Parte hartzaileek eraman behar dute amantala, gomazko esku-larruak eta kristalezko tarro bat bere taparekin. Aranguren eta Altunaren arabera, estimatzen da batzate beste etxebizitza baten litro bat olio botatzen dela etxeko isurbideetatik. Eta botatzen den litro bakoitzeko naturako 1.000 litro ur kutsatzen dira, ur horiek araztea "oso zaila eta garestia" izanik: "Olio horrekin xaboi naturalak egitea birziklatzeko modu oso baliagarria da gure ingurunearen eta osasunaren zaintzarako", diote.

INSPIRAZIOAK
URRUNAGO
EROAN ZAITZAKE

DS 4 CROSSBACK



DS AUTOMOVILES
SPIRIT OF
AVANT-GARDE



Ihes egiteko sortua, DS 4 Crossback ezin hobea da lurralde berriak esploratzeko, eta trakzio-kontrolako sistema adimenduna eta motor eraginkorra ditueneguz, ederto gidatuko duzu bai hirian, eta bai abentura-bidaia baten ere.
Hemen daukazu: nuevoDS4.es

DSk nahiago du TOTAL
Batez besteko kontsumoa: 3,7-5,9 (l/100 km) CO2 emisioak 97-138 (g/km)

www.driveDS.es



JOKIN BEREZIARTUA

Arbolapeta-Muzibar, jendaurrean

Otalora kaleko Arbolapeta eta Muzibar arteko kale zatia berrantolatzeko proposamenen gaineko erakusketak ikusmin handia piztu du herritarren artean. Kulturateko erakusketa bisitatzeko azken eguna da gaur, 17:30etik 19:30era. Udalak herritarren iritzia jaso gura du ezer erabaki aurretik eta hila amaierara arte aukera egongo da horretarako, BAZen zein Udalaren webgunean. Botoa emateko aukera dago, baina ez da loteslea izango.

TALLERES CHAPIME

San Andres 5, 20500 ARRASATE • Tel.: 943 79 45 22

Jose Luis Amerigo | Notario

"Testamentua egiteak gastu eta buruhauste asko aurrezten ditu"

- ▶ Borondatezko agiri horrekin "dena askoz argiago" geratzen dela dio adituak
- ▶ Beste hitzaldi bat otsailaren 29an, San Felipe Apostol Elkartearen eskutik

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Arrasaten 19 urte daramatza notario lanetan Jose Luis Amerigok. Astelehenean hizlari lanetan aritu zen Kulturaten, harendako egunerokoaren parte diren testamentua eta herentzia oinarri hartuta. Goraino bete zen areto nagusia eta saioaren antolatzaile San Felipe Apostol Elkarteak erabaki zuen hitzaldia errepikatzea, leku berean, otsailaren 29rako (18:30). **Zertan dira ezberdinak testamentua eta herentzia?**

Jende askok bi termino horiek nahastu egiten ditu, eta ez da harritzekoa, asko dute eta komunean. Labur azalduta: testamentua pertsonak bizirik dagoenean egiten du, hiltzen denean bere ondasunekin zer egin nahi den zehazteko. Herentzia, berriz, testamentu hori oinarri hartuta pertsona hil ostean egiten dena da. Hori da oinarritzko azalpena. **Eta zergatik gomendatuko zenuke testamentua egitea?**

Hasteko eta behin, argi utzi gura dut ez dela nire asmoa hemendik lana lortzea edo dirua ateratzea; oso dokumentu merkea da, gainera. Borondatezkoa da, eta ez da 40 eurora heltzen. Baina testamentua egitea gomendatzen dut gauzak askoz argiago geratzen direlako, gastu eta buruhauste asko aurrezten direlako. Eta beti esaten dudana, nahiz eta *curxia* dela iruditu: mundu honetan geratzen direnendako maitasuneko ekintza bat da. Dena askoz argiago geratzen da.

Gai zabala eta korapilatsua izan daiteke askorendako. Nola gertatu halako saio bat ezer ez dakienari? Hitzaldia ez da ordu eta erdi baino luzeagoa, bestela astuna egiten da. Bloke ezberdinak ditu eta bloke bakoitzaren amaieran galderen tartea irekitzen dugu.

Zeintzuk dira bloke horiek?

Sarrera bezala, testamentuaren eta herentziaren arteko ezberdintasunak nabarmen ditut. Gero, EAEko zuzenbide zibileko 5/2015 legearen nobedade nagusiak jorratzen dira -lege berri horren harira dator hau guztia-. Hortik aurrera, nobedade horiek



Jose Luis Amerigo asteleheneko hitzaldia hasi aurretik. | JOKIN BEREZIARTUA

oinarri hartuta, Bizkaiko foru legean aurretik zeuden eta orain EAE osora zabaltzen diren testamentu eta agiri motak landuko dira otsailaren 29ko saioan ere: hiltzeko arriskuan egiten den testamentua, testamentu mankomunatua, komisarioaren bidez egiten den testamentua -Aramaion, Bizkaiko foru legea indarrean dutenez, antzinatik erabiltzen dute- oinordetza-itunak...

Legetik harago ere joango zara...

Bai. Legearekin zerikusirik ez izan arren, autotutoretzaren gaia ere landuko dugu, adibidez. Oso interesgarria dela deritzot; pertsona batek, etorkizunean alzheimerre edo bestelako demenziaren bat agertzen bada, ahalmen batzuk beste pertsona bati eman diezazkioke. Egoera triste eta zail hori heltzen bada, askoz eramangarriagoa izango da. Amaitzeko, bizi-testamentua ere jorratuko dugu; izen horrekin ezagutu arren, ez da testamentu bat. Atzera bueltarik ez duen egoera baten aurrean pertsonak adierazten du ez duela nahi modu artifizial baten bizirik mantentzea. Horretarako erregistro bat dago Gasteizen.

Nola ikusten duzu saioa antolatzea?

Oso ondo. San Felipe Apostol Elkarteak, apur bat gogorra iruditu arren, heriotzarekin kontaktuan dago, eduki honekin guztiarekin gertatzen den moduan. Ikaratu egiten gaitu, baina heriotza baino naturalagorik mundu honetan...

Hitzaldian, adineko jendea izan zen nagusi, nabarmen. Zergatik?

Esperientziak diost gero eta gazte gehiagok egiten dutela testamentua. Baina hitzaldiarena logikoa da, gazte askok urrun ikusten dituzten gaiak dira. Denbora da arrazoia. Plazera izan zen asteleheneko saioa; egoterik ez zutenei, hilaren 29an ikusiko dugu elkar!

NIRE USTEZ

NEREA
MAKAZAGA

Arnasez (soilik) bizi

Begiak itxi, arnasa sakon hartu eta uneari hor eutsi. Segundo batzuk gelditu, barruko nahasiak kokatzen hasteko. Eta bat, bi, hiru, lau... Arnasa kanpora, eusten diogun horri guztiorri arnasekin batera joaten uzteko. Eta horrela minutu batzuk, arnasa arreta jartzen, joan etorri, etorri joan... Atsedena hartuz, atsedenera bueltatuz.

Sarriago egin beharreko praktika genuke arnasketarena, izan ere, arnasketaren gaineko kontzientzia eta kontrolak, seguruenik, gaur egungo estres eta gai-

xotasun ugari gainditzen lagunduko liguke. Eta horrela, arnasketari erreparatzen ari nintzela, iritsi zitzaidan *Breatharian* kontzeptua, arnasketatik soilik bizi direnenak izendatzeko ingelesezko hitza. Ez dakit zuetariko zenbaterik ikusi duzuen orain gutxi Cuatro telebista kateak Victor Truvianori egindako elkarrizketa. Ikusi ez duzuenontzat, hamar urtez ezer jan eta edan ez duen argentinarra omen da Victor. Bere esanetan airetik bizi da eta airetik jasotzen du bizitzeko behar duen guztia. Eta NASAK bere kasua aztertu duen arren, nondik norakoak azaldu ezinean gelditu omen da.

Breatharian kontzeptuak harritu ninduen arren, bakoitzak erabakiko du sinetsi ala ez sinetsi. Nik nireari eutsiko diot, eta arnasketan murgilduko naiz orain berriz, arnasez bizi batekin idazten hasi eta arnasez bizi batekin hustuta amaitzeko.

Huheziko ikasleen '... ezagutzera nator!' saioa otsailaren 25ean estreinatuko da, 22:00etan hasita

Huheziko ikasleen ... *ezagutzera nator!* saioan, Arrasateko kontuak izango dira berbagai. Olaia Iraola da aurkezlea. Bagarako Onintze Guridi, Ana Isabel Ugalde historialaria, Erein Da Jan elkarteko Andoni Larrañaga eta Euskal Herrian Euskaraz-eko Mikel Makazaga, Ane Errarte eta Ane Zuazubiskar izango dira protagonista. Arrasateko historia, kooperatibismoa eta euskara aztertuko dituzte.

Debagoieneko Lanbide Heziketako esperientziak



GOIAZ! 2016

Lanbide Heziketaren Azoka

Martxoaren 15ean eta 16an;

Kulturaten, Arrasaten.

Prestakuntza arloko eskaintza

Enplegu zerbitzuak

Ekintzaileentzat zerbitzuak

Tailerrak eta hitzaldiak

Aparatuak eta esperimenduak



ñigo Agirrezabal bergararra Miguel Altuna institutuan Lanbide Heziketako goi mailako fabrikazio mekanikoko bigarren maila bukatzen ari da, eta, bitartean, Dual sistemaren bitartez, TTT taldeko Ikankronitek enpresan lanean dabil. Datorren urtean Ingeniaritza ikasten hasteko asmoa dauka.

Zergatik aukeratu zenuen Lanbide Heziketa?

Batxilergoa egiten hasi nintzen, lagunekin jarraitzearen, baina laster konturatu nintzen ezingo nuela behar bezala bukatu, eta mekanizatuko erdi mailako ziklo bat egitera etorri nintzen Miguel Altunara. Orain, goi mailako zikloa bukatzen nabil.

Dual sistemaren bitartez, enpresan egotean, zer ikasten da?

Eskolan gauza batzuk ikasten dira, baina askoz gehiago ikasten da enpresan; egunero gauza berriak, lan-ohiturak, eta batzuetan ardura handiko lanak ere. Lanbide-irakasle onak dauzkate.

Eta nola funtzionatzen du Dual sistema horrek?

Lehenengo kurtsoa amaitutakoan, udan 7 ordu lan egiten dira; bigarren mailan eskolak daukagunean, 3 ordu eta erdi; eta praktikak tokatzen direnean, berriz, 7 ordu. Dirutxo bat kobratzen da, baina garrantzitsuena enpresarekin daukadan kontaktua da. Enpresak ezagutu egiten nau, erdi mailatik enpresa berean nabil, eta hori abantaila bat da, bai niretzat, eta baita enpresakoentzat ere.

Inguruko enplegu laguntza izan al zenuen LH aukeratzeko orduan?

Hasieran, etxean, ez zuten aukera onena



"Lan-irteera asko dauzka. Nire gelako 15 lagunetatik, guztiok ez bada, ia guztiok lana izango dugu bukatzean."

bezala ikusten, baina orain beste iritzi bat dute.

Zer eman dizu Lanbide Heziketako?

Nik praktikan ikasten dut, eginez, eskuekin, eta Lanbide Heziketak aukera hori eskaintzen dit. Gainera, enpresan lan eginez, ikasteko aukera ere eman dit; erdi mailan nengoetik enpresa berarekin nabil. Eta ingeniarietza duala ere bertan egiteko asmoa daukat, makina-erremintaren arloan.

Lanbide heziketak laguntzen al du lana topatzen?

Bai, dudarik gabe. Lan-irteera asko dauzka. Nire gelako 15 lagunetatik, guztiok ez bada, ia guztiok lana izango dugu bukatzean.



Amerigo eta San Felipe Apostol Elkartearen presidentea Juan Jose Pagaldai | J.B.



EH Bildu, Baleike, Irabazi, ELA, LAB, CCOO, ESK, STEE-EILAS eta Ordainduko kideak eguaztenean. | JOKIN BEREZIARTUA

"Moratoria eskatzen dugu garbiketa araudiarentzat"

- ▶ Hainbat eragile daude martxoaren 1ean onartzekoa den ordenantzaren aurka
- ▶ Adierazpen askatasunaren aurka doala eta definitu gabe dagoela salatu dute

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

"EAJk eta PSE-EEk martxoaren leku osoko bilkuran nahi duten mozal ordenantzaren aurrean moratoria eskatzen dugu herritarren eta eragileen artean eztabaida eraikitzaile eta parte-hartzailea eman arte". Horixe da EH Bildu, Baleike, Irabazi, ELA, LAB, CCOO, ESK, STEE-EILAS eta Ordainduko ordezkariak Udala

Gobernuari eguazten iluntzeko agerraldi publikoan egin zioten eskaera nagusia. Ordenantza adierazpen askatasuna urratzen duela uste dute: "Herria garbi eta txukun mantentzearen alde gaude, baina ez, hori adierazpen askatasunaren kontura bada. Ez dugu onartzen zikinkeria eta aldarrikapen sozio-politikoak maila berean jartzea". Izan ere,

uste dute mezuaren arabera baimenak emateak "zentsuraren figura" berri bat sortuko duela: "Ez dugu onartzen modu prebentiboan ezartzea zentsura Arrasateko kaleetan. Ordenantza honek ez du bizikidetzan laguntzen, kontrakoa baizik, hiritarren artean konfrontazio dinamika eratzen ditu, euren artean salaketak sustatuz". Gogora ekarri

zuten, besteak beste, ordenantza 18 alditan aipatzen duela *debeku* hitza, 17 alditan *zigorra* hitza eta *heziketa* hitza ez dela aldi bakar baten ere agertzen.

"Definitu gabeko" ordenantza Garbiketa ordenantzaren zirriborroak hainbat gai definitu gabe uzten dituela salatu dute: "Ez dakigu nola jarriko den praktikan ordenantza. Ez dakigu, adibidez, zigor prozedurak nola gauzatu diren, udal langileek nola jokatuko duten, jartzekoak diren panelak ipini barik daude... Zalantza asko daude eta, zentzu horretan, ordenantza nahikoa landu eta definitu gabe dagoela uste dugu. Pentsatzen dugu aukera dagoela gaia beste era batera lantzeko".

Izan ere, jakinarazi zutenez, otsailaren 25ean egingo den Bozaramaileen Batzordera bitartean aukera dago gai zerrenda moldatzeko. Horrekin batera, kritikatu dute arautegia lantzen ari den batzordeko arduradun Oscar Garcia zinegotzi sozialistak adierazi diotela gaia hurrengo osoko bilkuran landuko dela, "bai ala bai".

Otsailaren 24an, udaletxean

Era berean, "mozal ordenantza" deitu dioten horri moratoria edo luzamendua eskatzeko herritarrei dei egin diete otsailaren 24an, 17:30ean, udaletxeko arkupeetara hurbil daitezken, gaia landu eta eztabaidatzeko. Atxikimendua adierazteko helbide elektronikoa bat ere jarri dute martxan: *mozalordenantzarikez@gmail.com*.

Udal Gobernuak: "Adierazpena bermatuko du"

Udal Gobernuak berretsi du ordenantza "herri atseginago eta garbiago bat" eskaini nahi duela: "Udalak guztionak diren bide zein eraikin publikoak errespetu osoz erabili behar direla uste du, gure lehenaldia, oraina eta etorkizuna bermatzeko asmoz, betiere adierazpen askatasuna bermatuta". Gobernuaren arabera, garbiketa ordenantzaren zirriborroko artikuluen artean pintadak, pankartak eta kartelak arautzen dituenak sortu du eztabaida, "adierazpen askatasunaren urraketa" aipatuz: "Horren aurrean adierazi nahi dugu pankartak eta kartelak jarri ahaliko direla horretarako egokitu diren lekuetan eta adierazpen artistiko librerako guneak ezarriko direla. Herria garbi eta atsegin mantentzeko araudia da helburua, ez debekua". Gainera, EAJk eta PSE-EEk adierazi dute dagokion Obra eta Zerbitzuetako batzordean "hainbat alditan" landu dela gaia.


"Isilarazien testigantzak" jasotzen dituen euskarria

'Ametsen liburua' aurkeztu dute, 400dik gora euskal preso eta errefuxiatuen bizipenen bilduma

J.B. | ARRASATE

Ametsen liburua izeneko liburua aurkeztu zuten martitzenean Kulturaten. 400dik gora euskal preso, errefuxiatu eta erbestetaren testigantza era askotan jasotzen ditu bere 960 orrialdeetan zehar. Jokin Urain preso ohia aritu da koordinatzaile lanetan. Liburu "berezia, bakuna eta ezohikoa" dela nabarmendu zuen Urainek, adierazi zuenez, "isilarazien testigantza intimoak" jasotzen dituelako, horien aurpegiak erakutsiz eta bakoitzari merezi duen lekua eskainiz: "Noizbait askatasuna galdu dutenen ametsen liburua da, memoriaren kutxa eta altxorra Bizitzeko ilusioak jasotzen dira euskarri honetan, harremanaren bitartez sortutako askatasun nahiak eta ilusioak dira protagonista".

Urainen arabera, eten handirik izan ez duen errepresio baten historia da Euskal Herriarena: "Kartzelaren itzela eta erbestearen itzela gaineratik kendu izan duen herria gara. Askatasun gabezia hori ezagutu duen herriko herritarren ametsak ezagutu nahian sortu zen proiektua".



Jokin Urain liburuarekin. | J.B.

Herriko esperientziak tartean

Aurkezpena Igor Letona preso ohi arrasatearrekin batera egin zuen Urainek. Liburuan badaude Arrasateko testigantza eta aurkezpenean, herriko zenbait preso ohik espetze barruan bizitzeko esperientziak ere kontatu zituzten, tartean Xabier Urizar *Gautxori*-k, Ino Galparsorok eta Letonak berak. *Ametsen liburua* Astero argitaletxean (944 23 72 73) edota Interneten (*www.ametsenliburua.info*) dago salgai.



Ubarretxena eta Arregi, otsailaren 11ko inaugurazioan. | MAITE TXINTXURRETA

Iñigo Arregiren 'Harresi ezkutua' Portaloian parte da dagoeneko

J.B. | ARRASATE

Iñigo Arregi artista arrasatearra *Harresi ezkutua* eskultura bere ibilbide luzean egin dituen lanen artean "erreferente" bilakatuko dela uste du: "Portaloia hiribildurako sarrera izan da betidanik, momentu baten harresi bat egon zelako. Desagertuta egon arren, ezkutuan egotearen balioa eman nahi izan diot".

Udalak, bere aldetik, "herriaren ondarea balioan jarri" nahi izan du eskulturarekin: "Arrasate kooperatibismoagatik eta enpresa munduagatik egin da ezagun azken hamarkadetan, baina balio historiko handia ere dauka. Alde zaharrak Erdi Aroko forma mantentzen du oraindik, eta harresia igarotzeko hiru ate orijinalen antzera. Jakinda monumentu historiko

moduan izendatuta dagoela, nahi genuen hori guztia balioan jartzea", adierazi du Maria Ubarretxena Arrasateko alkateak.

EH Bildu ez zen egon

Udal Gobernuaren gonbita jaso arren, EH Bildu ez zen ekitaldian egon: "EAJ-PSE-EE gobernuaren apustu propioa da, haren egokitasuna eta esleipena euren kasa erabakita eraman zituzten-eta 2016ko aurrekontuetara, beste alderdi politikoekin aurretik hitz egin gabe. Udal gobernuak beti izango gaitu prest edozein gai elkarrekin aurrez lantzeko; nahiago dugu horrela lan egin eta ez azken argazkirako agertu soilik. Iñigo Arregi egile eta artista arrasatear handiari gure begirune eta miresmen osoa adierazi nahi diogu".

Bihar ere elkartuko gara Musakolako ludoteka ibiltarian

Joan den aste bukaeran hasi zen ludoteka ibiltaria Musakolan, eta parte hartzaile ugari gerturatu zen. Han egon zirenek aste honetarako sukaldaritza egitea proposatu zuten. Bihar, zapatua, 10:30ean, Musakolako gazte txokoa elkartuko gara berriz, eta gerturatzen direnen artean zer eta nola egin erabakiko da; gerturatu eta parte hartu! Goiza primeran pasatu eta hamarretakoa egiteko aukera egongo da!

Arrasaten bizi diren oñatiarrak martxoaren 5ean elkartuko dira

200 oñatiar inguru bizi dira Arrasaten, eta, azken urteetako ohiturari eutsiz, aurten ere elkartuko dira. Martxoaren 5erako egin dute hitzordua; Ederra taberna elkartuko dira -bertan eman behar da izena- 13:30ean eta 14:00etan talde argazkia aterako dute Herriko Plazan. Bazkaria Aldape (Batzokia) jatetxean egingo dute, 14:30ean, eta gero DJ batek giroa du bazkalostea: "Parte hartu gura duenak eman dezala izena lehenbailehen", adierazi dute.



Altzola, domekan, Antzuolako 8 Miliak proban. | IMANOL SORIANO

Entrenatzeko sasoia Iñigo Altzolarentzat

Domekan Antzuolako 8 Miliak proba irabazi zuen

MAITE TXINTXURRETA | ARRASATE

Antzuolako 8 Miliak mendiko proba bigarren urtez jarraian txapeldun izan zen Iñigo Altzola arrasatearra domekan. Hori gutxi balitz, iazko denbora minutu eta erdi hobetzea lortu zuen. 1.07.27ko denbora egin zuen helmugan. "Ondo sentitu nintzen", adierazi du Altzolak.

"Hasieratik gogor jo nuen aurrera, pentsatzen nuelako behe-rakoan bera ni baino hobeto arituko zela, eta ez arriskatzearren". Estrategia hori ondo atera zitzaion arrasatearrari: "Tarte nahikoa atera nion eta beheranzkoan lasaitasun apur bat izan nuen karre- ra kontrolatzeko eta gozatzeko".

Entrenamendu sasoia

Antzuolakoaren aurretik, duela hiru aste Beasainen izan zen proba batean. Hori eta Antzuolako dira urtean goizen antolatzen diren probak, eta orain atsedenditxoa izango da hurrengo lasterketara bitartean.

Hala, hemendik aurrera entrenamendu sasoiarekin hasiko dela azaldu du Iñigo Altzolak, denboraldia ahalik eta ondoen prestatzeko asmoz. "Orain, apirilera

arte ez daukat ezer", dio arrasatearrak. Entrenatzen jarraitzeko aukera ona dauka ordura bitartean. Azaldu duenez, probak datozenean "deskantsatu egin behar izaten da entrenatu baino gehiago". Orain, astean egun batez hartuko du atsedena, eta gainontzekoetan korrika, bizikletan edo eskiatzen ibiliko da.

Gero, Euskal Kopako probak egingo ditu Altzolak apirillean, maiatzean eta ekainean. Uztaillean, berriz, ostera ere atsedena izango du; lasterketei dagokienez, behintzat.

Helburuak

Bere buruari datorren denboraldia begira helburu zehatzik jarri ote dion galdetuta, zera dio Altzolak: "Euskal Kopan ahalik eta aurreren ibiltzea, taldeaz batera ahalik eta ondoen, bai kilometro bertikalean, baita hogeik kilometro inguruko distantzietan ere". Horretaz gain, baina, helburua "disfrutatzea" dela dio; "minik hartu barik, ahal bada".

Bere burua "ondo" ikusten du Altzolak Antzuolatik bueltan, eta esan du iazko zenbakiak hobetzeko gero "pozik" egongo dela.

'Rigoletto' opera Arrasatera iritsiko da eguztenean

Otsailaren 24an, eguztenean, hain zuzen, iritsiko da Verdiren *Rigoletto* opera klasikoa Arrasateko Amaia Udal Antzokira, Ozenki elkartearen eskutik. Opera 2001 taldeak taularatuko du obra, 20:00etan hasita. Nazioarteko opera abeslarien interpretazioekin gozatzeko aukera izango da: Giulio Boschetti (baritonoa), Sonia Bellusi (sopranoa), David Baños (tenorea) Tihomir Androlov (baritonoa) eta Lilianna Mattei, Maddalena-ren rolean (mezzo-sopranoa). Martin Mazik izango da zuzendaria, eta Plevan-Bulgariako orkestrak izango du musikaren ardura.

Manex & Maria eta WC Roca And Roll asteburuan Jai Zalen

Ez aspertzeko moduko asteburua izango dute gaur hasita Olarte kaleko Jai-Zale tabernan. Gaur eta bihar, kontzertu bana izango da ikusgai, hileru kaleratzen duten egitarauaren barruan. Gaur, egubakoitza, 22:30ean hasita, Manex & Maria bikotearen doinu lasaiak izango dira entzungai. Bihar, berriz, zapatua, WC Roca And Roll Arrasateko taldea izango da taula gainean. Hauen kasuan, doinu lasaiak alde batera utzi eta punk giroko musika zikina joko dute, euren izenak adierazten duen moduan. Zapatuko kontzertu hori 18:30etan izango da.

Garaipenen zerrenda puzten jarraitu nahi dute

Kanpanzar Arrasate Rugby Taldeak Arratiko Zekorrek-en aurka jokatu du domekan etxean

M.T. | ARRASATE

Joan den domekan Gasteizen Gaztedi B-ren aurka irabazi ostean, lider postuan mantendu da Kanpanzar Arrasate Rugby Taldea, orain arteko norgehiagoka guztiak irabazita. Asteburu honetan Arratiko Zekorrek taldearen kontra zerrenda hori beste garaipen batekin betetzen saiatuko dira, etxean.

Zuri-moreentzako baldintzak onenak izan ez ziren arren, 12-25eko emaitzarekin irabazi zuten Gasteizen. Jokalari gutxi zeuzkaten partidurako, hamaisei, hain zuzen; gainera, gripeak

jota zegoen Jon Ander Delgadok berdegunea laga behar izan zuen hasi eta gutxira, eta ordezkorik gabe geratu zen Arrasateko taldea.

Hamaikagarrenaren bila

Domekan sarrailagileek Arratiko Zekorrek hartuko dituzte, etxean. Saikapenean seigarren doaz bizkaitarrak, azkenaurerko postuan. Joaneko partiduan arrasatearrek 17-29 irabazi zuten arratiarrei. Hala ere, azken hauek jokatu dituzten azken hiru partidua irabazi egin dituzte.



Orain arteko partidu guztiak irabazi dituzte arrasatearrek. | GOIENA

ZALDIBAR

EMAITZAK (7.JARDUNALDIA)

Aldatz-Abokajarro	2-0
Elorra JMA-Rayo Makabro	4-2
Monte Taberna-Dribling	1-5
Lasagabaster-Betrayer	3-0
Olimpiakojes FC-Sonografos	3-6

SAILKAPENA

TALDEA	P	J
1 Aldatz	22	7
2 Dribling	22	6
3 Monte Taberna	18	7
4 Lasagabaster	16	7
5 Sonografos	16	7
6 Abokajarro	12	6
7 Elorra JMA	11	7
8 Betrayer	10	7
9 Olimpiakojes FC	4	7
10 Rayo Makabro	0	7

PARTIDUAK (8.JARDUNALDIA)

OTSAILAK 20, ZAPATUA
10:00 Lasagabaster-Abokajarro / Monte Taberna
11:00 Sonografos-Monte Taberna / Abokajarro
12:00 Olimpiakojes-Rayo Makabro / Sonografos
13:00 Dribling-Elorra JMA / Hirugarren partiduko irabazlea

OTSAILAK 21, DOMEKA
11:30 Betrayer-Aldatz / Lasagabaster
12:30 2. ko irabazlea-4. ko irabazlea / 5.eko galtzailea

Koparen hasiera

Kopako final-zortzirenak eta final-laurdenak jokatu dira. Berdinketa egonez gero, bost penalti jaurtiko dira, luzapenik ez. Kopako golak ez dira goletzaille sailkapenean zenbatuko.



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Deialdia egiteko finka okupatu aurretiko aktak, dagozkien Udala-Besaide ibilbidearen eta inguruko baliabide natural eta kulturalak hobetzeko eta berreskuratzeko proiektuaren testu bateratuaren D faseari.

2016ko otsailaren 2ko bilkuran Udal Plenoak onartu zuen Udala-Besaide ibilbidearen eta inguruko baliabide natural eta kulturalak hobetzeko eta berreskuratzeko proiektuaren testu bateratuaren D faseak erasandako ondasun eta eskubideen behin betiko erlazioa. Halaber, okupazioa urgentziaz egin beharra deklaratu zuen Nahitaezko Desjabetzapenari buruzko 1954ko abenduaren 16ko Legearen 52. artikulua dakartzan ondorioekin.

Hori dela eta, dei egiten zaie erasandako eskubideen titular eta jabeen eranskinean jasotako egun, ordu eta lekuan ondasunak okupatu aurretiko akta jasotzeko, eta bidezko bada, behin betiko okupatzeko.

Eragina jasango duten ondasunetan edozein eratako eskubideak edo interesak dituzten pertsona titularrak,

eta horretan bestelako interesik duten gainerako pertsona guztiak ere joan daitezke bilerara, bai zuzenean, eurak joanda, bai zeharka, euren ordezkari dagokion baimenarekin besteren bat bidalita; era batera zein bestera, titulartasuna egiaztatuzko agiriak eraman beharko dituzte (eskriturak, ziurtagiriak edo Jabetza Erregistroko ohar informatiboak). Hala nahi izanez gero, peritu edo notario batek lagunduta ere joan daitezke.

Era berean, argitaratutako zerrenda horretan agian agertzen ez direla eta, eskubide erreal zein interes ekonomikoen titularrek eta horretan bestelako interesik duten gainerako pertsonen egoki iriztitako alegazio guztiak aurkeztu ahal izango dituzte, eragina jasango duten ondasun eta eskubideen zerrenda horretan egon litezkeen okerrak zuzentzeko, eta horretarako bakarrik. Alegazio horiek idatziz aurkeztu beharko dira Udalaren Erregistro Orokorrean (BAZ bulegoa), eta hori egiteko epea ondasunak okupatu aurreko aktak egiteko egunean amaituko da. Hori guztiori halaxe da Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Araudiaren 56.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Finka (erlazioaren arabera)	Katastro datuak (Pol. - Partzela)	Titularra	Data	Odua	Tokia
1	09 - 019	Luis M° Murgoitio Azcoaga	2016/03/01	11:00	Partzelan bertan
2	09-018	Luis M° Murgoitio Azcoaga	2016/03/01	11:00	Partzelan bertan
3		Pilar Zubia Arana	2016/03/01	11:30	Partzelan bertan

Arrasate, 2016ko otsailaren 4an
ALKATEA
Maria Ubarretxena Cid.

Aurrekontuan isla izango luketen Gobernuaren asmoak

Otsailaren 29ko osoko bilkuran bozkatuko dituzte Udalaren zenbakiak eta zehaztuko dira proiektuak

JULEN IRIONDO | BERGARA

Hilabete hasieran -4an- aurkeztu zuen Udal Gobernuak bere aurrekontu proposamena, eta

otsaileko azken eguneko osoko bilkuran bozkatuko dute behin betikoa. Azpian jasotakoak dira 2016rako EAJK eta PSE-EEK dituz-

ten asmoetako batzuk, aurtengo kontuetan isla izango luketenak.

Horiez gain, beste batzuk ere badira. Adibidez, wifigune libreak jarri nahi dituzte herrian, eta auzo guztietara Internet eraman. Wifi libreari dagokionez, Errekalde jauregian probak egiten ari dira, eta, "funtzionatzen duela bermatzean, herrira zabaltzea da asmoa". Ezarpen hori herriko eragileei aukera emanaz eta haien laguntzarekin egin nahiko luke

jeltzaleen eta sozialisten Udal Gobernuak.

Beste asmoetako bat da ur sarean inbertsioa egitea, 25.000 euro. "Hoditeria ihesak saihestea eta sareko material zaharkituak kentzea" nahi dute, eta horretarako proiektua egingo lukete 2016an.

Eta landa auzoetarako asmoak ere baditu Udal Gobernuak. Tartean, Hazi erakundearen eskutik martxan jartzekoa direna.



LARRAMENDIKO POLIGONOA Sprilur-ekin elkarlanean dihardu Udalak, industrialdea biziberritzeko eta enpresak erakartzeko.



IPINTZAN ATERPEDUN HARMAILAK EGITEKO 100.000 EURO Plegua idazteko fasean dago egun. 2016. urtea amaitzerako eginda egongo dela aurreikusten da -proiektua gauzatzekoan kirol ekintzen egutegia kontuan hartu beharko da-.



HILERRIAREN TOKIALDATZEA Ze aukera egon daitezkeen aztertu eta baldintzak beteko lituzkeen lekua topatu nahi dute.



ARRIZURIAGARAKO 1.107.040 EURO Permutaren edukia aldatu -UNED Seminarioan geratuz- eta Udalak milioi pasatxo berreskuratuko luke; jauregiaren "birgaitzea eta egonkortzea" egingo litzateke diru horrekin. EAJK liburutegia hara eramateko asmoa agertu izan du.



SANEAMENDUA: 100.000 EURO Fraisko zuriko lanetarako izango da, etxeetako ur zikinak kolektorera bideratzeko. Proiektua eginda dago, eta aurrekontuak onartzean egingo da esleipena. Bigarren fasea, urok Mekolaldera bideratzea izango da. "Ingurumenaren eta kalitatearen aldeko apustua" da.




BIDEGORRIA Sarea osatzen jarraitzeko asmoa du Udal Gobernuak. Urteaga eta autobus geltokia arteko zatiaren proiektua onartuta dago, lizitazioarako prest. Boni Laskuraingo eta Ugarte kaleko tartean, berriz, Zetabi arkitektura bulegoak egingo ditu; proiektua egiten ari dira.



APARKALEKUEKIN ARAZOA Autobus lineak eta "aparkaleku disuasorioak" hobetzeko eta ezartzeko asmoa du Gobernuak.



ESPOLOIKO URBANIZAZIOA Aurreproiektua idazteko fasean. Jasoko du estalpeko jolas eremua eta kioskoa, azaleko urbanizazioa, berritza.



FRONTOIAREN AZTERKETA AKUSTIKOA Hainbat ikuskizun egiten dira, baina ez dago halakoetarako egokituta. Azterketa akustikoa egin eta ikusi nahi dute irtenbidea zein izan daitezkeen eta, bai ekonomikoki eta bai teknikoki, bideragarri ote den. Azterketarako, 4.000 euro lirateke.



ERREKALDEKO LORATEGIA BIRGAITZEKO 150.000 EURO Lehen faserako izango litzateke kopuru hori -2017an jarraitzeko-, "irisgarritasuna eta argiteria bermatzeko, eta elementu guztiak egonkortzeko". Lorategiak duen "balio handia nabarmentzea" da helburua, Udal Gobernuaren esanetan.

NIRE USTEZ

MARIJE UGALDE



Herriaren altxorra

Santa Marina parrokia, igandea, arratsaldeko zazpiak, kontzertua. Lope Alberdi organoaren lehen notak. Denok isilik, musikan murgilduta. Oscar Candendo maisuaren ferekaz sorturiko soinuez gozaten.

Entzuten nagoen esaldi bakoitzak, fraseo bakoitzak, pentsarazten dit bergararrok pribilegiatuak garena.

Bergarara etortzen ari diren punta-puntako artista profesionalek euren lana eta jakituria gure herriari eskaintzen diote, gure altxor artistiko-kultural-musikala betiko mututu ez dadin; San Pedro parrokiako Stoltz-Frères organo harro sentitzeko moduko ondarea delako, eta zuhur zaindu beharrekoa.

Munduko toki ezberdinetatik etorritako organista guztiak bat datoz: gure Stoltzaren soinua zoragarria da, berezia.

Munduan, gainera, ezaguri horietako instrumentu oso gutxi geratzen dira; lagun baten hitzetan, organoen arteko Ferraria da.

Eta bitartean kontzertua aurrera doa, amaitzear dago.

Bukaeran, elkartutako ehun entzuleok, liluratuta, hunkituta, eskertuta, txalo-zaparrada eskaintzen diogu Antzuolan jaiotako artista handiari.

Hausnarketa: Bergarako musikariak ari dira, kanpotik ere lehen mailako profesionalak musu-truk datoz laguntzera.

Jabetuko al gara herrian ditugun altxorrez, eskura ditugun aukerekin, balioez?

"Lagun baten hitzetan, organoen arteko Ferraria da"

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

Datorren astean hasiko dira Errekalde jauregi inguruko horma konpontzen

- ▶ Azken bi hilabeteetan bederatzi milimetro mugitu da
- ▶ Bolurako bidea itxita egongo da lanean dabiltzanean

MIRARI ALTUBE | BERGARA

Errekalde jauregi lorategia inguratzen duen euste-horma konpondu egingo dute. Inguru guztia prestatu dute astean, eta datorrenean hasiko dituzte hamabost egun iraungo duten lanak.

Mugimenduak 2012tik

2012an igarri zituzten lehen mugimenduak horma horretan, eta iaiazko urriaraino jarraipena egitea erabaki zuten. Ikerketa geotek-

nikoa egin zuten lehenengo, eta ondoren proiektuari heldu: "Monitorizazio bidez ikusi dugu azken bi hilabeteotan bederatzi milimetro mugitu dela", jakinarazi du Elena Letek, alkateak, eta gaineratu: "Eta batez ere euria egin duen azken egunotan mugimendu gehiago igarri da".

Hori horrela, horma guztiaren gaineko lanei itxaron barik, lehenbailehen egin beharrekoei heltzea gomendatu diete aholkulariek

segurtasun kontuengatik. Horregatik euste-hormaren goiko harlanaren konponketei ekingo diete datorren astean lorategia inguratzen duen zati batean, hala, pisua kendu eta harri-hormaren egonkortasuna bermatzeko. Errekalde jauregia, gainera, Bergarako ondareen artean dago eta hori kontuan izango dute horma berregiterakoan: "Harriak bere kokapenean mantentzea gomendatu digute eta markatu egingo



Maite Agirre zinegotzia eta Elena Lete alkatea, horma aurrean. | MIRARI ALTUBE

dira gero non jarri jakiteko", argitu du alkateak.

Bigarren fasea bi hilabete barru

Lanon aurrekontua da 9.459 eurokoa eta Sasoi eraikuntza enpresak egingo ditu. Hesia jarri dute astean horma inguruan eta datorrenean moztu egin beharko dute Errekalde- detik Bolura doan bidea. Lanean diharduten bitartean guztiz itxita

egongo da eta lan jarduna bukatzerakoan bidearen erdia zabaldu egingo dute oinezkoendako.

Bigarren fasean horma guztiari helduko diote eta horren gaineko proiektua egiten dabil Sestra enpresa. Proiektu horrek eta azterketa geoteknikoak zehaztuko dute hormaren zein zati dagoen kendu beharra, zimentazioa egin, errefortzua jarri eta berria egiteko.

Bedelkarren azken prezioen azoka bihar frontoian

J.I. | BERGARA

Neguko kanpainatik geratzen zaizkien arropak Udal Pilotalekura eramango dituzte bihar, zapatua, herriko hamalau komertzio. Honela, herritarrek aukera izango dute %50etik gorako deskontuekin erosketak egiteko. 10:00etatik 20:00etara izango da azoka.

Bi lentzeria, bi kirol denda, umeen arropa denda bat eta helduentzako arropa dendak izango

dira azokan: Amua, Anezka, Annika, Bolintxo, Igarza, Iratxo, Jauja, Jo'ka, Junbija, Jolas, Laket, Mirari, Subijai eta Xuxu.

Aukera politikak

Oso prezio onetan izaten dira arropak Bedelkarrek antolatuta ohi dituen azokotan; izan ere, negu sasotik geratutakoak izaten dira, neurri solteak askotan, eta merkatariek hurrengo sasoiari txanda emateko saldu nahi izaten

dituzte horiek. %50etik gorako deskontuak izango dira, oro har; eta, betiere, orain arte dendan egon direna baino merkeago egongo dira arropak.

Jo'ka dendako eta Bedelkarko ordezkari Ainhoa Garitanoren arabera, neguko beherapenak "oso trankil" joan dira. Egun onak izan omen dira, baina baita bestelakoak ere. Merkatarientzako ere azokok merezi dutela dio Garitanok.



Izoko neguko azoka. | IMANOL SORIANO

Askatasun Eguneko bazkarirako sarrerak dagoeneko salgai

Otsailaren 27rako deitu du ezker abertzaleak Askatasun Eguna. Mikel Askasibar eta preso senideak ardatz izango dituen egunerako hainbat ekintza antolatu dituzte, eta bazkaria izango da tartean, Aranzadiko gimnasioan. Bazkarirako txartelak Arranon eta Pol-Polen daude salgai, 17 eurotan -13an ikasleentzat eta langabeentzat-.

Familian hezteko moduen gaineko hitzaldia martitzenean

Familian hezteko modu desberdinak, guztiontzako jarraitibiderik bada? izenburua izango du, eta 18:00etan izango da, kultura etxean. Udalaren Orientazio Psikologikorako Zerbitzua ematen duen Etxadiko kideak izango dira hizlari. Izena ematea gomendatzen da: 943-77 91 26.

Valdezcarayra eskiatzera martxoaren 5ean, Xabaloterekin

07:00etan izango da irteera, eta 20:00etan itzulera. 24 euro kostako da forfaitarekin, 36 eskien alokairuarekin eta 39 snow taularekin. Izena eman daiteke gaztelekuan eta Jardunen bulegoan, eta martxoaren 1a da azken eguna. 12 eta 17 urte arteko gazteentzat da -Bergarakoek lehentasuna-.

Lilatoira ere 'Demasa' leloarekin eta batera joateko deia egin dute

Martxoaren 6an Donostian egingo den lasterketara elkarrekin joateko deia egin dute Kilometroak 2016tik. Demasa dendan eman ahal izango da izena -ohiko bideetatik emanda dutenak ere pasa daitezke, elkarrekin joateko-, astelehenera arte. Kamiseta berezi bat ere atera dute, 15 eurotan.

OHARRAK

BASERRITARREN AZOKA

Bertako eta sasoioko produktuak eskuratzeko aukeraz gain, 18:00etan hasita, sagardoa, ezti, marmelada, odolosteak... egiten ikasteko modua egongo da eguaztenean, azokako postuetako kideen eskutik. Pintxo-potea Nahikari tabernak emango du.

DOMEKA AZOKA

Etzi -11:00-14:00-, San Martin

plazan. Artisauen -larrua, osagarriak...- eta bigarren eskuko produktuen -arropak, bitxiak...- 40 postu izango dira.

ODOL ATERATZEA

Eguaztenean, 18:00etan, anbulatorioan.

BASERRIETAKO PLASTIKOA

Martitzenean izango da hurrengo bilketa.

AITONAK


TABERNA
(Jubilatuaren etxea)

Bazkariak
•
Afariak
•
Ospakizunak
•
Kintadak

ETOR ZAITEZ!
08:00etatik 21:00etara zabalik!

Tel.: 628 443486
Boni laskurain, 9 behea
BERGARA

MIZPILDI



OKINDEGIA

Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA



Aitor Zabaleta
Tel.: 606 58 18 10
www.txipi.com

TXIPI
LEIHO ISOLATZAILEAK

Amillaga 5, behea - BERGARA

Bergarako Orfeoiaren ikuskizun berriak frontoia koloreztatuko du hilaren 27an

'Adiemus Colores' taularatuko dute Orfeoi Gaztearekin eta dantzariekin

MAITE TXINTXURRETA | BERGARA

Emanaldi berezia izango da hurrengo zapatuan, otsailak 27, Udal Pilotalekuan. Iluntzeko zortzietan hasita, Bergarako Orfeoiak, Orfeoi Gazteak, Camden Town dantza akademiak eta kontzertu honetarako espresuki bildutako 28 musikariek osatutako ganbera-orkestra batek parte hartuko dute. Guztien artean, musika garaikidea oinarri izango duen espektakulua aurkeztuko dute: *Adiemus Colores*. Bergarako Orfeoiak lehenengoz eskainiko du emanaldi bat dantza talde batekin batera.

Karl Jenkins konpositore britainiarrak 2013. urtean kaleratutako lana da *Adiemus Colores*. Bertan, abesti bakoitza kolore batekin lotzen du Jenkinsek.

Ikusteko eta entzuteko

"Ikuskizun honetan musika ardatz nagusia denez, soinuari arreta



Karlos Etxaniz, Olmar Elejaga eta Aitor Biain, aurkezpenean.. | GOIENA

berezia eskainiko diogu, baina argiztapenari eta ikuste-zatiari ere bai", dio Karlos Etxanizek, Bergarako Orfeoi presidentek.

Karl Jenkins-en vocalise teknika erabiliko dute ikuskizunean. "Teknika hori 1994an garatu zuen

eta horretarako silabak eta soinuak nahasten ditu inongo hizkuntzatan ulertu ezin daitezkeen letrak sortuz", dio Aitor Biainek, Bergarako Orfeoi zuzendariak.

Brasilgo, Argentinako eta Espainiako dantza erritmoak

erabiliko dituzte, baita opera edota jazz ukituak ere. "Orkestrazioa oso zaindua eta txundigarria da", dio Biainek.

70 ahots eta hiru bakarleri

Guztira, 70 ahots –Orfeoi eta Orfeoi Gaztea (Nagore Sanzen zuzendaritzapean)– eta hiru bakarleri –Ainara Uribesalgo (altua), Rafa Moñux (tenorea) eta Nere Ibarra (sopranoa)– izango dira.

Camden Town akademiako 40 dantzari ariko dira agertokian, batzuk gazte-gazteak. Olmar Elejaga zuzendariaren esanetan, "erronka handia" da eurentzat eta gogor ari dira entseguetan.

Arrate Bengoari omenaldia

Bergarako Orfeoiak, emanaldi berezi honekin, omenaldia eskaini nahi dio iaz zendu zen Arrate Bengoari. "Orfeoiko kide eta presidente izateaz gain, asko maite genuen, eta emanaldia hari eskainiko diogu", esan du Etxanizek.

Sarrerak salgai

Sarrerak zenbakitua izango dira eta dagoeneko salgai daude 10 eurotan, www.kutxabank.es webgunean eta Pikupe Produzioen bulegoan.

Txapa Irratiko kontzertuak: otsailak 20, Anari

KOMUNITATEA GOIENA | TXAPA IRRATIA | BERGARA

Datorren otsailaren 20an Txapa jai berri bat izango dugu Bergarako gaztetxean. 23:00etatik aurrera Anari bere taldearekin egongo da. Gaua ondo borobiltzeko Txapa DJak. Sarrera 5 euro.

Kontzertua 97,2 Frequentzia Mokoloaren bitartez entzun ahal izango da, edota www.txapairratia.org-en zuzeneko streaming bitartez.

Urrian kaleratutako *Zure aurrekari penalak* diskoa da Anariren azken lana.



Azken lanaren azala. | SAVANNA STUDIO

Amodiozko gutunak saritu dituzte

Patxi Zubizarretak jaso zuen, zapatuan, Jardunen 24. Amodiozko Gutunen Lehiaketako sari nagusia; bigarrena Eneko Barberenaren eta Ainara Elizondoren artean banatu dute; bergarar onena Ainhoa Pardina izan da, eta gazte onena Maria Osas arrasatearra.



IMANOL SORIANO

Gartzia bergararra txapeldun izan da Aretan, Oruerekin batera

Gaur iluntzean lau pilota partidu jokatu dituzte Udal Pilotalekuan

M.T. | BERGARA

Mikel Gartzia pilotari bergararra Orue laudiarrarekin batera txapeldun izan da gaztetxoan mailan, aurreko egubakoitzean Aretan (Laudio, Araba) jokatu bina-kako txapelketan.

Muguruzaren eta Olidenean aurka 22-19 irabazi zuten Oruek eta Gartziak, eta garaikurrekin itzuli ziren etxera.

Gaurko partiduak

Gaur, egubakoitza, lau partidu izango dira ikusgai Bergarako Udal Pilotalekuan, 19:15etik aurrera. Lehenengo, bigarren urteko alebin mailako bi partidu jokatu dituzte: Bergara-Arrasate lehenik eta Bergara-Euskal Jolas



Txapeldunak, garaikurrak eskuan dituztela. | REYES AZKOITIA

ondoren. Horren ostean, gomazko paletako partidu bat ikusteko aukera izango da; emakumezkoen gazte mailan, bergararrek Intxu-

erre hartuko dute. Bukatzeko, gizonzkoen gazte mailan, eskuz binaka, Bergara-Hernani partidua izango da.

Pedro Guallarrek organo kontzertua emango du domekan

Pedro Guallar Otazuak Bergaran hasi zituen musika arloko ikasketak, eta, 1981. urteaz geroztik, irakasle da Bilboko Juan Crisostomo Arriaga kontserbatorioan. Domekan, XIX. mende bukaerako eta XX. mendeko lanak interpretatu ditu. Bergarako Stoltz-Frères Organoaren Lagunak elkarteak antolatu du emanaldia, San Pedroko organoaren konponketarako dirua batzeko. Otsailaren 21ean, 19:00etan, Santa Mariako elizan. Sarrera: 5 euro.

Eskubaloitako taldeak bi partidu jokatu dituzte hiru egunetan

M.T. | BERGARA

Domekan lider postuan dagoen Elgoibarren aurka jokatu du Bergarako eskubaloitako talde nagusiak, 12:15ean, Labegaraletan.

Martitzenean, otsailak 23, 14. jardunalditik atzeratutako partidua jokatu dute Urnie-tako aurka, 20:15ean, etxean.

Legazpiko Zuauro Katilu taldearen aurkako partidua ere, 13. jardunaldikoa, atzeratu egin zuten. Martxoaren 4an jokatu dute, egubakoitza, 20:30ean; hori ere etxean.

Jende faltagatik atzeratu dituzte bi partidu horiek.

Nesken debuta

Bestalde, etzi, domekan, 10:30ean, BKEko infantil mailako neskek debuta egingo dute kopan Bidasoa Irunen aurka, Labegaraletan.

Ipuin kontaketa saioak martitzenean eta egubakoitzean

Helduei zuzendutako ipuin kontaketa saioa izango da martitzenean, hilak 23, Virginia Imazen eskutik. *La domadora de sueños* izeneko saioa eskainiko du, 19:30ean, Udal Liburutegian. Bestalde, egubakoitzean, otsailaren 26an, umeen txanda izango da. Eurentzat ere ipuin kontaketa izango da Maider Galarzaren eskutik. *Ezetz asmatu* saioa eskainiko du, 18:00etan, Umeen Udal Liburutegian.

LABEGARAIETA

EMAITZAK

Komando Piperrak-Arrano Zabalik	6-4
America-Poteo Izarrak	6-4
Sanpe United-Estrella Coja	0-3
H.I.S.-Birgerias	5-9
River City-Vodka Juniors	8-7
Errefuxa-SVC	6-3

SAILKAPENA

TALDEA	P	J
1 Estrella Coja	33	12
2 Errefuxa	30	12
3 Komando Piperrak	24	12
4 River City	23	12
5 Poteo Izarrak	20	12
6 America	20	12
7 Birgerias	15	12
8 Arrano Zabalik	11	12
9 Vodka Juniors	10	12
10 Sanpe United	9	12
11 H.I.S.	9	12
12 SVC	6	12

Partidurik ez asteen

Labegaraletako futbito txapelketako taldeek atsedena izango dute asteburu honetan, kan-txa erabiltzeko ordu libre falta dela eta.



Antolatzaileak, udal ordezkariak eta aurkezpenen parte hartu zuten boluntarioak. | MAITE TXINTXURRETA

'Bizipoz', zahartze aktiboa lantzeko programa berria

55 urtetik gorako herritarrei zuzendutako egitasmoa aurkeztu dute asteon

MAITE TXINTXURRETA | OÑATI

Zahartze aktiboa sustatu nahi duen erretiratuei zuzendutako *Bizipoz* proiektu berria aurkeztu zuten eguaztenez Oñatiko Kultura Etxean. Lidergo eta ekin-tzailtza graduko ikasle talde batek sortutako Want enpresak eroango du proiektua, Oñatiko Udalaren laguntzarekin. Formakuntza doan izango da.

Bi hilabeteko programa bat izango da, eta gizarte proiektu berriak sortzea izango du helburu, herriaren eta parte hartzaileen beharretan oinarrituta. Martxoan hasiko da eta 55 urte baino gehiago duten eta erretiratuta dauden herritarrei zuzenduta dago.

Martitzeneko bi orduko tailer-rrak egingo dituzte, Bidebarrietako Euskaldun Berria Gelan,

eta bertan, adituen laguntza izango dute. "Oso tailer dinamikoak izango dira", dio Eider Etxeberrira antolatzaileak.

Egubakoitzetan, berriz, ordu erdiko tutoretza saioa izango dute Want enpresakoen eskutik. Nagusiki, bi arlo jorratuko dituzte: osasuna eta gizarte.

Taldeko dinamikak

Tailerretan taldeka egingo dute lan, eta talde bakoitzak gizarte proiektu bat aurrera eramango du. Antolatzaileek nabarmendu dute programaren helburua, behin tailerak amaituta, proiektu horiek jarraipena izatea dela.

Atzo Kultur Etxean egin zuten aurkezpenen, herriko hainbat ekintzatan dabilzan bi adineko pertsonak, Asun Arsuagak eta

Rafael Kortabarriak, euren testigantzak kontatu zituzten. Gainera, Markel Irizar txirindularen bideo bat proiektatu zuten, parte hartzera dei egiten.

Izen ematea

Izena emateko formularioak Pake Lekun eta Bidebarrietako lokalean izango dira eskuragarri. Bertan, interesatuek tailerretarako ze ordutegi nahiago duten idazteko aukera daukate. 646 263 050 telefonora deituta edo *eider.want@gmail.com* helbide elektronikora idatzita ere egin daiteke. Epea otsailaren 25era arte dago zabalik. Izena ematen duten pertsonekin ordu laurdeneko elkarrizketaxo bat egingo dute banan-banan antolatzaileek, bakoitzaren profila ezagutzeko.

Jarraipena

EAJren proposamena da "baldintza plegu zorrotz" batekin ateratzea berriz lehiaketa publiko zerbizua hau. Modu honetan, Udal Gobernuak zorrotzasunez exijitu ahal izango dio enpresa esleipendunari kalitate irizpide hoberekin lan baldintzak hoberekin bermatzeko". Prentsa oharrak Miren Elgarresta bozeramailearen hitzak ere jasotzen ditu, eta, esaterako, kontratatzen diren enpresei egin beharreko jarraipenari dagokionez hauxe dio: "Hortaz, jarraipena behar bezala egiten bada, ez dago inolako arazorik kanpoko zerbitzuak kontratatzeke. Jarraipen hau zorrotzasunez egiten ez denean sortzen dira arazoak, eta enpresa esleipendunari prebentziozko neurriak edo neurri diziplinatuak ezarri behar zaizkio".

Kale garbiketa zerbitzua berriz lehiaketa publikora ateratzea proposatu du Oñatiko EAJK

O.E. | OÑATI

Kale garbiketa zerbitzuaren deialdia "baldintza plegu zorrotz batekin" egitea proposatzen du alderdi jeltzaleak, "gobernuak kalitate irizpide teknikoak behar bezala betetzen direla ziurtatu eta exijitu ahal izateko. Egungo langileak ez kaltetzeko" egin du irtenbide honen proposamena Oñatiko Udaleko EAJK.

Oñatiko EAJK bidali duen prentsa oharrean dio zerbitzua urritik aurrera udalarena izateari dagokionez Udal Gobernuak hartutako erabakia politikoa dela, eta erabaki horrek "sortu dituen arazoei irtenbidea emateko" pro-

posatu du zerbitzua berriz lehiaketa publikora ateratzea.

Dio egun Udalarendako lan egiten duten FCC enpresako langileek euren lanpostuak galduko dituztela, "udalak aterako dituen lanpostuetako azterketak eta sarrera probak gainditu ezean". Alderdi jeltzaleak gaineratu du lanpostu berrien eskakizunak gaintzeko "zailtasun handiak" izango dituztela egungo langileek, "eskatutako formazio, eskola graduatu, euskara mailara moldatzeko eta azterketa gaintu ahal izateko prestakuntzarako ia astirik ez dutelako".

TAO sistema egongo da lurpeko aparkalekuetan

Datorren hilabetean jarriko dute martxan Kalegoiena eta Zubikoako parkingetan

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Martxotik aurrera TAO sistema egongo da indarrean lur azpiko bi aparkalekuetan. Sarrera-irteeretan ez da barrerarik egongo eta ibilgailua aparkatu eta gero hartu beharko da txartela horretarako propio jarriko dituzten makinetan. Lehen bi orduak doan izango dira.

Lurpeko parkingetan egun dagoen sistemak arazo asko eman ditu eta horri irtenbidea bilatzeko aldatu du sistemaz udalak. "Sarritan eman ditu arazoak egungo sistemak, barrerak askotan egon dira goian. Konponbidea eman gura genion horri eta horixe da bi aparkaleku horietan TAO jartzeko arrazoia", argitu du Irati Etxeberria zinegotziak. Datorren hilabetetik aurrera, beraz, txartela jarri beharko zaie ibilgailuei lur azpiko aparkalekuetan. Gertec enpresak zainduko dituen makinetan atera beharko dira. "Lehen bi orduak

doan izango dira eta hirugarretetik aurrera 0,02 euro izango da minutu bakoitzaren prezioa. Hala ere, makinan jarrita egongo da ordu bat, bi, bi eta erdi edo hiru ordu apartzeak ze kostu duen, erabiltzaileei kalkuluak errazteko", zehaztu du Etxeberriak. Egun bakoitzaren gehiegizko prezioa 15 euro izango da. Bestalde, udalak badu asmoa hileko bono txartelak ateratzeko.

Txandakakoa

Mugikortasunari lotuta, udalak badu asmoa txandakako sistema jartzeko herriko hainbat kale eta gunetan. "Hori, baina, ikusteko dago oraindik. Martxoan hasiko den sistema hau proba izango da. Probak zenbat iraungo duen finkatzeko dago oraindik", gehitu du mugikortasun zinegotziak. Txandakako aparkatze sistema dena dela, ez da Atzeko Kalea oinezkoendako egokitu arte hasiko.



Kalegoieneko lur azpiko aparkalekua. | O.E.

Hotz Oñati taldea sortu gura dute, gerretako errefuxiatuei laguntzeko

O.E. | OÑATI

Gerretatik ihesian dauden milaka errefuxiatuei laguntzeko lanean ari dira herri askotan Hotz izeneko taldeak, eta Oñatin ere horrelako talde bat sortu gura dute. Egoera horretan daudenei laguntza bidaltzea izango du helburu talde honek, diru laguntza zein material laguntza. Calais-en, adibidez, iltzeak behar dituz-

te orain, eta zapatu honetan hara doan Guadalajarako herritar bat Bergaratik pasako da, furgonetarekin, iltzeak jasotzera. Horrelako deialdiak egiteko eta laguntza bideratzeko sortu gura dute Hotz Oñati taldea.

Taldeko kide izan gura duenak helbide honetara bidali behar du mezua bat: hotzonati@gmail.com.

AINHOA LEGARISTI LIZARRA
IZASKUN LEGARISTI LIZARRA

ARKITEKTOAK

Era guztietako proiektu arkitektonikoak

Eskatu aurrekontua inongo konpromezurik gabe

Lazarraga Kalea 3, behea 661 09 35 00
20560 Oñati (Gipuzkoa) 645 70 17 52

BULEGOKO
ORDUTEGIA:

Astelehena
Osteguna
Ostirala
09:00-13:00

Asteartea
Asteazkena
15:00-19:00



Oñatin antzemandako basoko txantxiku gorria. | JON GARIN

Anfibioen erakusketarekin hasiko dira aurtengo ingurumen jardunaldiak

Txantxikuak ikusteko irteera antolatu dute Aurreko mendira hilaren 27rako

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Animaliak, lurrazala eta klima izango dira aurtengo ingurumen jardunaldietako ardatza, eta erakusketak, hitzaldiak, irteera eta film emanaldiak antolatu dituzte, besteak beste, datorren astelehene martxoaren 20ra bitartean. Natura Eskolak antolatu ditu aurten ere ingurumen jardunaldiak.

Txantxikuak

Oñatiko Udaleko ingurumen sailak emandako beka bati esker, herriko anfibio eta narrastien inguruko lana egiten ari dira Aranzadiko bi gazte, eta, hala, animalia horien inguruko ekitaldiak dira antolatu dituztenetakoz batzuk. "Erakusketa bat egongo da kultura etxean, anfibioen inguruko, eta asmoa da herriko ikastetxeekin bisita gidatuak egitea. Bestalde, Aurreko mendira, Sarramendi inguruan

dauden putzu batzuetara irteera egingo dugu, anfibioen arrautzak eta larbak ikusteko eta bereizteko. Narrastien gaineko irteera aurrerago egingo dugu, beroa behar dute-eta haiek", adierazi du Natura Eskolako Imanol Biainek. Irteera horietan Jon Garin izango dute lagun, ikerketa egiten ari den gazteetako bat. "Anfibio gehienak udaberrian ugaltzen

DATUA

20

URTE

Duela 20 urte egin zituzten lehen ingurumen jardunaldiak, eta, ordutik hona, urtero egin dira.

Kulturarako 70.000 euro emango ditu udalak eta eskaerak egin daitezke dagoeneko

O.E. | OÑATI

Oñatiko Udalak 70.000 euro emango ditu aurten kultura proiektuetarako eta programak gauzatzeko eta kultura sormenerako.

Kultura proiektuak eta programak gauzatzeko diru laguntzak, kultura arloko ekintza bat edo programazio oso bat antolatzen duten talde eta erakundeek eskatu ditzakete. Betiere, proiektua Oñatin gauzatzen bada. 58.000 euro banatuko ditu arlo honetan.

Kultura sormenerako, berriz, 12.000 euro egongo dira, eta Oñatiko sortzaileei zuzenduta dago;

talde eskatzailearen erdiak edo banakako eskatzaileak Oñatin erroldatuta egon beharko dira.

Diruz babestea erabakitzen diren proiektuen sustatzaileek diru laguntzaren % 60 jasoko dute hasieran, eta gainontzekoa, egindako lanaren likidazioa aurkezten dutenean.

Diru laguntzen eskaera egiteko epea zabalik dago; martxoaren 12a aurretik egin behar dira, udaletxeko bulegoetan. Informazio gehiago jaso gura edo zalan-tzaren bat izanez gero, kultura etxera joan daiteke herritarra.

INGURUMEN JARDUNALDIEN EGITARAUA

OTSAILAK 22

18:00etatik 20:00etara. Anfibioei buruzko erakusketa. Kultura etxean Martxoaren 6ra arte.

OTSAILAK 23

19:00 Oilagorren migrazioari buruzko hitzaldia. Kultura etxean.

OTSAILAK 24

19:00 Aurora borealei buruzko hitzaldia. Kultura etxean.

OTSAILAK 25

20:00 'Rams' filma, zineklubean.

OTSAILAK 26

19:00 Oñatiko anfibioei buruzko hitzaldia. Kultura etxean.

OTSAILAK 27

09:00 Anfibioak ikusteko tailerra eta irteera, Natura Eskolan.

OTSAILAK 28

10:00 Zuhaitz eguna. Foruen plazan.

MARTXOAK 1

19:00 Azalaramendu geologikoaren garrantziari buruzko hitzaldia. Kultura etxean.

MARTXOAK 2

19:00 Parisko goi bilera ardatz izango duen mahai ingurua. Kultura etxean.

MARTXOAK 3

20:00 'Corn island' filma, zineklubean.

MARTXOAK 5

09:00 Zuhaitz azoka. Foruen plazan.

MARTXOAK 6

08:00 Eguna osoko irteera Añana Gesaltzara.

MARTXOAK 20

09:30 Zuhaitz Eguna Aloñako lagunekin. Unaimendin

diren arren, espezie batzuek aurreratu eta neguan jada erruteak ezartzen dituzte, baso igel gorriak kasu. Espezie honen banaketa-areea mugatzearekin batera, txantxiku arruntaren zapaburu hibernatuak topatzen ari gara", adierazi du Garinek.

Oilagorrak

Ehiztarien artean hain preziatua den oilagorri buruzko hitzaldi bat ere izango da. "Hegazti horien migrazioaren datuak ezagutuko ditugu, satellite bidez egin zaien jarraipenaren emaitza, alegia. Badakigu, adibidez, Siberiaraino joaten direla umatzer eta hurrengo urtean berriz toki berera bueltatzen direla negua pasatzera",

dio Biainek.

Parisen egindako klima aldatetaren inguruko goi mailako bilerak utzitako ondorioei buruz ere jardungo dute, eta baita azalaramendu geologikoaren gainean ere. Kultura etxean izango dira hitzaldi guztiak. Bestalde, urtero egin ohi diren bi zuhaitz landaketak eta azoka ere egingo dira aurten.

Anfibioak eta narrastia ikusteko irteeraz gain, Gesaltza Añanara joateko bidaia ere antolatu dute. Joan gura duenak izena eman behar du aurretik, autobusa zenbat lagundako hartu jakiteko. Izena Natura Eskolara deituta egin daiteke. Telefono zenbakia, hauxe: 943 71 64 04.

Martxoaren 8a nola ospatu adosteko deialdiak erantzun ona izan du eta egitaraua ari da itxura hartzen

O.E. | OÑATI

Joan den martitzenean egin zuten bilera irekia, Oñatiko Sare Feministak deituta, Martxoaren 8a nola ospatu adosteko, eta antolatzaileak pozik agertu dira bilerak izan duen erantzunarekin, adin eta profil zein jatorri ezberdinetako emakumeak joan zirelako bilerara.

Emakumeen Nazioarteko Eguna nola ospatu erabakitzeko proposamenak eta ekarpenak egin zituzten bilerara joandakoek. Horietako batzuk datozen urteetarako utzi dituzte, epe

kontuengatik ezin direlako aurten antolatu.

Mahai ingurua

Zineklubeko lagunekin adosteko filma emanaldia, emakume artisauen azoka eta Zortzintxika lasterketa egingo dituzte, aurten, adibidez. Baita mahai inguru bat ere.

Mahai ingurua martxoaren 16an izango da eta emakumea izango du ardatz. Udalaren berdintasun sailak antolatutako ekitaldia izango da eta ia dena lotuta dute.

NIRE USTEZ



LUKENE IGARTUA

Kartela

Urretan antolatzen den Emakumeen Bira aurkezteko plazaratu duten kartela atzera bota dute, jarrera sexista erakusten duela eta. Talde feministen gehiegikeria ez ote den galdetzen duenik ere bada.

Kartela ikusi ez duze-nontzat, iazko irabazlea maillot horiarekin argazkilaria ari da. Zuzenean botako dizuet nire galdera: ikusi al duzue inoiz mundu mailako (edo herri mailan ere) gizonezkoen txirrindularitza probako kartel batean txirrindularia muxu bat botatzen? Nik, inoiz ez!

Kirol ekintzetako karteletan ageri zaizkigun irudiak guztiz bestelakoak izaten dira.

Emakumeen kirola bultzatu nahian gabilta, baina kartelean goi mailako kirolariaren esfortzu, kontzentrazio eta ahaleginak erakutsi beharrean, emakumearen irudi goxo eta delikatuak erakutsi nahi izan da. Emakume kirolariak izerdirik botako ez balu bezala.

Emakumeen Birako antolatzaileek, Europa mailako kirol proba garrantzitsuetako bat dena antolatuz, emakumeen txirrindularitza bultzatzeko duten konpromisoa eta egiten duten lana txalogarria da. Baina, nire ustetan, kartel horrek ez du erakusten Emakumeen Bira zer den.

Bizi garen gizartearen isla ote da, ala ez da horrenbesteko? Zuek esan!

"Emakume kirolariak izerdirik botako ez balu bezala"

Martxoaren 20an da ehiza txapelketa

Martxoaren 20an egingo dute, Zanbranan (Araba), aurtengo herri mailako ehiza txapelketa. Izena martxoaren 18a aurretik eman behar da, Alzu dendan, eta prezioak hauek dira: Pago Usoko bazkideendako 35 euro eta ez direndako, 40 euro. Ehiza baimena eguneratua izatea derrigorrezkoa izango da, baita federazio txartela izatea ere.



Herritarrak Osakidetza kexak eta eskaerak bidaltzen. | MAITE TXINTXURRETA

Euskarazko osasun arreta eskatu dute hainbat herritarrek

Eguaztenean kexa bidalketa masiboa egin zuten, Osakidetza, Euskaldun Berria gelan

MAITE TXINTXURRETA | OÑATI

Osakidetza arreta euskaraz jasotzeko, kexa bidaltze masiboa egin zuten eguaztenean Oñatin. Hiru orduz ordenagailuak mar-tan izan zituzten Bidebarrieta kaleko Euskaldun Berria erabileran anitzeko gelan, Osakidetza-ren webgunean eskaintzen den aplikazio informatiko baten

bitartez kexak eta eskaerak bidali ahal izateko.

Arratsaldeko bostetan hasi eta iluntzeko zortziak bitartean izan ziren antolatzaileek bertan, herritarrei kexa nola egin azal-tzen eta laguntzen.

Aitor Montes mediku ar-maioarra eta Kepa Etxaniz oña-tiarra izan dira ekimen honen

bultzatzaile nagusiak. Azken horrek azaldu duenez, jende ugari animatu zen parte hartzera, ehundik gora.

Hainbat arlotan

Dokumentazio kliniko, pediatria, traumatologia edota erresonan-zien emaitzak euskaraz jasotzeko eskaria egiteko idatziak prest zituzten ekimenaren bultzatzaileek –dozena bat ezberdin aukeran–, eta interesatuek ordenagailuan euren datuak sartu, eredu horiek bertan itsatsi eta modu horretan Elebidera bideratu zituzten.

Etxetik ere egin daiteke

Bidebarrietako lokalera gerturatu zen pertsona bakoitzak kexa bakarra bidali zuen, nola egiten zen ikasteko, eta ondoren, etxean, gainontzeko arloetako kexak bide-ratzeko aukera izango dute; izan ere, ekimenaren antolatzaileek eredu guztiak batzen dituen doku-mentu bat bidali diete hala nahi izan dutenei.

Jarraitzeko asmoz

Osasun arreta euskara hutsean jasotzea da eskatzen dutena, eta, hori horrela izan dadin, ezinbestekoa da behar beste alditan eskaera egitea, Kepa Elortza oña-tiarraren hitzetan. Arrasaten iaz egin zuten antzeko ekimen bat, eta Debagoieneko herri guztietan egin nahi dute, urtean bi bider: "Zenbat eta gehiago eskatu, orduan eta aukera gehiago izango dugu osasun arreta euskaraz jasotzeko", dio Elortzak.

Aloña Mendiren txirrindularitza sailak 50 urte bete ditu

IRATI ELORTONDO | OÑATI

Bete ditu jada Aloña Mendiren txirrindularitza sailak 50 urte, eta udaletzeko arkupeetan ekitaldi bat antolatzeko asmoz dabilta, gaur, egubakoitza, eguerdiko hamabietan hasita.

Aurkezpen ofiziala

Gaur, eguerdiko hamabietan, udaletzeko osoko bilkuren aretoan, 50. urteurrenaren ekintzen berri emango dute Aloña Mendiren txirrindularitza sailekoek. Ordu erdi pasata, hamabi eta erdietan plazan elkartuko dira denak, aurtengo denboraldiko gazte, kadete, infantil eta alebin mail-etako taldeak aurkezteko. Aloña Mendiren txirrindularitza sailak herritar guztiak gonbidatzen ditu bertara gerturatu eta ekintzen eta taldeen berri izan dezaten.

Ibilbideari buruzko liburua

Orain arteko ibilbidea jasotzen duen liburua bat kalera-tuko du sailak, argazki zaharrez eta txirrindularien fitxaz osaturik. Horrez gain, laster-keketako dokumentazioa eta bestelako ekintzetako infor-mazioa ere batuko dute bertan.

Irazan taldeak antzerki ikastaroa antolatuko du

IRATI ELORTONDO | OÑATI

Oñatiko Irazan antzerki taldeak antzerki ikastaroa antolatuko du zapatu honetarako, Eneko Balerdiren eskutik, Oñatiko Eltzia aretoan. Plazak bete dituzte jada, eta, guztira, 16 gazte apuntatu dira, Irazan taldeko kideez gain. Arratsaldeko lauretatik zortzietara jardungo dute bertan, Eneko Balerdi koordinatzaile buru dela.

Gorputza oholtzan

Irazanen helburu nagusia antzerki taldean daudenei oinarri teoriko eta praktiko bat bermatzea da, eta, horretarako, adituak gonbidatzen dituzte, ikasleek formakuntza hobetzeko. Josu Zubia Irazan antzerki taldeko kideak dioen bezala: "Taldea hau sortu genuenean, eta apur bat esperimenteratzen hasi ginenean, behar batzuk genituela konturatu ginen, eta horregatik aukeratu dugu adituen ikastaroak antolatzea, guk ere formakuntza behar dugulako". Ikastaroak dantzarekin eta imitazioekin izango du zerikusia. Balerdik *Gorputza oholtzan eta dantzan* deitu dio ikastaro honi. Zubiaren hitzetan: "Gorputzak oholtzan ze jarra izan behar duen erakutsiko digu Enekok".

5 hilabete Eltzian

Pasaden urteko irailean zabaldu zituzten ateak Eltzia aretoan lehenengo aldiz. Itziar Arkauz, Maider Igartua, Josu Zubia eta Nerea Ormazabal proiektuko kide izanik. Etor-kizunean ikastaro gehiago antolatuko dituztela dio Josu Zubiak, formakuntza beharrezkoa baita antzerki-guneko kideentzat.

Bigarren ikastaroa

Bigarren ikastaroa da jada. Lehenengo pasa den ekainean egin zuten Eltzia aretoan, irailerako jendea apuntatu zedin. Koordinatzailea Eñaut Gantxegi izan zen eta bertara gazte ugari hurbildu ziren.

Gontzal Belategi zuzenean sailkatu da Gipuzkoako bertso txapelketan

IRATI ELORTONDO | OÑATI

Gontzal Belategi oñatiarrak ez du kanporaketa gehiagotan parte hartuko, zuzenean joango baita Eibarren jokatu den finale-ra. Pasa den ostiralean jokatu zen lehen kanporaketa Legazpiko Muguazpi Elkartean, eta afalostean hasi zen saioa. Gontzal Belategi lehen sailkatua izanik, apirilaren 17an jokatu den Eibarreko finalerako txartela lortu du jada.

7 bertsolari gaurko kanporaketan

Hurrengo kanporaketa gaur jokatu da, Lasarte-Oriako Arreskalleta Elkartean, 19:00etan.



Gontzal Belategi | OÑATI KO BERTSO ESKOLA



JOSE DE AZPIAZU MUSIKA ESKOLA

Piano jaialdia Andoainen

Jose de Azpiazu musika eskolako piano ikasleak Andoainera doaz bertako piano jaialdian parte hartzera. 11 ikasle joango dira; A kategorian 4, B kategorian 5, C kategorian 2 eta lau eskutara 14 eta 16 urteko bi neskato. Pieza bat joko dute ikasle bakoitzak; Martha Mier, Norton, Bastien eta Tchaikovsky konpositoreen obrak joz, besteak beste.

Otsaileko odol ateratzea egingo dute gaur, egubakoitza, ohiko tokian

Gaur, egubakoitza, egingo dute otsaileko odol ateratzea. Ohikoa den moduan, Txantxiku ikastolako areto nagusian egingo dute. Ordua ere betikoa izango da, 17:00etatik 19:30era. Oñatiko Odol Emaileen elkarteak odola ematera inoiz joan ez diren herritarrek animatu gura ditu gaurko ateratzera joan eta odola eman dezaten.

Nafarroako fusilatuen gaineko dokumentala gaur kultura etxean

Nafarroako Fusilatuen Senitartekoen elkarteak osatu duen A un paso dokumentala botako dute gaur, egubakoitza, 19:00etan, kultura etxera. Elkarteko kide den Migel Anjel Moiuia oñatiarrak adierazi duen moduan, "1936 urtean eta hurrengoetan Nafarroan gertatutakoa laburtzen duten zazpi historia batzen ditu".

Astelehena aurretik eman behar da izena elur zeharkaldirako

Martxoaren 5etik 6rako asteburuan egingo du Aloña Mendiren mendi sailak elurretako aurtengo irteera; Candanchu eta Astun inguruetan egingo du. Mendiak eta Herriak agentziarekin batera prestatu du zeharkaldia eta astelehena da izena emateko azken eguna. Horretarako helbidea: alona-mendi.mendi@gmail.com.

Eslalomeko ikastaroa egingo dute domekan, Tatarrazek antolatuta

Tatarraz patinatzaileen taldeak antolatuta, eslalomeko ikastaro berezi bat egingo dute domekan. Zubikoa kiroldegian izango da, 10:30etik 13:00etara, eta Jon Egiluz izango da ikastaro horren gidaria. Trebetasun maila aurreratua dutenendako ikastaroa da, eta parte-hartzaileek aurrez eman dute izena.

Disko festa eta karaokea gaztetxoendako

Gazteleguan musikarekin lotutako ekintzak antolatu dituzte asteburu honetarako. Bihar, zapatua, esaterako, Lehen Hezkuntzako seigarren mailako gaztetxoek disko festa izango dute, 17:00etan. Domekan, karaokea eta *play-back*-a egingo da kuboan, 17:00etan, Otsail Musikala egitasmoaren barruan.

Aste Santu ingururako gertu izango da Geltoki plazako bidegorria

Biribilgunearen proiektua egiten hasita dago Foru Aldundia, baina leku falta izango da arazoa

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETAK

Geltoki plazako lanak aurrera doaz eta dagoeneko bukatu dituzte lur azpian egin beharrekoak, ur hodiak eta argindar sarea aldatu. Orain lurzorua botatzen dabilta, eta ondo bidean, Aste Santu ingururako bukatuta izango dituztela lanak jakinarazi du Unai Elkoro alkateak.

Hain zuzen hil honetan onartu duten 2016ko Udal aurrekontuan inbertsiorik garrantzitsuena dago: Geltoki plazari: 117.890 euro. Diru hori bigarren zatiari dagokio.

Bide zabalagoa

"Lanak bukatuta izango direla otsail bukaerarako esan digute, baina zalantzak ditut", adierazi du Elkorok. Orsa indusketa eta garraio enpresa dabil horretan, eta, lurzorua botatzen hasita egon arren, oraindik hainbat lan dituzte egiteko, Hirigintza Saileko ordezkariak jakinarazi duten legez: "Lur azpiko lanak eta lurrazalekoak, guztiak dira egin beharrekoak; horien artean, bidegorri berria asfalto gorriarekin bukatu. Hori egindakoan, autobus geltokiaren markesina bere lekuan jarri behar da eta kalea asfaltatu; baita seinalez-



Geltoki plazako lanak. | MIRARI ALTUBE

tapen horizontala eta bertikala jarri ere".

Azaroan hasi zituzten lanok eta askorendako luze doaz, gune horretan joan-etorri handia izaten delako bizikletan, arineketan eta oinez; gainera, autobus geltokia ere badago han. Bukatutakoan, lehengoa baino bide zabalagoa izango dela dio alkateak: "Zati bat bidegorria izango da, bizikletendako, eta bestea, oinezkoendako".

Biribilgunea, Aldundiak

Santa Kurtz kalea eta Geltoki plaza artean hainbat bide elkartzen dira, biribilgune antzekoa sortuz: saihebidetik datorrena eta Urkulura igotzen eta jaisten direnak, besteak beste. Oraingoz dagoen geratuko da hori: "Aldundia hasita dago horren proiektua egiten, baina arazoa izango da leku falta behar bezalako biribilgune bat egiteko", azaldu du Elkorok.

ra egiten duten nagusiek mende-kotasun balorazioa izan behar dute (gutxienez 25 puntu).

Eskaerak Gizarte Zerbitzuetan

Eskaerak aurkeztu behar dira Aretxabaletako udaletxeko Gizarte Zerbitzuen bulegoan, eta lehenbailehen egiteko gomendatu dute gizarte langileek; azken eguna da martxoaren 2a, eguaztena. Horretarako txanda aurrez hartzea komeni da telefonoz deituta: 943-71 18 62.

tan legez, eta horretarako autobusa izango dute 13:15ean. Menua honako hau izango da: esparrago beteak; onddo-nahaskia; frijituak; legatz beteak; entrekota; hostopil tarta; eta ardoa, ura eta kafea. Bazkalostean, gainera, dantzan egingo dutela iragarri dute antolatzaileek, eta 19:00etan itzuliko dira etxerantz.

Argibide gehiagorako eta izena emateko Basotxotik pasatu behar da astelehenean egubakoitzera bitartean (11:00-12:00). Prezioa da 33 euro bazkideko.

Aldi baterako egonaldiak eskatzeko epea zabalik

Hainbat egun egoitzetan pasatzeko aukera dute etxean bizi diren nagusiek Aste Santuan

M.A. | ARETXABALETAK

Etxean bizi diren nagusiek Aste Santuko egunak zaharren egoitzetan pasatzeko aukera izango dute, beste urte batez, horien

familiek atsedena har dezaten. Aldi baterako egonaldiak dira, eta luzeak – hamabost egun – eta motzak –aste bukaera bat, egun bat...– izan daitezke. Eskae-

Aingeru Guarda eguna gertatzen dabilta Basotxon

Martxoaren 1ean ospatuko dute zaindariaren eguna eta izena emateko epea zabalik dago

M.A. | ARETXABALETAK

Zaindari duten Aingeru Guarda eguna ospatuko dute Basotxo erretiratuen elkarteak kideek martxoaren 1ean, martitzena, eta, urtero legez, egitarau dotorea

gertatu dute ordurako. Meza izango da parrokiaren 11:00etan, eta ondoren, 11:45ean, salda eskainiko dute elkartearen tabernan.

Bazkaltzera Arrasateko Sara jatetxera joango dira, azken urte-

NIRE USTEZ

BEÑAT ZAMALLOA AKIZU



Haurren gabeziak

Bost astez ikastetxe batean izan naiz behaketan. Zehatzago: bost astez ikastetxe bateko ikasgela batean izan naiz behaketan. Aretxabaletako ikasleak dauden ikasgeletako bakar batetik ondorioak ateratzea orokorkeria itzela dela jakinda, susmoa dut ez dugula ezagutzen ikasgela, irakasteko moduak eta irakasleak zenbat aldatu diren gu ibili ginen garaitik. Are gehiago beste batzuk ibili zineten garaitik, jakina.

Behatu ditudan irakasleak egungo garaietara eta metodologietara aldatzeko ahalegin etengabe sumatu ditut: irakasleak ikasgelan ikasleekin elkarrizketan, ikasleak sarri dinamika entretenigarrien bidez

ikasten eta irakasleak ikasleak modu hezigarrian bideratzen. Irakasle batek esan bezala, ez dira bat-batean goitik behera aldatu eta aldatuko, baina ari dira poliki-poliki. Nire irakasle izan zirengan, adibiderako, emaitzak argi ikus zitezkeen lehen asterako.

Hezkuntzak kezkatu behar gaitu kezkatzen gaituena baino gehiago seguruena edota kezkatzen gaituena baino sakonago seguruena. Nago egungo ikasle haur eta gaztetxoei egozten zaizkien gabeziatariko asko helduagoon eta gurasoen gabeziak, konplexuak eta beldurrak ez ote diren. Eta nago: hezkuntzari egozten dizkiogun gabezia asko helduagoon, gurasoen eta aitona-amonen gabeziak, konplexuak, ezinak eta egiten ez ditugunak direla.

"Hezkuntzak kezkatu behar gaitu gehiago"

Nerea Etxabe zinegotzia Karmele Uribarrik ordezkatu du

M.A. | ARETXABALETAK

Martitzenean egindako ezohiko osoko bilkuran onartu zuen udalbatzak Nerea Etxabe Otadui zinegotziaren kargu uztea.

Unai Elkoro alkateak irakurri zuen Etxabek aurkeztutako idatzia, eta haren bitartez jakinarazi zuen Bilbon jardunda lanean "oso zail" duela udalletean egiten diren bileretan izatea, baita dituen "ardurei heltzea" ere. Hain zuzen Gizarte Zerbitzuen batzordeburua izan da agintaldia hasi zenetik.

Zerrendan hurrengoa

Alkateak iragarri zuen EAJren hauteskunde zerrendan hurrengo datorrena proposatuko diotela hauteskunde-batzordeari



Karmele Urbarri. | KARMELE URIBARRI

zinegotzi izateko: Karmele Urbarri Urresti. Portugaleten jaioa Aretxabaletan bizi da azken urteotan. Hurrengo osoko bilkuran hartuko du kargua horrek, behin onespina jasota.

Haurtzaroaren gaineko formazio saioetarako izen-ematea bukatzean

M.A. | ARETXABALETAK

Guraso Foroak haurtzaroaren gaineko formazio zikloa antolatu du eta hiru hitzalditan hainbat gai landuko dituzte: sexualitatea, elikadura eta aitasuna. Izena emateko epea astelehenean, hilaren 22an, itxiko dute. Horretarako gertatutako fitxa bete behar da, eta Arkupera eraman edo Gazteria Sailera bideratu: gazteria@aretxabaleta.eus.

Lehenengoa, sexualitatea

Lehenengo saioa emango du Emaize sexologia zentroko Ana Ramirez de Ocariz adituak, eta gaia honako hau da: *Gure seme-alaben sexualitatea eta bere arreta: lehenengo pausoak, 0-6 urte*. Euskaraz egingo du otsailaren 24an, eguaztena, eta gazteleraz martxoaren 1ean. Ibarra kiroldegian dira biak, 18:00etan.

Zuhaitzak landatzera joateko deia domekarako

Landaketa taldearen laguntza izango du Udalak eta Egileor baserri inguruan elkartuko dira aurten ere

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Urkiak, haritzak, arteak, hurritzak eta beste hainbat zuhaitz mota landatu gura dituzte domekan, otsailak 21. Iaz legez, Untzila auzora bidean dagoen Egileor baserri ingurura joko dute, autobidearen zubi azpira, hain zuzen ere. Hala ere, Herriko Plazan elkartuko dira 11:00etan, eta handik elkarrekin joan landaketa gunera.

Bukatutakoan hamaiketako

Herriko Landaketa taldearen laguntza izango du beste behin Udalak, bai landatze lanetarako, bai koordinazio kontuetarako. Baita Kurtzebarri eskolako eta Arizmendi ikastolako neska-mutikoena eta horien gurasoena ere. Iaz, 100 bat lagun elkartu ziren, nahiz eta euria egin, eta 180 bat zuhaitz landatu zituzten, eta aurten ez dute gutxiago izan gura: "Udaleko Ingurumen sailko kideok parte hartzeraz gona bidatzen ditugu ikasleak, gurasoak eta herritarrek", jakinarazi dute.



Familia, zuhaitza landatzen, iaz. | M.A.

Bai zuhaitz landareak, bai horretarako behar diren tresnak antolatzaileek jarriko dituzte; hortaz, lanera doazenek arropa eta oinetako egokiak bakarrik eraman beharko dituzte. Egileor baserri inguruko lursaila Udalarena da,

eta poliki-poliki zuhaitzez betetzea da haren asmoa.

Goiza lanean jardun ondoren hamaiketakoekin emango dizkiete eskerrak udal ordezkariak elkartutako guztiei, eta, hala, indarrak berreskuratuko.

Udala "pozik" Aratuste jaiek eman dutenarekin

Herri bazkariak "aurreikuspen guztiak bete" zituela diote Kultura saileko kideek, eta "giro polita" izan zela

M.A. | ARETXABALETA

Garizuma betean egon arren eta Aratustean atzen utzita, Udaleko Kultura saileko ordezkariak Aratuste jaiek emandako baloratu gura izan dute, ondo egindakoak txalotzeko eta okerrak zuzentzeko hurrengo baterako.

Pozik agertu dira Txapel Txin egunaren bueltako giroarekin: "Jende ugari egon zen plazan, kaleetan giro polita sortu zen eta torrada lehiaketan herritar dezentek hartu zuen parte", jakinarazi dute.

Aratuste-domeka, osterara, "apartekoa" izan zela diote: "Eguraldia lagun, parte-hartze handia izan zen. Mozorro desfileen kuadrilla gehiago elkartu ziren, bai helduenak, bai umeenak, azken honetan zazpi gehiago. Eta giro alaia eta polita izan zen". Balkoiak "dotore" apainduta agertu zirela gaineratu dute, eta kiroldegiko herri bazkariko giroa "sanoa, alaia eta polita" izan zela: "Aurreikuspen guztiak bete ziren eta txiki geratu zen kiroldegia".

Aratuste-martitzenean oraindik ere jarraitu egin zuen jaiak: "Escola guztietako haurrak izan ziren protagonista. Goiz eta arratsaldean jardun zuten, bai kiroldegian, bai Iturrigorri pilotalekuan, bai Herriko Plazan" Txinen hiletarekin bukatu ziren jaiak eta eguraldi eskasa egin arren "jende ugari" elkartu zela plazan gaineratu dute.

Hori horrela, Udalak eskerrak eman gura dizkie guztiei: "Antolatze lanetan ibilitakoei eta herritarrei parte-hartzeagatik. Baita aurtengo Santa Ageda neska-mutielei izandako portaeragatik (salbuespenak salbuespen). Eskerrak bai irakasleei, bai ikasleei, bai guraso elkartei. Baita honako hauei ere: txistulari taldea, Aretxabaleta Naves, Karnabalen Lagunak eta udal langileak. Eta barkatu eragozpenak".

EMAKUMEEN III. FRONTENIS TXAPELKETA

Final-zortzirenak domekan

Hirugarren jardunaldia jokatu ondoren hainbat bikotek agur esan dute. Domekan, final-zortzirenak jokatuko dituzte Iturrigorri pilotalekuan.

HIRUGARREN JARDUNALDIKO EMAITZAK

Larraitz Iñurategi - Aitziber Kintanilla / Naiara Alonso - Maite Otxoa	6-25
Lur Delgado - Dorleta Elkorobarrutia / Eneritz Ollobarren - Yaiza Cid	25-0
Eli Berridi - Ane Aspe / Ariane Unanue - Ibone Arrieta	25-17
Marina Retolaza - Elena Egin / Leire Valle - Maite Fraile	9-25
Rebeka Ubera - Miren Argi Zeziaga / Lore Martinez - Rosa Ojuel	4-25
Amaia Bolinaga - Maite Txintxurreta / Idoia Elkoro - Iratxe Bravo	21-25
Naiara Amezua - Anais Fernandez / Anabel Aranzadi - Marijo Bastardo	25-12
Amaia Gastañaga - Jasone Garzia-Etxabe / Ainara Muga - Amaia Ariznabarreta	6-25

FINAL ZORTZIRENEN - OTSAILAK 21

10:30 Idoia Elkoro - Iratxe Bravo / Naiara Amezua - Anais Fernandez
11:00 Leire Valle - Maite Fraile / Lur Delgado - Dorleta Elkorobarrutia
11:30 Lore Martinez - Rosa Ojuel / Naiara Alonso - Maite Otxoa
12:00 Ainara Muga - Amaia Ariznabarreta / Eli Berridi - Ane Aspe



JOXE MIGEL URIBARREN

Isasmendi eta Murgoitio irabazle

Urkulu aisialdi elkartearen (batzokian) egindako mus txapelketan Juan Luis Isasmendi eta Joxe Antonio Murgoitio izan ziren txapelak, Joxe Manuel Gabilondok eta Karlos Gutierrezek osatutako bikoteari irabazita. Txapelketa aurretik babarrun-jana izan zuten: "Sakramentu guztiekin gertatuta Isidoro Gartziaetxabe sukaldari famatuak", jakinarazi dute, eta eskerrak eman dizkiete antolatzaileei.

'Margo ipuinak' ekarriko dizkie umeei bihar, liburutegira, Ines Bengoa ipuin kontalariak

"Zein koloretakoak dira ipuinak? Nolako da basoko sorgina? Eta iratxoak? Eta nahi dugun modura koloreztatzen baditugu?", galdetzen du Ines Bengoa ipuin kontalariak. Hala, *Margo ipuinak* saioan, umeen entzumena, irudimena eta sormena landuko ditu, eta hainbat istorio kontatu ondoren haurrek jasotako sentsazioak margoen bidez irudikatuko dituzte.

Udal liburutegian izango da ordubete inguruko ekitaldia, bihar, otsailak 20, 11:30ean, eta 4 eta 8 urte arteko neska-mutikoei gomendatu diete antolatzaileek.

OHARRAK

MUGIMENDU ETA MARRAZKETA TAILERRA

Jolasteko eta marrazteko saioa antolatuta du Jaiki elkarteak. Domekan da (17:00-20:00), kuarter zaharrean (16 urtetik gorakoak), Laia Bedosek gidatuta. Izena emateko: jaikielkartea@yahoo.es, 943 53 43 96 eta Facebook.

'MARGOTU FAMILIAN' KUKU MIKUREKIN

Kuku Miku elkarteak *Margotu*

familian saioa egingo du 3 eta 6 urte arteko umeendako eta gurasoendako. Bihar, hilak 20, izango da (17:30-18:45), elkarrearen egoitzan, eta Laia Bedos adituak gidatuko du. Izena emateko bidea: kukumikuelkartea@gmail.com.

BERTSO AFARIRAKO TXARTELAK SALGAI

Loramendik antolatuta, Agin Labururekin eta Iker Zubeldiarekin bertso afaria izango da

Hibai Gain elkartearen hilaren 26an, egubakoitza. Txartelak salgai dituzte Loramendin eta Urbaltz eta Gurea tabernetan (bazkideek, 18 euro; gainerakoek, 20 euro).

'PALMERAS EN LA NIEVE' FILMA HELDUENDAKO

Helduek *Palmeras en la nieve* filma (Espainia, 2015, 163 min.) izango dute gaur eta bihar (22:00), domekan (19:30) eta astelehenean (16:00). Umeek, osterara, *Carlitos* y

Snoopy marrazki bizidunen filma dute bihar eta etzi (17:00).

XAVIER DELTELL IKUSTEKO SARRERAK EGUAZTENETIK

Xavier Deltell (Lleida, 1958) aktore, telebistako aurkezle eta umorista ezaguna izango da otsailaren 26an, egubakoitza, Arkupen (20:00), Jose Andres (Ciudad Real, 1980) bakarriketagelearekin batera. Sarrerak Arkupen dituzte salgai eguaztenetik (4 euro).

Jon Díaz

Harakina

Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA



Atez ateko edukiontzia laster kenduko dituzte. | IMANOL BELOKI

Hondakin bilketa sistema berria, martxo amaierarako

Hainbat hitzaldi emango dira Ibarraundin eta Huhezi unibertsitatean

IMANOL BELOKI | ESKORIATZA

Martxoaren amaiera aldera jarriko da martxan hondakin bilketa sistema berria, bosgarren edukiontzia, Eskoriatzan. Hori horrela, martxoko lehen bi asteetan hainbat hitzaldi eskainiko dituzte Debagoieneko Mankomunitatekoek Huhezi unibertsitatean eta Ibarraundi museoa. "Aurreikuspenen arabera, edukiontzia berriak martxoko lehen astean iritsiko dira; etorri bezain pronto, Debagoieneko Mankomunitatekoek emango dituzten hitzaldien egun eta orduak ezarriko ditugu", azaldu du Joserra Zubizarreta alkateak.

Hitzaldi hauetan, sistema berriaren nondik norakoak azalduko zaizkie herritarrei, eta, bide batez, edukiontzia organikoaren (edukiontzia marroia) erabilpena-

ren jarraipena egiteko txipak jaso ahalko dira. Bestalde, herritarrek beraien ekarpenak egin ahalko dituzte sistema hobetze aldera, eta dituzten zalantzak argitu ahalko dituzte.

Bost edukiontzia, bat itxita

Asteko edozein egun eta edozein ordutan bota ahalko dira hondakinak, beira izan ezik. Sortzen duen zaratarengatik, egunez bota behar da. Edukiontzia guztiak irekita egongo dira, edukiontzia organikoa izan ezik; hau itxita egongo da, herritarrek egiten duten erabilpenaren jarraipena egin gura delako. Horretarako, txipdun sistema erabiliko da.

Herri barruan hamasei puntu ezberdinetan jarriko dira edukiontzia berriak, baita Elorretan

eta Kuatruenan ere, eta konpost-guneak gaur egun dauden lekuetan mantenduko dira: Intxaurtxueta, Dorleta, Aranburuzabala, eta Elorreta auzoetan.

Elizateetan, aldiz, gaur egun duten sistema berarekin jarraituko dute. Hainbat gune daude auzo ezberdinetan, eta baserri bakoitzak bere giltzarekin edukiontzia zabaltzeko aukera izango du. Konpost-guneari dagokionez, indibidualarekin jarraituko dute.

Komertzioak, berdin

Sistema berriak sortu ditzakeen arazoak saihesteko, eta aldaketa progresiboki egiteko, komertzioek gaur egun duten sistema berarekin jarraituko dute. Kasu honetan, irailean aldatuko zaizkie hondakinak biltzeko metodoa.

Eskoriatzako Inauteriei buruzko galdeketa egin gura du Udalak

I.B | ESKORIATZA

Otsailaren 4an, Ostegun Gizen egunean, hasi ziren Inauteriak Eskoriatzan, eta otsailaren 9an, Inauteri-martitzenean, amaitu ziren. Hainbat ekintza izan ziren egun horietan: herri-bazkaria, animaliekin jokoak, pailazoak Zaldibar antzokian, dantzaldia, disko festa eta zapatuko mozorro desfilea, besteak beste.

Bada, datozen urteetarako Inauterien jaien antolaketa hobetze aldera, ekintza guztiak aztertu nahi ditu Udaleko jai batzordeak, eta, horretarako, galdera sorta bat prestatu du Udaleko webgunean. Herritar guztiendako den dokumentua bete, ekar-

penak jaso nahi dira; jaiak hobetzeko asmoz, ekintzak edo ekintza horiek egiteko modua aldatzeko, edo berriak prestatzeko.

Dokumentua betetzeko

Eskoriatzako webgunean (*Eskoriatza.eus*) atxikita dagoen dokumentua bete behar da, eta herritarrek gura dituzten ekarpenak bidali ditzakete. Adin guztikoentzat prestatutako inkesta da; beraz, edozein eskoriatzarrek bete dezake dokumentua.

Inkesta *Inauteriei buruzko zure iritzia ezagutu nahi dugu* albistean atxikita dago. Albisterra sartu, eta *Sorta txiki hau* esaldian klikatu behar da.

Korrika egiteko bi zinta berri jarriko dituzte kiroldegian

Eskoriatzako Manuel Muñoz kiroldegian, korrika egiteko zinta bat apurtu egin zen 2016ko urte hasieran, eta, hori dela eta, Eskoriatzako Udalak bi zinta berri jarriko ditu martxoaren hasieran.

Hautsitako zinta zahartuta zegoen, eta konponketak egitea alferrikakoa dela erabaki dute Udalean. Bada, kiroldegiko zintzen erabiltzaile kopurua handia dela kontuan izanik, eta beharra dagoenez, bi zinta berri jarriko dira martxoan. Bitartean, erabiltzaile guztiei barkamena eskatu nahi die Udalak, ordutik hona sortu diren eragozpenengatik.

Homosexualitatea ardatz izanda, sei labor proiektatuko dira

I.B | ESKORIATZA

Filmazpit ekimeneko bigarren txandan, homosexualitatea ardatz izango duten hainbat film labor proiektatuko dira Zaldibar antzokian; zinema jatorrizko hizkuntzan, euskarazko azpitoluekin. Emanaldia otsailaren 24an izango da, eguaztena, 19:30ean, eta sarrera doakoa izango da.

Doce de Goiabada, En eftermiddag, Hole, Miss Finknagle Succumbs to Chaos, Pepper eta Tomorrow filmek errealitatea islatuko dute. Adiskidetasuna, *armairutik irteteko* lehenengo pausoa emateko beldurra... mota horretako istorioak kontatuko dira.

Bilboko Gaylesbitrans XIII. nazioarteko zinema jaialdia datorren astean izango da, eta, horren harira, iaz sariak jaso zituzten filmak ekarriko dira Eskoriatzara.

Balorazio positiboa

Aurreko hilean, migrazioaren gaineko pelikulak emititu ziren, eta balorazio positiboa egin zuten bertara joan zirenek; bai, pelikulez, eta baita proiektzioaren egunari eta orduari dagokionez ere. Gauzak horrela, hurrengo hilean ere, asteazken baten izango da Filmazpit Eskoriatzan, eta ordua ordu erdi aurreratuko da, ikusleek eskatuta: 19:00etan izango da.

Eusko Jaurlaritzako sailburuorde Bittor Oroz Eskoriatzan izango da eguaztenean, hilaren 24an

Bittor Oroz Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikagaien Politikarako sailburuordea Eskoriatzan izango da otsailaren 24an. Hitzaldia eskainiko du, 19:00etan, eta Udalak herritar guztiak gonbidatu gura ditu; batez ere, herrigunetik kanpo bizi diren pertsonak, dituzten zalantzak argitzen laguntzeko. Hainbat arazoren gainean hitz egingo du sailburuordeak; esaterako, auzoetan dagoen telebista seinalearen eta Internetekin sortzen diren arazoetan gainean.



Iaz, Bittor Oroz sailburuordea Eskoriatzako Batzokian egon zenekoa. | I.B

Txaro Gallegoren 'Suerte' antzerkia izango da domekan

Domeka honetan, Txaro Gallego igoko da Zaldibar antzokiko taula gainera, 19:00etan. Zortearen gainean hitz egingo du, eta bakoitzarentzat zortea zer den erantzungo duten hainbat gogoeta eskainiko ditu, gaztelarazko saioan. Sarrerak lau eurotan izango dira salgai.

'Banaketa baten ostean, familia osasuntsu baterantz' hitzaldia

Bikote baten banantze-prozesuaren inguruan familientzako dauden baliabideen gainean hitz egingo du Julia Rodríguezek, Agipasko psikologoa. Informazioa emateaz gain, erantzunkidetasunaren gainean hausnartuko da Ibarraundi museoa, hilaren 23an, 18:00etan.



Aramaioko lehentasunak zehazteko batzar irekia

Udaletzeko pleno aretoan elkartuko dira, 18:30ean, gaur, egubakoitza

ARANTZAZU EZKIBEL | ARAMAIO

2016ko aurrekontuak eta Aramaio udalerriko lehentasunak identifikatu eta zehazten hasteko prozesua hasiko dute gaur, egubakoitza. Batzar irekia egingo dute Udaletzeko pleno aretoan, 18:30ean. Prozesua ahalik eta zabalena izateko herritarrak animatu nahi dituzte bileran parte hartzera.

Aurrekontuen eta herriko plangintzaren inguruko lehen bilera izango da gaur egingo dute-

na. Bi helburu nagusi izango ditu: Udalaren sarrera eta gastuen inguruko egituraren azalpena ematea, Udalaren funtzionamendu ekonomikoa ulertarazteko; eta Aramaio Udalerriak arloz arlo izan beharko litzatekeen lehentasunak denon artean erabakitzeko bide berri baten plangintza azaldu eta denon artean bide horri ekitea. "Gauza praktiko bat izango da. Gure aurrekontuak oso mugatuak dira, eta mugapen horretan obra handiek eramaten

dute diru gehiena -diru laguntzetan eskatzen dugunaren zatia pagatzen-, azaldu du Lierni Altuna alkateak.

Horren harira, alkateak ghitu du aurtengo aurrekontuetan zentratzea ez litzatekeela "errealia izango".

Auzo alkate eta eragile

Prozesua ahalik eta parte-hartzaileena izateko, auzo-alkateak eta elkarteetako ordezkariak gonbidatu dituzte batzarrean parte

hartzera; horiez gain, gainerako herritarrak ere gonbidatuta daude bilerara.

"Ideia da egitura jendeari azaltzea eta horren barruan lehentasunak markatzea", dio Altunak. Lehentasunak identifikatu nahi dituzte arloka: "Adibidez, zer da kulturaren egin beharko litzatekeen lehenengo gauza? Hala, hurrengo diru laguntzak datozenean lehentasunak zeintzuk diren

jakingo ditugu eta horren arabera eskatuko dugu", azaldu du alkateak. Horregatik, gaur hasiko duten prozesuak hurrengo urteetarako balioko du.

Lehentasunak markatu

Gaurko batzarra errazteko, arloak zehaztuta eramango dituzte udal ordezkariak: auzoak eta euren beharrak, kultura eta kirola, euskara, hezkuntza, ongizatea, eta ingurumena, mendia eta nekazaritza.

Lehentasunak identifikatzen dituztenean lehentasun horiei ze garrantzia eman erabakitzeke botatu egingo dute: "Erabakitzeko dago zela egingo dugun, horri forma ematea falta zaigu oraindik; botatzeko epe bat zabal dezakegu, adibidez", dio Altunak. Gaur hasiko duten prozesuak jarraipena izango du hurrengo hilabeteetan.

ESANAK

"Gauza praktiko bat izango da egingo duguna"

LIERNI ALTUNA | ALKATEA

Behin-behineko konponbidea jarri diote Iturrizuri kalean zegoen ur arazoari

Ura bidera ez irteteko eta iturrira bideratzeko petril bat egin dute espaloian

A.E. | ARAMAIO

Azkeneko urteetan ur arazoak izan dituzte Iturrizuri kalean. Goiko lursailetatik eta saihsbidetik datorren ura bidera irteten zen. Udalak Diputazioarekin dihardu arazoa konpontzeko lanean; bien bitartean, behin-behineko konponbidea jarri dute pareko bidera urik ez irteteko.

Goiko lursailetatik eta saihsbidetik datorren ura bideratzeko, orain urte batzuk, obra txiki bat egin zuten: "Uste genuen saihsbidetaren eta kalearen artean dagoen lursaillean dagoen iturburuko ura izango zela; hodi bat jarri genuen ura iturrira bideratzeko. Ematen zuen arazoa konpondu zela, baina berriro ura irteten hasi zen", dio Lierni Altuna alkateak. Saihsbidetik datorren ura ondo hartua ez egoteak -ez dago arekarik- sortzen du arazoa; hala, behin-behineko konponbidea jarri dute ura bidera ez joateko.

Arazoa konpondu dute

Ura irteten den horma zatian urak jaso eta iturrira eramateko sistema bat jarri dute: petril bat jarri dute. Espaloian zati bat baliogabetzen du petrilak, baina,



Iturrizuri kaleko iturria eta egin duten petrilak. | ARANTZAZU EZKIBEL

oraingoz, pareko bidera ez da urik irteten. Modu horretan, urak sortzen dituen arazoak konpondu dituzte (ura izoztuz gero bidea labainkor egotea; bidea behar baino gehiago izorratzea...).

Lanbideren bitartez kontratatuta daudenekin egin dituzte lanak.

Horiei kontratua luzatu diete, "horrelako lan asko daudelako".

Aldundiarekin lanean

Udalak Aldundiarekin dihardu lanean -Aldundia da saihsbidetaren jabea- arazoari behin betiko irtenbidea bilatzeko.



Papargorriko neska, Larraitz Arriolabengoa eta Izaro Aretxaga. | PAPARGORRI

Papargorriko Principal Antzokian abestuko du datorren martitzenean

A.E. | ARAMAIO

Aramaioko Papargorri abesbatzak Gasteizen abestuko du datorren martitzenean. Principal Antzokian Kontzertu Handien XI. aldian egingo dute; horren barruan, Arabatxok kontzertua eskainiko du -Papargorri Arabako haur abesbatzaren barruan dago-.

Emanaldia Varvara Nepomnyashchaya piano jotzailearekin

batera eskainiko dute. Martitzenean izango da emanaldia, 20:30ean.

Egitaraua

Emanaldiaren egitaraua izango da: Bach-en *Fantasia kromatika eta fuga*, zehazteke dagoen Pärt-en obra -pianoa-, Pärt-en *Our garden* -pianoa eta Arabatxo abesbatza batera- eta Schumann-en, *Sonata 3*.

Emakumeen Nazioarteko Eguna ospatzeko kartel lehiaketa antolatu du Aramaio Udalak

Aramaion jaiotako edo Aramaion bizi den edonork parte har dezake lehiaketan. Lanak otsailaren 24ko 14:00ak baino lehen aurkeztu behar dira Aramaio Udaletxean. Irabazleak 200 euroko saria jasoko du. Kartela formatu digitalean aurkeztu beharko da eta teknika libre izango da. Lanak testu bat izan beharko du euskaraz; diseinuak besteko garrantzia izango du testuak.

OHARRAK

ERRETIRATUAK MALAGARA

Apirilaren 18tik apirilaren 25era egingo du irteera Alaiak Erretiratu elkarteak, Fuengirolara -Costa del Sol-. Bidaiaren prezioa 410 eurokoa izango da, eta izena eman beharko da martxoaren 11 baino lehen, Laboral Kutxan. Fuengirolako Hotel Fuengirolan hartuko dute ostatu. Antolatu duten ibilbidea izango da: apirilaren 18an, Aramaio-Fuengirola; apirilaren 19an, Marbella-Puerto

Banus-Benalmadena; apirilaren 20an, Antequera-Mijas; apirilaren 21ean, Malaga; apirilaren 22an, Ronda; apirilaren 23an, Nerja-Almuñecar; apirilaren 24an, egun libre; eta apirilaren 25ean, Fuengirola-Aramaio. Bakarkako logelaren egon gura duenak 160 euroko gehigarria ordaindu beharko du -410 euroez gain-. Izena ematea beharrezkoa izango da; izan ere, plaza mugatuak izango ditu bidaiak -55 plaza-.

YOGA IKASTAROA

Yoga eskaintza zabaldu egin dute Aramaion. Kultura etxeko aretoan martitzen eta zapatuetan eskainiko dute yoga ikastaroa aurrerantzean. Ordutegia izango da: martitzenetan 18:30etik 20:00etara; eta zapatuetan 17:45etik 19:15era. Interesa duenak edo informazio gehiago eskuratu gura duenak 626 00 81 51 telefono zenbakira deitu beharko du -Rocio Domingo-.

LEGUTIO MOTOR

- Mekanika orokorrean
- Elektrizitatea
- Diagnosia
- Azterketak
- Mantentze-zerbitzua
- Pneumatikoak

- Alienazioa
- Injekzioa
- Bateriak
- Esekidura-sistema
- Aire-girotea
- Direkzioak

Zure konfiantzazko tailerra!

Behoko, 13, 3. atea • 01170 LEGUTIO • Tel.: 945 45 51 13
Mug.: 616 28 33 92 • E-posta: legutiomotor@gmail.com

ELGETA

Herritarren parte-hartzea bultzatzea helburu duen ordenantza jendaurrean

Edozein ekarpenak egiteko aukera zabalik dagoela jakinarazi dute Udaletik

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Herritarren parte-hartzerako udal ordenantza proposamenaren jendaurreko aurkezpena egin zuen eguaztenean Udalak. Dokumentuak 22 orri ditu, eta udalbatzak otsaileko osoko bilkuran aztertuko du bere onarpena. "Danon artian, danon herrixa parte-hartze prozesuan gaiarekin lotutako hainbat ekarpen jaso genituen. Horiek aztertu eta jaso ditugu ordenantza proposamen honetan", azaldu du Iraitz Lazkano alkateak. "Ordenantza ez da behin betikoa. Praktikak erakutsiko digu zer gehitu, zer kendu edo zer aldatu behar den. Helburua da herritarren parte-hartzea bultzatzea".

Herritarren eskubideak aitortzen ditu, besteak beste, ordenantzak, eta herritar dira udal errol-

dan izena emanda dauden pertsona guztiak. Parte-hartzerako eskubidea, informazioa jasotzeko eskubidea, entzuna izateko eskubidea, eskaerak luzatzeko eskubidea edo herri ekimenerako eskubidea jasotzen ditu dokumentuak.

Parte-hartzerako prozedurak eta epeak ere finkatzen ditu ordenantzak, eta aurreikusten ditu, besteak beste, Udalak deitutako galdeketak, herritarrek bultzatutako herri galdeketak, proiektu ezberdinen arteko herri aukeraketak eta inkestak. Parte-hartzerako zinegotzi Janire Lazkanok azaldu du, esaterako, 100.000 eurotik gorako aurrekontua duten udal proiektuen kasuan herritarrek aukera izango dutela herri galdeketa eskatzeko, beti ere eskatutako sinadura kopurua

aurkezten badute. Ordenantzak finkatzen du prozedurak zein izan beharko duen.

Bestelako neurriak

Ordenantzak jasotzen du baita ere alkateak gutxienez astean egun bat hartuko duela herritarrek artatzeko, Udalak aurrekontu parte-hartzaileak bultzatuko dituela, eta urtean behin gutxienez udal aldizkaria argitaratuko dela. "Praktikan ematen diren gauza asko jasotzen ditu dokumentu honek, baina garrantzia ematen diogu zerrendatuta eta araututa egoteari" adierazi du Janire Lazkanok. "Argi dago ordenantzak, berez, ez duela herritarren parte-hartzea bermatzen. Pedagogia egin beharko da". Onartu eta gehienez urtebetera balorazioa egingo du Udalak.

Elgeta Zero Zabor taldea Epeleko zabortegi proiektuaren aurka

KOMUNITATEA GOIENA | ELGETA
ELGETA ZERO ZABOR

Elgeta Zero Zabor taldeak bat egin du martitzenean Arrasaten *Zabortegirik ez!* lelopean egingo dako agerraldiarekin. "2015eko azaroan Julio Bareak, Greenpeaceko arduradunak, Debagoiena zoriondu zuen Europako birziklapen mailarik altuenetakoa —%78— lortzeagatik. E-maila hau biztanleriaren konpromisoaren ondorioz lortu dugu. Greenpeacek laudorioak botatzea ez da ohikoa, bere eginkizuna ingurugiroari egiten zaizkion erasoak salatzea eta protestatzea baita. Txanponaren bestaldean Gipuzkoako Foru Aldundia dago. Jose Ignacio Asensio jaunak,

ingurumeneko arduradunak, egiten ari garen bilketa selektiboaren gestio onaren emaitzak aitortu beharrean sari bat eman nahi digu Epelen hondakindegia bat ezarri. Gipuzkoa osoko sailkatu gabeko zaborra eta tratatu gabekoa bertara ekartzeko mehatxua egin du. Asensio jaunak, ez litzateke hobe zeure sailetik lurralde osoan hondakinen bilketa selektibo eraginkorraren aldaketa sustatzea eta bide batez ingurugiroan hondakinen eragina gutxitu? Debagoienean horretan dihardugu, eta hori bai da biztanleria guztiaren aldetik solidaritatearen erakusgarri. Bailara honetan ahal bada, Gipuzkoa osoan ere bai".



Osatu orduko Saiheski Eguna

Abenduaren 6an erorikoa izan zuten Club Lambretta Eibar taldeko Fermin Iribar elgetarrak eta Ricardo Izagirre ermuarrak. Bien artean berderatzi saihestu apurtu zituzten. Osatu direla ospatzeko Saiheski Eguna egin zuten, zapatuan, Intxorta elkartearen. Argazkian, Iribar eta Izagirre motor gainean Club Lambretta Eibar taldeko lagunekin.

Bazkidetza kanpaina abiarazi du Elgetako Gure Esku Dago taldeak

Bazkidetza-orriak eskuragarri daude herriko hainbat dendatan eta tabernatan, eta taldeko ordezkariak zeramika gelan izango dira, barikuetan, 18:30etik 20:00etara. Bestalde, jakinarazi dute irekiak direla taldeak eguaztenean, 18:30ean, kultura etxean egiten dituen batzarrak. Herritarrek gonbidatu dituzte parte hartzera.

Elgetako hamar piano-jole gazte aste bukaeran Andoainen

Martxan da urteroko piano jaialdia. Xabier Delgado, Jokin Zeziaga, Nerea Canelo, Lorea Gallastegi eta Kattalin Otxoa bakarka ariko dira. Lau eskutara joko dute Itxaso Askasibarrek eta Amets Olasolok, eta sei eskutara Maialen Alkortak, Egoitz Mañarikuak eta Paula Palaciosok.

Euskal presoek eskubideen aldeko martxa Herrerara

Bihar, zapatua, autobusa irten-go da Herrera de la Manchako espetxerantz. Ekimena Debagoieneko ezker abertzaleak otsailaren 20rako antolatutako martxen barruan kokatzen da, eta elgetarrek antzularrekin batera egingo dute. Autobusa gauerdian abiatuko da Antzuolatik.

Martxoaren 6rako iragarri dute 2016ko Finalista Eguna

Aurreko urteetan moduan, Euskal Herriko Mendi Federazioak Elgetan egingo du iraupen luzeko ibilbideen zirkuituaren amaierako ekitaldia. Mendi ibilaldia egingo dute goizean. Parte-hartzaileak Elgetatik abiatuko dira eta Intxorta, Erdella, Egoarbitza eta Azkonabitza igoko dituzte. Jarraian, lagunarteko bazkaria eta sari banaketa egingo dituzte.

Emakumeen Eguna aldarrikatzeko ekintzak gertu

Argazki erakusketa, elkarretaratzea eta bikotekako lasterketa iragarri dituzte bultzatzaileek. Alicia Gartzia ari da herriko hainbat amamak protagonista izango dituen argazki erakusketa gertatzen Martxoaren 8rako. Bikotekako korrikaldia ere iragarri dute. Martxoaren 13an izango da. Izen-emate txartelak udaletxean eta Elkoro botikan jasoko dituzte.

ARETO FUTBOLA

AZKEN EMAITZAK

Astuan Villa - Jaitxo	2-4
Nahaste Borraste - Tzibaz United	2-15

SAILKAPENA

TALDEA	P
1. Jaitxo	6
2. Tzibaz United	3
3. Kokotxa	3
4. Astuan Villa	0
5. Nahaste Borraste	0

3. JARDUNALDIKO PARTIDUAK

ZAPATUAN (azken orduko aldaketarik ez)
16:00 Tzibaz United - Kokotxa
17:00 Nahaste Borraste - Astuan Villa
Epaila lanak: Jaitxo

OHARRAK

IPIUNEN ORDUA, GAUR

Hiru urtetik gorako umeendako saioa, 17:25ean, liburutegian.

BASERRIKO PLASTIKOAK

Mankomunitateak hilaren 23an egingo du bilketa. Eskatzeko, deitu: 943 762 547.

AISA EUSKARA IKASTAROA

Etorri berriendako 60 orduko ikastarorako izen-ematea zaba-

lik da hilaren 24ra arte. Argibideak udaletxean.

IKASTAROK KZGUNEAN

Dinamizatzailea KZgunean izango da eguaztenean, hilak 24, 09:00etatik 10:30era.

XILOGRAFIA IKASTAROA

Hilaren 27an emango dute 10:00etatik 14:00etara. Doan da. Izen-emateak: 943 76 80 22.

LEINTZ GATZAGA

Martitzenean eskola eta autobus barik, besteak beste

Errepidea zurituta zegoela eta errepidea itxi egin zuten Marulandatik aurrera, goizean

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Kexu dira hainbat herritar, oraingo asteko martitzeneko elur prezipitazioaren bueltan errepidea Marulandatik aurrera itxita

zegoela iragartzeak eragindako ondorioengatik.

Kexu dira, besteak beste, errepidea ixteak dakarrelako autobusa Leintz Gatzagatik ez pasatzea,

eta martitzenean hori gertatu zelako errepidea zabaldu zuten arte. Dakar, baita ere, eskolako andereñoa ez bertaratzea. Eta besteak beste, Labideara ogia eta bestelako produktuak ez ailegatzeta. Eta euren kexuen jatorria da, hain justu, oraingo astean errepidearen egoera ez zela errepidea ixteko bezain besteko arriskutsua, eta ez dela lehen aldian errepidea "lasterregi" itxi izana. "Behar baino lehenago ipintzen dute eta horrenbestearainoko arazorik ez dago hemen, eta gertatu

izan da behin baino gehiagotan jendeak autobidea hartu behar izatea kasu horregatik", adierazi zuen, esaterako, Alberto Altubek. "Gatzagaraino etor daiteke, neu etorri egin naiz, letreroa egon arren. Ezin daitekeena da herritik gora egin, baina herriraino etortzeko moduan dago", jakinarazi du behargin batek.

Eskola, Eskoriatzan

Eskolako andereñoari dagokionez, berriz, baieztatu dute horrela dela, martitzenean ez zela Leintz

Gatzagara irakaslerik joan. Izan ere, errepidea itxita dagoela esaten duen letreroa badago, gora ez egiteko eta Eskoriatzako ikasketxera joateko agindua dute eskolako irakasleek, nahiz eta jakin errepidea ez dagoela horren txarto. Edozein modutan, azpimarratu dute, baita ere, halakoe-tan gatzagarrek eskubidea dutela euren seme-alabak Eskoriatzako zentrorra eramateko, eta oraingo astean bertan, halaxe egin duen gurasorik egon ere badagoela.

Roberto Limeresen argazkia da onena Arrolako lehiaketan

Domekan, mendi bizikleta irteera eta haurrendako eskalada eta orientazio jolasak izango dira

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

58 argazki aurkeztu dira Arrolak antolatutako lehen argazki lehiaketara. Mendia eta natura abiapuntu hartuta, Roberto Limeres argazkilariaren *Camino hacia las torres de Lavaredo* argazkiak jaso du lehen saria. "Parte-hartze handia izan da, lehenengoz antolatzen den lehiaketa izateko",

diote Sergio Moreno eta Iker Aizkorbe epaimahaiko kideek. "Nahiko zaila izan da erabakia hartzea, maila ona egon delako; baina, azkenean, Mendi Astea ondoen deskribatzen duen argazkia irabazlea izatea erabaki dugu".

Bigarren saria Lierni Zubillagaren *Lasaitasunaren isla* erretatuarendako izan da eta hiru-

garrena Ion Iturberen *Aizkorri* lanarendako. Lehiaketara aurkeztutako 20 lan aukeratu dituzte erakusketan jartzeko. Oloranen izango dira ikusgai otsailaren 19tik 21era, 18:30etik 20:30era.

Filmak eta haurrendako kirola
Gaur, otsailak 19, MendiTour Bilboko MendiFilm jaialdiko hiru dokumental eskainiko dira: *Dominica*, *High and mighty* eta *Efflowe's Metanoia*. Torresoran izango da emanaldia, 19:30ean, eta sarrera sei euro da.

Arrola mendi taldeak antolatutako Mendi Astea borobiltzeko, domekan mendi bizikleta irteera egingo dute Legazpiko gurutzetik barrena Arrolara. Herriko Plazatik irtengo dira goizeko bederatzietan.

Eta goizeko hamaiketean, umeendako kirol jolasak izango dira eskolako gimnasioan eta patioan. Besteak beste, eskaladaz, orientazioaz edo *slackline* kirolaz gozatu ahalko dute gaztetxo antzularrek.



Camino hacia las torres de Lavaredo izeneko argazkia irabazle. | ROBERTO LIMERES

DATUA

58

ARGAZKI

Argazki lehiaketara aurkeztu diren 58 argazkietatik 20 lan jarriko dituzte ikusgai Oloranen.



GOIENA

Antzuolako haurrak Kantarin

Kantariaren bosgarren aldia abian da dagoeneko. Hala, 7 eta 11 urte arteko gaztetxo antzularrek euren interpretaziorako eta dantzarako gaitasunak erakusteko aukera izango dute. Bihar, otsailak 20, Zabalotegin entsegu-eguna dute. Eta grabazio-eguna otsailaren 27an izango dute, Zabalotegin. Guztira, 25 gaztetxok eman dute izena Kantari saioan parte hartzeko.

OHARRAK

HITZALDIA

Landatxoepok antolatuta, *Oinordetza euskal zuzenbide zibil berrian* hitzaldia otsailaren 23an izango da Oloranen, 18:00etan. Hizlaria, Juan Carlos Gonzalez.

IKUSKIZUNA

Badut taldearen eskutik, *Zirriborro* ikuskizuna izango da ikusgai. Familia osoari zuzendutako clown ikuskizuna da.

Domekan izango da, 18:00etan, Torresoroan. Sarrera 5 euro.

HERRERARA MARTXA

Gaur, otsailak 19, gaueko hamaiketean irtengo da Herrerako martxara joateko autobusa Sagastiko geltokitik. *Eltzikorta* antzularren eta Herreran dauden beste euskal presoek eskubideak aldarrikatuko dituzte martxa honetan antzularrek eta elgetarrek.

Txomin Garajea Bereza Antzuola izango da otsailaren 22tik aurrera

Eskainiko diren **zerbitzuak**:

- Auto berrien eta bigarren eskuko salmenta
- Marka guztietako autoen konponketa: mekanika eta karrozeria

- Aseguru-etxe guztiekin egiten dugu lan
- Bezeroaren autoa guk batu eta eramaten dugu bueltan
- IAT (ITV) pasatzera eramaten dugu autoa

Guztia **40 urteko esperientziaren bermearekin**

Maiatzaren 1a bitarteko eskaintza: **%15eko deskontua eskulanean eta mantentze-piezetan**

Inaugurazioa otsailaren 19an, 19:00etan
Gonbidatuta zaude!



Oxel eta Odei Vazquez | UDAko karatekak

"Euskadiko Txapelketan aurrean ibiltzen gara, baina kanpoan maila handia dago"

- ▶ Euskal selekzioa ordezkatzeko dute martxoan
- ▶ Euskadikoan zilarrezko domina irabazi dute biek

XABIER URZELAI | ARETXABALETA
Euskadiko Txapelketatik sudurra hautsita etorri da Oxel Vazquez, bi anaietan gazteena. Baina horrek ez dio eragotziko hilabete barru Guadalajaran lehiatzeko: debuta egingo du Espainiakoan, eta ez du aukera hori galdu gura. Edozein kirolelan moduan, karatean ere lesioak izaten dira; eta, borroka artea izanda ere, hain zuzen, tatamitik kanpora borroka azken aukera izaten dute.

Zelakoa izaten da txapelketa osteko astea? Lasaia goa?

Odei Vazquez: Berez bai, baina aste gutxi barru izango dugu Espainiako Txapelketa, eta ezin gara erlaxatu, lanean jarraitu beharra dago.

Oxel, uste dut zuretzat berria izango dela selekzioarekin lehiatzea.

Oxel Vazquez: Bai, lehenengo aldiz deitu didate, eta gogo handiz nago. Berez, atsedean hartu beharko nuke, baina ez dut aukera hori galduko.

Zer dela eta karatea?

Oxel Vazquez: Txikitatik horixe ikusi dugulako. Aitak -Odiolo Vazquez- sartu zigun karatearen

harra barrura, eta anaiari eta bioi gustatu egin zitzaigun. Bost urte nituela hasi nintzen honetan. **Horrenbestez, ez da etxeko telebistako urrutiko kontrolagatik borrokan ibiltzen zinetelako.**

Odei Vazquez: Horregatik ere bai [Barre].

Zer moduz joan da Euskadiko Txapelketa? Zilarrezko dominarekin bueltatu zarete biak [Odei 67 kilogramo beherakoetan; Oxel 60 kilogramo].

Odei Vazquez: Ondo; Euskadiko Txapelketan beti gura izaten dugu irabazi, baina, oraingoan, finaleko borrokaldian kontrarioa ni baino gehiago izan zen. Hauspoa falta izan zitzaidan, ez nintzen kontrarioa bezain kontzentratuta egon, eta, azken batean, nik baino borrokaldi hobea egin zuen. **Eta zuk, Oxel?**

"Aitak sartu zigun karatearen harra, eta gustatu egin zitzaigun"

Oxel Vazquez: Ni nahiko gustura geratu nintzen. Zail nuen urrea irabaztea, kontrarioa adinez dezentte nagusiagoa delako, eta esperientzia handiko karateka da. Espainiako Txapelketan ere emaitza onak egin izan ditu. Hura ere hobea izan zen.

Eta zer espero duzue Espainiako Txapelketatik?

Odei Vazquez: Bada, txukun jardutea, baina oso garbi daukagu Espainiakoan maila oso oneko karatekak egoten direla, eta zailagoa dela. Madrilen batzen da jende onena, nahiz eta azkenaldian Errioxan oso lan ona egiten dabilzan.

Oxel Vazquez: Niretako, esperientzia berria izango da, eta ondo pasatzeko eta ikasteko asmoa, ez daukat helburu zorrotzagaririk. Bueno, eta posible bada, lehenengo kanporaketa gainditzea [Barre].

Zer dauka karateak?

Oxel Vazquez: Oso kirol jardura aproposa da estresak eta halakoak alde batera uzteko, eta, gainera, entrenamenduetan oso ondo pasatzen dut. Uste dut gaz-



Oxel Vazquez eta Odei Vazquez, aste barruan, Ibarran. | XABIER URZELAI

teendako oso gomendagarria dela. **Badu diziplinatik, errespetutik...**

Oxel Vazquez: Bai, borroka artea da, baina kalean arazoren bat izanez gero, borroka azken aukera da. Gertaera desatsegin baten aurrean egoera lasaitasunez hartzen laguntzen du, eta borroka

zela saihestu ikasten da.

Aniak izanda, zuen artean baduzue lehiarik?

Odei Vazquez: Bai; handia, gainera [Barre].

Oxel Vazquez: Halaxe da, bai [Barre]. Gertatzen dena da ania nagusiagoa dela, eta ni baino handiagoa, eta halakoetan, normalean, berak irabazten du.

Odei Vazquez: Ez pentsa, txapelketa batzuetan senior mailan ez da bereizketa pisuaren arabera egiten, eta elkarren kontra egin ditugun azken bi borrokaldietan galdu egin dut; horrenbestez...

"Karatea ederra da estresa alde batera uzteko; gainera, ondo pasatzen dugu"

ATLETISMOA

Estatuko marka onena egin du Eneko Carrascalek luzera-saltoan: 6,99 metro

Ibai Fernandez ere protagonista izan zen, 60 metrokoan 6.95eko marka eginda; epaileek eskuz hartu behar izan zituzten denborak

X.U. | ARRASATE

Joan den asteburuan egin zituzten Anoetan Euskadiko Atletismo Txapelketak, eta luzera-saltoan Eneko Carrascal 7 metroko markatik zentimetro batera baino ez

zen geratu (6,99); oraingoz, gazte mailako atleta -16 urte ditu- estatuan erreferente da, eta Europako txapelketara begira pausoak behar den moduan ematen dabil. Beste proba batzuetan epaileek

arazo handiagoak izan zituzten markak hartzeko. Abiadura lasterketetan denborak hartzen dituen gailu elektronikoak arazoak eman zituzten, epaileek eskuz hartu behar izan zituzten denborak; horrenbestez, ez dute balio ofizialik. Egoera horrek ez zion askorik eragin Ibai Fernandezi, eta gazte arrasatearrak 6.95eko markarekin urrezko domina jantzi zuen.

Espainiakoak asteburuan

Asteburuan, berriz, promesen mailako atleten txanda izango da, Espainiako Txapelketan lehiatuko dira eta Istar Dapena eta Malen Ruiz de Azua arrasatearrak. Ruiz de Azua 4,08 metroko markarekin aurkeztuko da txapelketara -urteko marka onena eta Dapena hirugarren marka onenaren jabe da oraingoz (5,05).



Carrascal, podiumaren erdian, Anoetan. | ARRASATE KANPANZAR ATLETIKO TALDEA



Laboral Kutxa Baskonia Zalgiris Kaunas

Partidurako 4 sarrera bikoitz ditugu

Otsailaren 25ean, 20:30ean Buesa Arenan jokatu den partidurako.

PARTE HARTZEKO (OTSAILAREN 23RA ARTE):

WhatsApp: [BASKONIA] [bazkidearen zenbakia]
688 69 00 07 zenbakira.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatuetan sartuko direla. Datu ballek honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioztatzea. Eskubidea izango duzu datuak sartzeko, hobe zuzentzeko edo ezabatzeko. Hobe horretarako idatzite: klub@goiena.com



goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

GIMNASIA ERRITMIKOA

Ehunka gimnasta batuko dira zapatuan Labegaraieran, Eskola Arteko Txapelketan

Goizean lehia jardungo dute; arratsaldean benjaminen topaketa izango da

XABIER URZELAI | BERGARA

Badator gimnasia erritmikoko urteko lehen hitzordu handietako bat, Bergarako Ariznoa taldeak antolatuta bihar, zapatua, Labegaraieran egingo duten B mailako Eskola Arteko Gimnasia Txapelketa.

Goizeko saioa 10:20an hasiko dute, hamar minutu iraungo duen gimnasten desfilearekin, eta gero, hiru ordu pasatxoan ehunka gimnasta lehiatuko dira. Alebin mailan, esaterako, 15 talde izango dira –Antzuolakoak eta Bergara-

ko Aranzadikoak, esaterako–, eta beste 26 gimnastak bakarkako saioan jardungo dute –Arizmendiko Nora Marco eta San Yan Azkarate eta Arrasateko Herri Eskolako Maider Agirreurreta lehiatuko dira hor–.

Infantil mailan, berriz, bost talde izango dira –Arrasateko Dragoikoak eta Bergarako Ariznoakoak, adibidez–, eta beste 12 gimnasta bakarkako lehiatuko dira; Aloña Mendiko Naroa Olalde eta Arrasate Dragoiko Lorea Pierru-

ges eta Irune Cia izango dira debagoiendarrak.

Arratsaldean, topaketa

Goizean txapelketa amaituta, arratsaldean benjamin mailako topaketari helduko diote, eta hor ere beste koadrila galanta batuko da ikasturtean zehar ikasi dituztenak erakusteko asmoz. Hala, arratsaldeko saioa 17:20an hasiko dute, hori ere desfilearekin, eta pare bat ordu iraungo du topaketak. Hor beste 32 talde batuko dira, eta han egongo dira Bergarakoak, Arrasatekoak, Oñatikoak, Aretxabaletakoak eta Eskoriatzakoak. Eta taldeekin batera beste 25 gimnastak bakarkako saioa egingo dute.



Gimnasta bat lan-saioaren erdian. | GOIENA

DATUA

32

TALDE

Arratsaldeko topaketan 35 taldek hartuko dute esku; tartean, ibarrekoek.

SASKIBALOIA

Erronka zaila du MUK: liderraren kantxan saria jasotzea

X.U. | ARRASATE

Erronka zaila dute asteburuan MUKo jokalariek: EBAko liderra den Ardoiren kantxan sariren bat jasotzea. Ardoikoek hiru partidu baino ez dituzte galdu ligan, eta jakinekoea da zuri-moreek gauzak bikain egiteaz batera kontrarioak erraztasunak eman beharko dituela bi puntuak batzeko. Baina Larreategiren mutilek ez dute galtzekorik, pronostikoen barruan ez da eta sartzen dome-

kan (18:00) Zizur Nagusian irabaztea.

Kolpea joan den zapatukoa izan zen, La Gallofaren kontra etxean izandako porrota (72-78). Hain zuzen, etxean beste 6 partidu geratzen zaizkie zuri-moreei, eta final kutsua izango du horietako bakoitzak.

Oñatikoak Donostiara

Natra Oñatiko jokalariek urte hasiera ederra izan dute –sei

partidutatik bost garaipen– eta bolada on horri eustera joango dira zapatuan (20:00) Tecnum taldearen kantxara.

Eskoriatzako neskak bigarren

Gipuzkoako senior mailan, ostera, Eskoriatzako neskak bigarren daude, baina azken bi partiduak galduta. Bolada txarra etetera joango dira bihar (20:00) Aietera, Atletico de San Sebastian taldearen kontra jokatzera.

ESKUBALOIA



Deusturen kontrako partiduko artxibo erretratua. | GOIENA

Lider dagoen Ford Mugarri Arrasatek Hondarribia hartuko du bihar, zapatua

X.U. | ARRASATE

Izarraitz Aloña Mendiren kontrako derbiko garaipenak emandako gorakadarekin hartuko du Arrasateko taldeak Hondarribia bihar Iturripen (18:00). Kostaldekoak ez dira kategoriariako talderik indartsuena, 12. postuan daude eta 4 partidu irabazita. Geratzen diren zortzi jardunaldietan lehenengo postu horri eusten ahaleginduko

dira Arrasatekoak, baina gertu dago Basauri, puntu bakarrera, eta azkenaurreko jardunaldian elkarren kontra jokatuko dute.

Oñatikoak Erreteriarra bihar

Derbia Zubikoan galduta, Izarraitz Aloña Mendik aurreko bi taldeen itzala galdu du, nahiz eta partidu bat gutxiago duen. Ereintzaren kontra jokatuko du zapatuan (17:30).

PIRAGUISMOA

Bergaran beharrezko Orthez-en egingo dute Euskadiko Txapelketa, asteburuan

Bergarako Beti Bustik oraingo asteburuan antolatu behar zuen, Bergaran bertan, Euskadiko Piraguismo Txapelketa, baina azken astean egindako euria dela eta federazioak iritziz aldatu du, eta piraguitak Frantziaraino joan beharko dira txapelketa hori jokatzera: "Federazioak hartutako erabakia da, eta guri betetzea tokatzen zaigu", adierazi du aste barruan Amaia Agirrezabalek. Hala, Orthez herriak txapelketak hartzeko prestatuta duen errekan izango da txapelketa.

TXIRRINDULARITZA

Aloña Mendik bihar aurkeztuko ditu ziklistak, eta 50. urteurrena ospatzeko ekintzen berri emango du

Aurkezpen berezia izango da aurtengoa, Aloña Mendiko txirrindularitza sailarendako urte berezia izango da eta. Urteurren borobila beteko dute aurten, eta taldeak hainbat ekimen prestatu ditu urteurrena behar den moduan ospatzeko. Hala, horien guztien berri emango dute bihar (12:30, Oñatiko plaza). Ekitaldia udaletxean hasiko da, eta, ondoren, plazan izango du jarraipena. 2016an Aloña Mendi ordezkatzeko duten gazte, kadete, infantil eta alebin mailetakozko ziklistak ere aurkeztuko dituzte.

HOCKEYA

Teknikazio saioa egin zuten gazteek Bergaran

2001ean, 2002an eta 2003an jaiotako gaztetxoek teknikazio saioa egin zuten asteburuan Labegaraieran, Euskal Selektzio ordezkariak lagunduta. Askotariko ariketak egin zituzten hockeyko teknika hobetzeko, eta, saioaren amaieran, ikasitakoa praktikan jartzeko lagun arteko partidua jokatuz.



FUTBOLA

Liderra estutzeko aukera du Mondrak zapatuan etxean

Aretxabaletan galdu izana atzerapausoa izan da zuri-moreendako; sei puntura dago Amaiak Bat

XABIER URZELAI | ARRASATE

Joan den astean UDAREN kontra galdu izanak min egin zien Josu Zubiaren mutilei. Partidua amaituakoa inork ez zuen Goienako kamera aurrean jarri gura, eta horregatik eskertzen dira kapitainetako bat den Ander Ruiz de Azua moduko jokalariei jarrera, eta patxada: "Oraindik asko gertatu da, eta, bestela ere, bigarren postuak saria izan dezake; hortaz, ez da ezer gertatu, kategoriaz igotzeko borrokan jarraitzen dugu, eta lanean jarraitu behar dugu". Bizkar gainean kilometro asko daramatzan jokalariei baten berbak dira, eta ez zaio arrazoirik falta, zapatuan Mojategin (16:30) bisitari etorriko den liderrak, Amaiak Bat taldeak, sei puntuko aldea du eta -Urolaren kontra bana egin zuten-, eta oraindik hamaika jardunaldi geratzen dira; hau da, 33 puntu daude jokoan.

Hala, Mondrak bihar du debattarrak osterara ere urduri jartzeko aukera, azkenera arte amore emango ez dutela erakusteko, baina sinistuta egon behar dute horretarako.

Besteak, kanpoan

Erregional preferenteko gainontzeko taldeek kanpoan jokatuko dute. Bolada onean dagoen Bergarak -bosgarren dagoeneko-

Legazpin jokatuko du zapatuan (16:30). Mondraren kontra bolada txarra eten zuen Aretxabaleta, berriz, Azpeitira joango da zapatuan (17:30), eta atzealdean murgilduta dagoen Antzuolak Beasainen eten gura du azken hila-beteetako joera (zapatua, 17:45).

UDAK Bizkaian emaitza onak

Hirugarren Mailan UDak ere azkenera arte borrokatu beharko du kategoriari eusteko. Valleren eta Barkeroren mutilak atzealdean murgilduta daude, baina ez dute trenik galdu, talde mordoak daude eta atzean oso alde txikiarekin. Pentsa, hamabosgarren postuan dagoen Deustok (25) Aretxabaletak (22) baino hiru puntu gehiago ditu. Hala, Aretxabaletak laugarren dagoen Bermeoren (41)

kontra jokatuko du zapatuan, (17:00) eta kuriooa da; izan ere, Bizkai aldeko taldeak kategoriko onenak diren ustea dago, eta, hain zuzen, Bizkaiko zelaietan batu dituzte aretxabaletarren puntu gehien; lurralde horretan jokatuko dituzten azken lau partiduetan puntuak batu dituzte: Zallan (1), Durangon (1), Santurtzin (3) eta Getxon (1).

Aloña Mendik ere etxean

Urtea ezin hobeto hasi zuen Aloña Mendik beherakadaxoa izan du, eta, azken bi partiduetan galduta, atzera egin dute sailkapenean, zortzigarren posturaino. Domekan Martutene izango da Azkoagainen (16:30); 2016a negargarri hasi du talde horrek, baina azken partidua irabazi egin dute.



Mikel Aizpurua, Zestoaren kontrako partiduan. | GOIENA

ATLETISMOA



Yeray Varela, Euskadiko distantzia motzeko krosean. | YERAY VARELA

Yeray Varela txapeldunorde distantzia motzeko krosean

Taldeakoa, brontzea eskuratu zuten Aloña Mendiko lau ordezkariak Euskadiko txapelketan

I.B | OÑATI

Abadiñon jokatuko zen Euskadiko distantzia motzeko krosean Oñatiko atletismo saileko atletek emaitza bikainak lortu zituzten. Gainera, lokatzari aurre egin behar izan zioten korrikalariak,

eta lan ona eginda bueltatu ziren etxera. Yeray Varela txapeldunorde geratu zen lasterketan, nahiz eta bosgarren postua lortu; izan ere, aurretik geratu zirenak atzeritarrak ziren. "Ez nuen espero Euskadiko txapel-

ketan hain emaitza ona lortzea. Ez da nire modalitatea, eta, horregatik, oso pozgarria izan da".

Lau kilometro eta erdiko lasterketa "oso esplosiboa" izan zela adierazi du Yeray Varelak, eta lehia gogorra izan zuela David Gartziarekin. Bada, zazpi segundoko aldeagatik ezin izan zuen euskal atletarik azkarrena bezala amaitu lasterketa. Gartzia 13.57 egin zuen eta Varelak, aldiz, 14.04.

Taldeakoa hirugarrena izan zen Aloña Mendi, ordezkari hauei esker: Yeray Varela, Sergio Gartzia, Tasio Gomez eta Dayber Losada. Euskal atletetatik onenak, berriz, David Gartzia (13.57) eta Ainhoa Sanz (16.14) izan ziren. Gizonezkoen lasterketan, garaipena Hicham Ouallarentzat (13:33) izan zen eta bigarren postua Driss Bensaïdek (13:49) eskuratu zuen.

Hurrengo erronka Espainiako txapelketarako puntuagarri izango den lasterketa izango dutela adierazi du Yeray Varelak: "Otsailaren 28an izango da, eta iazko marka hobetzeko helburuarekin joango naiz".

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

HIRUGARREN MAILA

Bermeo-Aretxabaleta
Zapatua. 17:00. Itsas Gane.

OHOREZKO ERREGIONALA

Aloña Mendi-Martutene
Domeka. 16:30. Azkoagain.

ERREGIONAL PREFERENTEA

Ilintxa-Bergara
Zapatua. 16:30. Bikuña.

Mondra-Amaiak Bat

Zapatua. 16:30. Mojategi.

Lagun Onak-Aretxabaleta

Zapatua. 17:30. Garmendipe.

Beasain-Antzuola

Zapatua. 17:45. Iqartza.

EMAKUMEZKOEN LIGA

Zumaia-Arizmendi
Zapatua. 17:30. Aita Mari.

Antigua Luberi-Mondra
Zapatua. 13:30. Rezola.

OHOREZKO GAZTEAK

Aretxabaleta-Eibar
Domeka. 18:00. Ibarra.

Burumendi-Mondra

Zapatua. 17:00. San Miguel.

Aloña Mendi-Ilintxa

Zapatua. 17:30. Azkoagain.

Bergara-Urola

Zapatua. 17:30. Ipintza.

OHOREZKO KADETEAK

Eibar-Bergara
Domeka. 15:00. Unbe.

Aloña Mendi-Real Sociedad

Zapatua. 11:30. Azkoagain.

Arrasate-Amaiak Bat

Zapatua. 11:45. Mojategi.

ARETO FUTBOLA

EUSKAL LIGA

Aretxabaleta-Otxartabe
Domeka. 11:30. Ibarra.
Eskoriatza-Atxurre Bakio
Zapatua. 17:50. Manuel Muñoz.

LEHENENGO MAILA

Pizza Per Tutti
Mondrate-Euskalduna
Domeka. 11:40. Iturripe.

EMAKUMEZKO SENIORRAK

Eskoriatzak atsedena.

GIPUZKOAKO GAZTEAK

Pizza Per Tutti
Mondrate-Summa Aldapeta
Domeka. 10:00. Iturripe.

ESKUBALOA

EUSKAL LIGAKO SENIORRAK

Ereintza Aguplast-Izarraitz
taberna Aloña Mendi
Zapatua. 17:30. Errenteria.
Ford Mugarri-La bacaladera
Hondarribia
Zapatua. 18:00. Iturripe.

EUSKADIKO TXAP. EMAKUM.

Aloña Mendi-Zuazo
Zapatua. 17:30. Zubikoa.

GIPUZKOAKO TXAPELKETA

Bergara-Gabaz Elgoibar
Domeka. 12:15. Labeagarrieta.

SASKIBALOA

EBA

Megacalzado Ardoi-MU
Domeka. 18:00. Zizur mayor.

BIGARREN MAILA

Tecnun-Natra Oñati
Zapatua. 20:00. Tecnun eraikina.

GIZONEZKO SENIORRAK

Bosteko-MU
Zapatua. 20:00. Paco Yoldi.
Take Orbela taberna-Soraluce
Bergara
Zapatua. 16:00. Usabal.

EMAKUMEZKO SENIORRAK

Atletico San
Sebastian-Eskoriatza
Zapatua. 20:00. Aiete.

ERRUGBIA

SENIORRAK, 2. MAILA

ART-Arratiko. Zehaztu barik.

PILOTA

OÑATI

Egubakoitza. 19:00etan hasita
Aloña Mendi2-Azkoitia (alebinak).

BERGARA

Egubakoitza. 19:15etan hasita
Bergara2-Arrasate (alebinak).
Bergara1-Euskal Jolas2
(alebinak).

Bergara-Intxurre1 (gomazko

paleta emakumezkoak).

Bergara-Hernani (gazteak).

ARRASATE

Egubakoitza. 19:45etan hasita
Arrasate3-Murumendi (infantilak)
Arrasate-Txapagain (kadeteak).

Arrasate-Gazteleku (gazteak).

Zapatua. 18:00etan hasita

Arrasate4-Legazpi1 (infantilak).

Arrasate1-Legazpi3 (infantilak).

Arrasate2-Aloña Mendi1

(infantilak).

Arrasate-Eibar (infantilak).

ARETXABALETA

Zapatua. 16:30etan hasita

Aretxabaleta3-Txapagain

(alebinak).

Aretxabaleta1-Lapke (alebinak).

Aretxabaleta1-Aloña Mendi2

(infantilak).

Aretxabaleta2-Gure Txeru

(infantilak).

MENDI LASTERKETAK

Sasoi betean hasi du Kortazarrek urtea, Argentinan nagusituta

X.U. | ELGETA

Etxetik milaka kilometrora hasi du denboraldia Oihana Kortazar elgetarrak, Argentinan. Eta ederto hasi du, gainera, Cruce Columbia izeneko proba irabazita. 100 kilometroko lasterketa da, hiru etapetan egiten dutena, Andean barrena, Argentina eta Txile artean: "Hiru eguneko esfortzua da, ehunka mendi lasterkarirekin bizitako momentuak, kanpalekuko esperientzia, lagun berriak eta Andeak Argentinatik Txilera pasaportea eskuan dugula pasatean ikusitako leku zoragarriak... Cruce Columbia lasterketa berezia da", adierazi du Kortazarrek.

Hiru etapa, hiru garaipen

Kortazarrek guztira hamar ordu pasatxo erabili ditu (10.03.50). Bigarren sailkatu da Leticia Saltori, eta brasildarrak 20 minutu gehiago behar izan ditu 100 kilometroak betetzeko.

Lehen etapen 40 kilometro eta 1.500 metroko desnibelazortzi minutuko aldea aterazion Saltoriri (3.45.05). Bigarren etapen 30 kilometro egin zituzten (1.200 metro) bi ordu eta 46 minutu behar izan zituen, Saltorik baino bost gutxiago. Eta hirugarren eta azken etapen ere elgetarra izan zen nagusi. Azken honetan 30 kilometro eta 2.000 metroko desnibelazortzi minutuko aldea aterazion Saltoriri (3.32.00) behar izan zituen.



Oihana Kortazar mendian korrika. | GOIENA

Oñatiko Kantari, konfeti eta guzti!

AMAIA TXINTXURRETA | OÑATI

Asteburuan grabatu ziren Oñatiko Kantariko ikuskizunak eta 42 taldetan banatuta 182 gaztetxo oñatiar igo ziren taula gainera euskal kantuak abestera eta dantzatzera. Suhiltzaile jantzitako gaztetxoak, eskularru zuriekin

edota oinutsik parte hartu zuten neskatilak, futbolari Realzaleak, gorbata urdin dotoreak jantzita etorri ziren mutikoak, eskutitzak aurpegian marraztuta eraman zituzten gaztetxoak, askotariko osagarriak zituzten parte-hartzaileak... sekulako agertoki bihur-

tu zen gaztelekua. Kantari festa agurtzeko, gainera, hirukote batek konfeti koloretsuak bota zituen oholtza gainean.

Parte-hartzaileen gurasoek, anai-arrebek, aitona-amonek eta lagunek primeran pasa zuten protagonistekin kantuan.



Neskatila pozik kantuan.



Ikuskizunean abesten.



Mutil boskotea gorbata urdin dotoreekin *Ilargia* abesten.



Neska-mutilak euren ikuskizunean *Eskutitza* kantua abesten.



Suhiltzaile kuadrilla sua itzaltzeko prest.



Saio baten amaieran Kantariko kantuarekin agurtzen.



Aitor Agiriano koreografiako pauso bat egiten.



Emanaldian gustura. | ARGAZKIAK: IMANOL SORIANO ETA AITOR AGIRIANO



Amaia Txintxurreta
Kantariko aurkezlea.

5. ALDIA

Kantari



Bergara, Antzuola eta Elgetako partaideok, eman azken errepassoa abestiari eta koreografiari!

Entseguak Bergaran

Otsailaren 20an eta 21ean Zabalotegin

Ikuskizunak Bergaran

Otsailaren 27an eta 28an Zabalotegin



Instagram* argazki lehiaketa:

Bergarako ikuskizuneko argazkiak bidali #goiena eta #kantari etiketak erabiltuta.

Saria: Tableta bat.

*Instagramek gomendatzen du bere aplikazioa 13 urtetik gorako umeek erabiltzea, Adingabeak Babesteko Pribatutasun Legearen arabera.



Informazio gehiago: 943 25 05 05
<http://blogak.goiena.eus/kantari/>

goiena

KULTURA

Laburbirak, hiru geltoki

Topagunearen hamahirugarren bilduman, debagoiendarrek egindako film laburrak daude

A. ARANBURUZABALA | ARRASATE

Hamahirugarren urtez ate-joka da Topagunea euskara elkarten federazioak bultzatzen duen Laburbira. Euskarazko ikus-entzuzeko sortzaileen lana ezagutzera ematea da zirkuitu ibiltari horren helburua. "Bidea ez da erraza, eta horretan laguntzea da gure asmoa, euskaraz ekoizten jarrai dezaten", azaldu du Itxaro Artolak, AEDko dinamizatzaileak.

Hilaren 25etik martxoaren 20ra bitartean 27 herri bisitatuko ditu, eta hiru geltoki izango ditu Debagoiengan: Bergaran, otsailaren 28an; Arrasaten, martxoaren 2an; eta Aretxabaletan, martxoaren 15ean.

Zortzi lan aurtengo bilduman

Ordubete inguruko iraupena duen aurtengo sortan askotariko genero eta estiloetako lanak daudela azaldu du aukeraketa lanetan jardun duen Itxaro Artolak.

"Animaziozkoak, dokumentalak, artistikoak, fikziozkoak... denetik dago, eta bakoitzak bere puntua du. Hiru minutu ditu bildumako film laburrenak eta hamasei, berriz, luzeenak. Hainbat irizpide hartu ditugu lanak aukeratzeko orduan; besteak beste, genero ikuspegia, euskalkia, lurraldetasuna eta euskarekiko sentsibilizazioa lantzea".

Debagoieneko sortzaileen lanak daude datorren astean abiaraziko duten bilduma berrian: Iker Azkoitia aretxabaletarraren *Semeak* eta MUko Ikus-entzuzeko Komunikazio graduko ikasle talde batek egindako *Jorrai*, hain zuzen ere. Aipatzekoa da, era berean, Ane Urkiolak zuzendu duen *Zea Bingo* film laburrean debagoiendarrek jardun dutela produkzio lanetan, eta Anger taldeko kide Arkaitz Biainek egin duela musika. Hiru lan horiez gainera, honako lan hauek osatzen dute aurtengo zortzikotea: *Bere bizitzetako bat* (Aitor Gametxo), *Brunilda* (Eriz Alberdi), *Erreplika* (Iñigo Gaiton), *Fishura* (Yago Mateo) eta *Hartz txiki* (The Arlotes, Uraitz Soubies).

Saritutako filmak ere bai
Askotariko istorioak kontatzen dituzte aktore famatuak edo ez hain ezagunak protagonizatutako lanetan. Umorezkoak daude, drama puntua dutenak ere bai, beldurrezkoak...

Aretxabaletako Iker Azkoitiaren *Semeak* lanak bikote gazte baten gainean dihardu; izan gura duten seme-alabaren izenez eta eman gura dioten hezkuntzaz iritzi ezberdinak dituzte. Halako batean, etxean istripua izango du bietako batek; ondorioz, bizimodu goitik behera aldatuko zaie. Kontseiluak eta Donostiako Zinemaldiak antolatutako *Euskaraz bizi nahi dut* sariketan profesio-

ESANAK

"Aukera ezin hobea da jende askorengana heltzeko"

IKER AZKOITIA | ZINEGILEA

"Gure kultura sorkuntzaren urteroko aroei buruzkoa da"

ANE ZUAZUBISKAR | ZINEGILEA

jende askorengana heltzeko bidea errazten du. Sortzaile txikiok asko eskertzen dugu banaketa lanetan laguntzea. Ez gara jaialdi askotan izan, baina datorren astean Bilboko Zinegoak jaialdian aurkeztuko dugu", dio Azkoitiak.

Topagunearen aurtengo *Kameratoia* lehiaketako irabazlea da MUko ikasle taldearen *Jorrai* lana. "Euskarazko kultur sorkuntzak urtero betetzen dituen aroak batzen ditu gureak. Durangoko Azokan eta Durangoko kaleetan grabatu genuen, abenduaren 7an eta 8an. Aktore lanetan euskal kultur gintzako aurpegi ezagunak eta Durangoko Azokara hurbildu ziren herritarrak daude. Elkarrekin egin dugun lehen laburra da, eta ikasleak izanik, sekulako ilusioa egiten digu gure lana zuzendari oso finen lanekin batera Euskal Herrian erakustea", kontatu du Ane Zuazubiskar taldeko kideak.

nalen ataleko lehen saria eskuratu zuen irailan. "Guretzako oso sari garrantzitsua izan zen Donostiakoa. Laburbira zirkuituan egotea ere aukera ezin hobea da;



Bere bizitzetako bat (Aitor Gametxo). | TOPAGUNEA



Brunilda (Eriz Alberdi). | TOPAGUNEA



Erreplika (Iñigo Gaiton). | TOPAGUNEA



Fishura (Yago Mateo). | TOPAGUNEA



Hartz Txiki (The Arlotes, Uraitz Soubies). | T.



Jorrai (Uda Films). | TOPAGUNEA



Semeak (Iker Azkoitia). | TOPAGUNEA



Zea Bingo (Ane Urkiola). | TOPAGUNEA

ARRASATEKO BASERRIKO PRODUKTUEN AZOKA

9:00-14:00 Seber Altube Plaza

HILEKO 3. ZAPATUA

Otsailak 20 | 2016 | Martxoak 19 / Apirilak 16 / Maiatzak 21 / Ekainak 18 / Uztailak 16 / Irailak 17 / Urriak 15 / Azaroak 19

Antolatzailea: **ARRASATEKO UDALA**
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN
Emplegu eta Garapen Ekonomikoen Saria

Laguntzailea: **ibai-arte**
Arrasateko baserriek eta merkatariek konfiantza, hurbiltasuna eta kalitatea eskaintzen dizkizute.



'La Traviata' opera Kursaal antzezteko prest daude bergararrak

Dekoratuak ere etxean egin dituzte, Valen Moñuxek eta Alex Odriozolak gidatuta



Operan parte hartuko duen bergarar taldea. | GOIENA



XIX. mendeko moduko arropa jantzita. | CARLOS ETXANIZ



Protagonistak eguazteneko entseguan. | AINARA GARCIA

OIHANA ELORTZA | BERGARA

Gaur, egubakoitza, estreinatuko da *La Traviata* opera (20:00etan) Kursaal, eta domekan (19:00etan) egingo dute bigarren saioa. Atzo, eguena, egin zuten entsegu orokorra, mila lagun aurrean. "Guretako, horixe izan da estreinaldia", adierazi du eszena zuzendariak, Valen Moñux bergararrak.

Sekretua

Eszenografiaren ardura Alex Odriozola herrikidearekin batera izan du Moñuxek. Eurez gain, beste hainbat bergararrek hartuko dute parte opera honetan, zeharka edo zuzenean. "Guztira, 20 bergarar inguru gaude proiektu honetan sartuta; konpainiaren %20 bergararrak gara; gehiengoa, beraz", zehaztu du Moñuxek. Denek, baina, badute eskarmentua horrelako lanak antzezten, eta hori momentu guztietan nabaritu izan dela dio zuzendari artistikoak, "onerako eta txarrerako".

Lauzpabost hilabeteko lana ikusiko da gaurko eta domekako saioetan Donostiako Kursaal.

Entsegu orduak, batetik, eta dekoratuak, bestetik, horiek ere Bergaran egin baitituzte, Bidegurutza kaleko lokal batean duten tailerrean. "Lagun kuadrilla bat gaudenez, oso giro onean eraman ditugu gure ardura guztiak. Denok deseaten gaude gure lana agertokian ikusteko, baina, zalantzarik gabe, bukatzerakoan nostalgia puntu bat ere izango dugu", dio. Ikusleak betiko *Traviata* ikusiko duela ere aurreratu du Moñuxek, baina betikoa izanagatik zergatik den erakargarria eta gustukoa argitu du: "Dena nahastuta dago, musika sinplea baina sakona, ahots apartekoak, melodrama, brindisa... eta gure bertsioan, gauza original bat, euskal dantzari bat, *Piquillo*, torero bizkaitarra".

Saio hauek bertatik bertara ikusteko autobusak antolatuta dituzte Bergararik eta Antzuolatik eta 100 lagun inguruk erosi dute txartela. Guztira, saio bietako eta atzoko entseguko ikusleak kontuan hartuta, 4.000 lagun inguruk ikusiko dute *La Traviata* Kursaal.

ESANAK

"Konpainiaren %20 bergararrak gara, gehiengoa"

"Bukatzean nostalgia puntu bat ere izango dugu"

VALEN MOÑUX | ESZENA ZUZENDARIA

Ander Lipus | Aktorea eta zuzendaria

"Nire bizipenetatik ateratako fikziozko eta amodiozko obra da"

'Etxekoak' antzezlan ekarriko du Huts teatroak domekan Amaia antzokira

A. ARANBURUZABALA | ARRASATE

Administrazioaren trabekin eta aurreiritzien harresiekin topo egiten duen amodiozko istorioari buruzkoa da *Etxekoak*. Etzi, domeka, Arrasaten eskainiko dute, 19:30ean. Sarrerak leihatilan eta *Arrasate.eus* atarian eros daitezke, 10 eurotan.

Gustura orain arte egindakoekin? Antzerkian ederrena publikoa gerturatzen dela ikustea da; eta, momentuz, ezin gara kexatu. **Jon Gerediagari eskatu zenion zuk bizitakoak idazteko.**

Aspalditik nuen poeta eta idazle lagunarekin berriz lan egiteko gogo. Horrelako baten, nire amodiozko istorioarekin joan nintzaion. Gaur egun nire emaztea dena, kanpotarra, kubatarra da. Harekin maitemindu nintzenean sekulako oztopoak izan nituen hona ekartzeko eta horrek gogoea parada eman zidan: zergatik guk samur bidaiatu ahal dugun eta eurek ez? Nire bizipenetatik ateratako fikziozko obra da, beraz. **Maddi (Maika Etxekopar) Afrikatik etxera itzuli denean abiatzen da.** Mamadou afrikarrarekin maitemindu dela kontatu die familia-



Ander Lipus aktore eta zuzendariaren azken lana da *Etxekoak*. | ARTEDRAMA

koei etxera bueltatzen denean, eta hura ekartzeko laguntza eskatu die. Familia horretan bizi dira: amama (Kristiane Etxaluz), Goio osaba tentela (Javier Barandiaran) eta ni, hau da, osaba Imanol. Aurreiritzi asko dituzten arren, Maddiri laguntzea erabaki dute. **Familiaren ikuspuntutik kontatzeko eskatu zenion Gerediagari.** Immigrazioaren gaia nahi nuen bereziki ukitu. Traba administratiboez gainera, guztiok ditugun aurreiritziak ere gura nituen

ekarri. Familiako kide bakoitzak bere erara bizi du Maddiren maitasun istorioa. Goio super pozik dago; printzesa eta printzeen ipuin eder bat moduan ikusten

"Antzerkigintzan batzuetan arrastaka eta beste batzuetan arrakastaz ari zara"

du. Imanolentzako, berriz, dena askoz konplikatuagoa da; sarritan erabiltzen du hitz hori.

Helduentzako egindako lana da? Ez zait gustatzen gure obrak adin-ka klasifikatzea. Hezkuntza transmititzen, nire ustez, teatroa denentzako, komunitate osoarendako, egiten den zerbait da. Pentsatu eta sentitzen dugun heinean, gauza guztiak guztientzako dira.

Euskal antzerkia egiteko zure modua sortu duzu.

Egiten duzun horretan sinistea eta bide berriak zabaltzea da, nire ustez, egin behar dena, beste hainbatek ere egiten duten moduan. Siniste hori da euskarazko teatroa ere egin daitekeela eta sare bat sortu ahal dela. Zerbait eta gehiago izan, orduan eta indar handiagoa izango du euskal antzerkiaren itsasontziak. Bere garaian euskaraz eta gaztelerez egiten genuen; gaur egun, hautua egin dugu. Era berean, geografikori ere garrantzia ematen diogu; ezinbestekoa da, egongo garen moduan, Maulen, Iruñean edo Donibane Lohizunen egotea.

Baikor zara antzerkigintzak bizi duen egoeraz?

Goitibehera handi bat da hori. Batzuetan arrastaka zaude eta beste batzuetan arrakastaz. Ni positiboa naiz; gozatzen dudana ofizioa da, eta antzerkiak gizar-teari on handia egiten diola sinisten dut. Gauza askotarako balio du antzerkiak; beraz, lubakietan jarraituko du euskal antzerkiak bere tokia izan dezan.

Alvarez Eulateren beste hamaika lan ikusgai daude

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Arantzazuko basilikako beirate koloretsuen egilea izan zen Xavier Alvarez Eulateren beste hamaika lan ikusgai daude. Arantzazuko Adiskideak elkarteak eta Arantzazu Gaur Fundazioak Donostiako Santa Maria basilikarekin elkarlanean egindako erakusketa da eta apirilaren 3ra arte egongo da zabalik.

Frantziskotarrenak diren Alvarez Eulateren 600 koadro dituzte katalogatuak eta serie ezberdinetan ari dira erakusten. Hala, urtean serie bateko erakusketa bat antolatzen dute. Oraingoan, tamaina handiko hamaika koadroz osatutakoa da.

Serie horretako beste pieza batzuk, erretaula tamainakoak, Donostiako Loiola auzoan eta Lasarten daude ikusgai, adibidez. Guztietan ikusgarriena, baina, Oñatin dago, hango beneditarren komentuko elizan.

Oso gomendagarriak diren argitalpenen gida egin dute

Huheziko Haur Liburu Mintegian 25 urte daramate euskarazko produkzioa aztertzen eta baloratzen

LARRAITZ ZEBERIO | ESKORIATZA

Haur eta gazteendako irakurgai egokiak aukeratzea ez da gauza erraza. Bada, horretan dihardute azken 25 urteotan Mondragon Unibertsitateko Haur Liburu Mintegian. Hainbat liburutegitako arduradunek eta irakaskuntza munduko profesionalak hartzen dute parte mintegi horretan, eta Eskoriatzako Huhezi fakultatean egiten dituzte lan bilerak. Helburua da aurreko urtean euskaraz kaleratutako haur eta gazteen liburuak zerrendatzea, aztertzea eta baloratzea. Lan horren emaitza da Mondragon Unibertsitateak urtero kaleratzen duen Haur eta Gazte Literatura gida. Argitalpenak mintegiko kideen iritziz gomendagarriak diren liburuak jasotzen ditu, eta unibertsitatearen atari digitalean aurki daiteke pdf formatuan.

Hasieratik dihardu Haur Liburu Mintegian Oñatiko udal liburutegiko Arantzazu Ibarrondok. "Urteotan gure liburutegiek izan duten bilakaera izugarria izan



Haur Liburu Mintegiko kideak, martitzenean egindako lan bileran. | L.Z.

da, eta euskarazko liburuen produkzioak zer esanik ez! Orain 25 urte baino askoz ere gehiago kaleratzen dira", adierazi du.

Oso gomendagarrien gida

Haur Liburu Mintegian zuzenean aztertzen dute euskaraz kaleratzen den produkzioa, eta urteotan 1.600 liburutik gora gomendatu dituzte. Orain, azken hamar urtee-

tako gidak abiapuntu hartuta liburu oso gomendagarrien irakur gida argitaratu dute. 192 liburu jasotzen ditu argitalpen berriak.

Gomendatutako liburu bakoitzaren gaineko informazioa eta iruzkina jasotzen ditu gidak. Taldeak, orain, uztailean argitaratuko den irakur gida prestatzen dihardu. 2015. urteak emandako liburu onenak jasoko ditu.



'Futbolariak eta printzesak' ikuskizuneko protagonistak. | EIDABE

Neska-mutikoak parekidetasunean hezteko antzezlan domekan Aretxabaletan

L.Z. | ARETXABALETA

Eidabe Ekimeneko Jon Zubiaagak eta Olatz Pagaldaik *Futbolariak eta printzesak* ikuskizuna eskainiko dute domekan, 12:00etan, Aretxabaletako Arkupe kultura etxean. 7 eta 12 urte bitarteko neska-mutikoei zuzen-

dutako umorezko antzezlan da. Bertan, estereotipo sexistatik eta genero etiketatik ihes egiteko beharra duten bi gazte dira protagonista. Kantak, dantzak eta txotxongiloak ere baditu ikuskizunak. Sarrera hiru euro da.

Luzatu egin dute Huhezinemako Basque Culinary Sailera lanak aurkezteko epea

L.Z. | ESKORIATZA

"Otsailaren 25era luzatu dugu Basque Culinary Sailera filmak aurkezteko epea", jakinarazi dute Huhezinema film laburren jaialdiko antolatzaileek. "Oraingoz, lan gutxi jaso ditugu, eta jendeari beste aukera bat eman nahi diogu, sari potoloa baitago jokoan". Bi sari daude jokoan:

600 euroko Basque Culinary saria eta 150 euroko Ikusleen saria. Martxoaren 18an egingo dute sari banaketa Aretxabaletako Arkupe kultura etxean. Lanek ezingo dute hiru minutuko iraupena gainditu. Interesatuek *Huhezinema.com* atarian aurkituko dituzte lehiaketako oinarriak.

'GALDE GAZTE' GOIENA TELEBISTAN

Debagoieneko udalek, ikastetxeek eta Goiena Komunikazio Taldeak elkarlanean landutako egitasmoa da *Galdegazte*, 14-18 urte arteko gazteei zuzendutakoa.

Hau da hurrengo saioaren aurrerapena.

Pertika-jauzietatik telebistako platora



Ekzerretik eskuinera: Malen Ruiz de Azua (Arrasateko pertika-jauzilari), Jokin Bereziartua (aurkezlea) eta Arizmendi Ikastolako Gaztelupe guneko ikasleak diren Ainhoa Uribarren, Leire Perez eta Helene Barcenilla. | EDURNE BALTZATEGI

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Malen Ruiz de Azua Arrasateko atleta ezaguna pertikarekin *hegan* egiten erosoago sentitzen da telebista platoetan baino. Baina, urduritasunak urduritasun, gustura egon da *Galdegazte* saioan, gaztetxoek galderei erantzuten. Hasieratik utzi du argi ez dela 2016ko Rio de Janeiroko Olinpiar Jokoen beharrezko prestaketa-lan handia eskatzen du eta aurtengo Olinpiar Jokoei oso gazte harrapatzen naute". Hori bai, onartu du 2020an Tokion egotea gustatuko litzaiokeela: "Olinpiar Jokoen egotearekin ez naiz itsutuko, baina datozen lau urteak izango dira nire ibilbideko garrantzitsuenak. Horregatik, olinpiadaren baten parte hartzea aukeratu beharko banu, 2020ko Tokiokoak aukeratu nituzke", aurreratu du.

Arizmendiko Gaztelupe gunetik

Arrasateko Arizmendi Ikastolako Gaztelupe guneko Leire Perez, Ainhoa Uribarren eta Helene Barcenilla izan dira Ruiz de Azua elkarrizketatu dutenak. Hasi aurretik "oso urduri" zeudela aitortu arren, hiru ikasleendako esperientzia "oso aberasgarria" izan da herriko kirolari ezaguna elkarrizketatzeko aukera izatea. Besteak beste, Arizmendiko hiru ikasleak konturatu dira pertika-jauzilari izateak inplikazio handia eskatzen duela. Izan ere, txa-

pelketa duenean, astean bi ordu eta erdi inguru irauten duten lau entrenamendu-saio egiten ditu Ruiz de Azuak, eta gero, txapelketako proban hartzen du parte. Aste horretan proba puntuagarrikerik ez badu, bost alditan entrenatzen da astean: "Pertika-jauzirako arlo ezberdinak entrenatu behar dira; bereziki, indarra, teknika eta abiadura".

Orain arteko haren lorpen handiena izan da 2013ko martxoan Antequeran (Malaga) Espainiako errekorra ondu izana, 4,01 metroko jauziarekin. Gaur-gaurkoz, 4,10 metrotan dauka marka pertsonala atleta arrasatearrak.

Amaitzeko, Arrasateko harrobia "osasuntsu" dagoela dio Ruiz de Azuak: "Atleta gutxi gaude, baina herrian oso maila altua dago. Hori bai, kirol minorizatua da gurea, eta, beraz, atletismotik ezin da bizi", gaineratu du.



SAIOA IKUSTEKO:
GOIENA TELEBISTA

Eguaztena, otsailak 24,
22:00etan.

Intz Gomes | Arbitroa

"Arizmendiren gazte taldea arbitratzen oso gustura ibili izan naiz beti; pena da taldea desegin izana"

Intz Gomes
oñatiarra Zubikoa
kiroldegian arbitro
jantziarekin.



IRATI ELORTONDO. | OÑATI

Intz Gomes (Oñati, 1994) hamabost urterekin hasi zen arbitro lanetan. 12 eta 16 urte bitartean dituzten Debagoieneko gaztetxoak arbitratzen dihardu orain. Ingalaterrako futbola du erreferentzia.

Noiz eta zergatik hasi zinen arbitro lanetan?

Hamabost urterekin futbolearen entrenatzeari utzi nion. Baina futbola asko gustatzen zaidanez, arbitratzen hasi nintzen, probatzekotan. Orduetik hona ari naiz, zazpi denboraldi, guztira, eta oso gustura nago.

Ba al duzu erreferentziarik edo gustuko duzun arbitroren bat?

Hasi nintzenez ez nuen inongo erreferentziarik izan, probatzeko izan baitzen. Baina denbora pasa ahala hainbat arbitro ezberdin gustatzen hasi zitzaizkidan. Eduardo Iturralde Gonzalez, adibidez, asko gustatzen zait, baita Alberto Undiano Mallenco ere. Orain, Ingalaterrako futbol asko ikusten dut, bertako arbitroen estiloa nirearekin parekatzen baitut askotan, beti izan baitut arbitratzeko orduan ingelesek izan ohi duten estilo bera.

Nola sentitzen zara zelaira irteten zaren bakoitzean?

Partidu bat jokatzearekin alderatzen dut nik askotan, adi egon behar dut beti, akatsik ez egiten saiatu behar dut, eta horretan ere pentsatzen dut. Azken finean, akats handi bat eginda kritika asko jaso ditzakezu eta edozein pertsona etor daiteke kritika horiek esatera. Hori ez gertatzeko, ondo prestatu beharra dago beti. Akatsa txikia bada, txisturen bat edo jaso dezaket, baina gehiago larritzen naiz akats handiren bat egindakoan. Ez da beharrezkoa arbitroaren akatsagatik zerbait gertatzea; partiduan zehar edozein arazo jazoko balitz, nik ere adi egon behar dut horretarako.

Ze talde arbitratu izan duzu gehien? Ze adin izan ohi dute?

Debagoienean arbitratzen dihardut, eta Mondra eta Arizmendi dira gehien arbitratu izan ditudan taldeak; haien etxean, batez ere. Adinari dagokionez, 12 eta 16 urte bitarteko gaztetxoaren partiduak arbitratzen ditut gehien.

Ba al duzu talde gogorik arbitratzeko orduan?

Bai, badut, Arizmendiren gazte taldea arbitratzen oso gustura ibili izan naiz beti. Oso ondo moldatu izan naiz haiekin beti,

brometan ibiltzen gara askotan, eta, arazoei dagokionez, ez dut inoiz inolako trabarik izan. Pena da, abenduan taldea desegin egin baitzen eta ezin izango baitut aurrerantzean haien partidurik arbitratu.

Partidua amaitutakoan zerbait oker egin baduzu, luze pentsatzen al duzu horretan ala ez zara damutzen?

Bai, damutzen naiz. Batzuetan, partiduren baten akats larriren bat edo egin badut, aste osoan zehar umore oso txarrarekin egoten naiz. Horrez gain, akatsik gabe partiduren bat arbitratu izan dudanean, umore oso onarekin egoten naiz, eta hori ere ez dut burutik kentzen.

Zein da arbitratu duzun partidurik onena edo espezialena?

Azken sailkatuen arteko taldeen partiduak arbitratzea gustatzen zait. Oso gogorrak dira, beharrezkoa zaie biei irabaztea. Gol asko sartu ohi dituzte, falta gehiago egon ohi dira, denetarik gerta daiteke bertan, eta, nire ustez, kategoria guztietan egoten diren partidurik onenak izan ohi dira.

Arbitro lanez gain, *El Conquistador del Fin del Mundo*-ko casting-ean izena eman zenuen; nolako izan da esperientzia?

Hiru urte daramatzat *casting*-era apuntatzen eta aurten ere apuntatzeko asmoa daukat. Ez dakit denborarik izango dudana, baina bideo *casting*-a, behintzat, egingo dut. Horrela jarraituko dut, parte hartzeko aukera izan arte.

Non ikusten duzu zure burua hementik urte batzuetara?

Leku berean egongo naizela uste dut. Arbitroak kategoriaz igotzea ez da futbol jokalariekin bezala gertatzen, Hirugarren Mailatik Lehen Mailara pasatzeko aukera izan dezakete bi edo hiru urtetan. Nire kasuan, urtero-urtero kategoria bat igo beharra dut, ezin ditut bat-batean bi kategoria igo.

PERTSONALA

Futbol talde bat: Real.

Zelai gogokoena: Ipurua.

Partidu bat: Aurreko astean Manchester Cityk eta Leicester Cityk jokatuakoa.

Arbitratzeko leku bat: Mojategi.

Programa bat: *El Conquis*.

Film bat: *Steve Jobs*.

Janari bat: Pizza.

Bizitzeko leku bat: Amsterdam.

Txokorik gogokoena: Arranoaitz.

ZORION AGURRAK



ARRASATE
Luken Ugarteburu eta Eder Luengo
Ederrek otsailaren 23an, 9 urte eta Lukenek martxoaren 2an, 15 urte. Zorionak eta muxu handi-handi bat etxeko guztien partetik, bereziki Aisharena eta Kairena.



BERGARA
Ane Alberdi Sanz
Otsailaren 23an, 7 urte. Zorionak, Ane! Ondo pasatu zure urtebetetze egunean. Muxu handi bat familia guztiaren partetik.



ARRASATE
Miren Ugarte Moron
Otsailaren 22an, 6 urte. Zorionak, laztana! Oso-oso ondo pasatu zure eguna. Etxeko denon partetik, musu handi bat.



OÑATI
Maialen eta Ander Altzelai Santa Cruz
Anderrek otsailaren 18an, 12 urte eta Maialenek 22an, 10 urte. Zorionak bixoi! Egun politt-politta igaro eta patxo handi bana, familixakuen partetik!



ANTZUOLA
Ekhi Cabo Mundiñano
Otsailaren 22an, 6 urte. Zorionak, *mosketero!* Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Muxu handi bat, etxeko partetik.



ANTZUOLA
Aiala Zabalo Garcia
Otsailaren 21ean, 4 urte. Zorionak, *poxpolintxo!* Patxo handi bat Udaneren eta etxeko partetik. Aprobetxatu gaur txokolate pila jateko!



OSINTXU
Xabat Arando Albelaiz
Otsailaren 21ean, 2 urte. Zorionak, *bixito!* Ondo-ondo pasatu eguna, etxeko danon baina, bereziki, Maddiren partetik. Muxu potolo bat.



OÑATI
Iker Egaña Igartua
Otsailaren 21ean, 44 urte. Zorionak, tio Iker. Zu ere ez zara gure besarkada potoloaz libratuko. Jarraitu zaren bezalako izaten. Maite zaitugu. Uxue, Joanes eta Kepa.



ARRASATE
Paula Loiti Kortabarria
Otsailaren 21ean, urtebetetzea. Zorionak etxeko guztien eta, bereziki, Alaitzen, Pauloren eta Gaizkaren partetik.



ARRASATE
Maider Irazola Mungia
Otsailaren 20an, 10 urte. Zorionak, Maider! 10 urte horreik ospatzeko die! Asko disfrutatu zure egunien, familixa osuaz. Muxu asko, danon partetik!



BERGARA
Ander Ilarduia Arteaga
Otsailaren 20an, 4 urte. Gogotsu gare danok etxeko bitxuenaren 4 urtiak ospatzeko. Patxoka jango zaitzugu, polit hori!



BERGARA
Iker Perez Mazan
Otsailaren 19an, 7 urte. Zorionak zure urtebetetzean! Musu handi-handi bat zuretzat eta ondo pasatu eguna. Segi horrela, gure txapelduna! Naia, ama eta aita.



BERGARA
Nora Perez Zabaleta
Otsailaren 19an, 3 urte. Hiru urtetxo jada; zorionak, txapelduna! Patxo handi bat etxeko guztien eta, bereziki, Iratiren, Eriken, Eleneren, Jurgiren eta Aneren partetik.



OÑATI
Julen Irizar Azkune
Otsailaren 19an, urtetxo bat! Zorionak, pitxintxo! Ondo-ondo pasatu eguna eta patxo potolo bat, etxeko danen partetik!



ARETXABALETA
Aner Gonzalo Amado
Otsailaren 19an, 6 urte. Zorionak, Aner! Familia osoaren partetik, ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Muxu handi bat, txapeldun!



OÑATI
Ismael Egaña Igartua
Otsailaren 19an, 40 urte. Zorionak, tio Isma. Belarrik tira egiteko urte gehiegi dira (kar, kar) baina gure besarkada potoloaz ez zara libratuko! Uxue, Joanes eta Kepa.



BERGARA
Maialen eta Ariane Quintas Ruiz
Otsailaren 19an, urtebete. Zorionak printzesak! Muxu pila etxeko partetik!



ARRASATE
Paula Manjon Vicente
Otsailaren 18an, 5 urte. Zorionak gurasoen eta ahizpa Ainararen partetik!



ARRASATE
Danel Gonzalo Maria
Otsailaren 18an, 9 urte. Zorionak, pittin! Oso ondo pasatu zure eguna. Patxo potolo bat etxeko partetik. Asko maite zaitugu.



ANGIOZAR
Markel Larrañaga Gallastegi
Otsailaren 18an, urtebete. Zorionak, potxolo! Segi beti bezain alai. Patxo handi bat aitaoren eta amatxoren partetik.



ARRASATE
Chana Delgado
Otsailaren 18an, 50 urte. Anai-arreben eta amaren partetik, zorionak! 50 urteak ondo-ondo ospa ditzazula!



ESKORITATZA
Oihane Gorosarri Zuazubiskar
Otsailaren 17an, 2 urte. Zorionak, printzesa! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunean eta muxu potolo bat etxeko danon partetik. Mua!



ARETXABALETA
Danel Lopez Fernandez
Otsailaren 17an, 5 urte. Zorionak, Danel! Ondo pasatu zure urtebetetze egunean eta muxu pila bat etxeko danon partetik. Maite zaitugu, pitxin!



OTXANDIO
Haizea eta Bidatz Larragoiti Ibabe
Otsailaren 17an, 11 urte. Zorionak eta muxu handi bat familiaren partetik. Ondo pasatu eguna!



ARETXABALETA
Doltza Lizarriturri Etxenausia
Otsailaren 16an, 7 urte! Urte askotarako, Doltza! Patxo handi bana Araitzen, Eleneren eta Paulen partetik. Ondo pasatu.



OÑATI
Irati Pelayo Osa
Otsailaren 16an, 8 urte. Zorionak, maittia! Ondo pasatu zure urtebetetzia. Muxu handi bat, etxeko danon partetik.



ARETXABALETA
Mikel Sanchez
Otsailaren 16an, 29 urte. Zorionak, aita! Oso-oso ondo pasatu eguna! Asko-asko maite zaitugu. Amatxo eta Joel.



ESKORITATZA
Naroa Jara Moya
Otsailaren 16an, 6 urte. Zorionak, txiki! Ondo-ondo pasatu zure eguna. Besarkada handi bat, familia osoaren partetik!



ARRASATE
Martin Aldekoa Unzueta
Otsailaren 15ean, 3 urte. Zorionak, Martin, etxeko denon partetik! Jarraitu gure bizitzak alaitzen!



ARETXABALETA
Olatz Maidagan eta June Guenetxea
Olatzek otsailaren 13an eta Junek otsailaren 15ean. Biek 11 urte! A ze para! Zorionak, bikote! Ondo-ondo pasatu zuen urtegunean eta muxu handi bana!



OÑATI
Aimar eta Itziar Murgiondo Murillo
Otsailaren 15ean, 4 urte. Zorionak, bikote! Musu asko etxeko partetik eta ondo pasatu zuen urtebetetze eguna!



BERGARA
Mara de Goñi Campos
Otsailaren 15ean, 4 urte. Zorionak, pitxintxo! Ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta muxu potolo bat etxeko eta, bereziki, Noaren partetik.



OÑATI
Maren Larranaga Urzelai
Otsailaren 12an, 3 urte. Zorionak, maittia! 3 urtetxo jada! Patxo erraldoi bat, etxeko danon partetik!



ARRASATE
Andde Dominguez
Otsailaren 12an, 4 urte. Zorionak, laztana! Maite zaitugu! Patxo asko, etxeko guztien partetik!



OÑATI
Aner eta Jorge
Anerrek otsailaren 11n, bi urtetxo eta aitaok otsailaren 12an... urte asko! Zorionak bixoi! Patxo familiaren eta, bereziki, Aimarren partetik!



ARRASATE
Ekain Kortabarria Gonzalez
Otsailaren 11n, 5 urte. Gure etxeko superheroiarendako zorionik beroena! Muxu eta besarkada handi bat, maite zaitugunon partetik!



ARRASATE
Miren Zabala Miguelez
Otsailaren 11n, 4 urte. Zorionak, Miren, etxeko danon partetik!



ELGETA
Unax, Itxaso eta Iratxe
Zorionak, hirukote! Otsailaren 11n, 20an eta 14an betetzen dituzue urteak! Ondo-ondo pasatu, etxeko partetik.



BERGARA
Ander Godoy Iglesias
Otsailaren 10ean, 11 urte. Zorionak, txapeldun! 11 urte! Ondo pasatu zure eguna, muxu handi bat eta 11 belarri tirakada, zure lagunaren partetik. Jokin.



ARETXABALETA
Agate Etxebarria Zabala
Otsailaren 6an, urtebete. Zorionak, *pirrintxito!* Pila bat maitxe zaitugun etxeko danon partetik! Zelako egun politxa izan zan 2016ko otsailaren 6xa!



ARRASATE
Elene Kortabarria Aranzabal
Otsailaren 14an, 5 urte. Zorionak, pitxin! Gure San Balendin eguneko oparirik polittiena! Muxu eta besarkada bero-beroa, maite zaitugunon partetik!

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak. Hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

Internet
Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <http://goiena.eus/zorionagurrak> helbidean sartu zorion agurra. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.
Posta elektronikoa
Mezua bidali zorionagurrak@goiena.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.
Ordezkaritzak
Etor zaituz Goienaren ordezkartzaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Martitzeneko 17:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

ASTEAGOIENAN



Arrasate ezagutzeko aukera, saio berrian

MUko Ikus-Entzunezko Komunikazioko laugarren mailako ikasleek ekoiztutako saio berrian, egunean, Arrasate eta kooperatibagintzari eta Arrasate eta euskarari buruzko azalpenak emango dituzte hainbat protagonistak. **'Arrasate ezagutzera nator'** Eguena, 22:00



Aretxabaletako Kantariko atal berriak

Zapatuan Aretxabaletan grabatutako Kantari karaoke ikusizuneko bi saio berri estreinatuko dira; bata 10:30ean eta bestea 16:30ean. Domekan eta asteazkenean zehar saio horien errepikapenak eskainiko dira. Ikus ordutegiak beheko taulan. **'Kantari'** Zapatua, 10:30

GOIENA TELEBISTA

EGUBAKOITZA, 19	ZAPATUA, 20	DOMEKA, 21	ASTELEHENA, 22	MARTITZENA, 23	EGUAZTENA, 24	EGUENA, 25
12:00 Debagoiena zuzenean	10:00 Korapilo	10:00 Korapilo	12:00 Debagoiena zuzenean	12:00 Debagoiena zuzenean	12:00 Debagoiena zuzenean	12:00 Debagoiena zuzenean
12:30 Aramaio ezagutzera nator!	10:30 Kantari	10:30 Kantari	13:00 Korapilo	12:30 Harmailatik	12:30 Begiradak, dantza ikuskizuna	12:30 Galdegazte
13:00 Korapilo	11:00 Debagoiena zuzenean	11:00 Galdegazte	13:30 Debagoiena zuzenean	13:00 Sagarrondotik	13:30 Muga barik	13:00 Sagarrondotik
13:30 Galdegazte	12:00 Astea iruditan	11:30 Amaia DJ	14:30 Berriak	13:30 Kantari	14:00 Debagoiena zuzenean	13:30 Kantari
14:00 Debagoiena zuzenean	12:05 Aramaio ezagutzera nator!	12:00 Dokumentala: Beltzean mintzo	15:00 Amaia DJ	14:00 Debagoiena zuzenean	14:30 Berriak	14:00 Debagoiena zuzenean
14:30 Berriak	13:00 Galdegazte	13:00 Debagoiena zuzenean	15:30 Onein	14:30 Berriak	15:00 Begiradak, dantza ikuskizuna	14:30 Berriak
15:00 Zaindu zaitez	13:30 Onein	13:55 Astea iruditan	16:00 Debagoiena zuzenean	15:00 Harmailatik	16:00 Zaindu zaitez	15:00 Galdegazte
15:30 Onein	14:00 Ikusi irratia	14:00 Aramaio ezagutzera nator!	16:30 Berriak	15:30 Onein	16:30 Berriak	15:30 Onein
16:00 Debagoiena zuzenean	15:00 Debagoiena zuzenean	14:30 Onein	17:00 Ikusi irratia	16:00 Debagoiena zuzenean	17:00 Kontzertua: Zartada	16:00 Debagoiena zuzenean
16:30 Berriak	16:00 Astea iruditan	15:00 Zaindu zaitez	18:00 Zaindu zaitez	16:30 Berriak	18:00 Geure altxorak	16:30 Berriak
17:00 Hurbilean	16:05 Aramaio ezagutzera nator!	15:30 Galdegazte	18:30 Berriak	16:30 Berriak	18:25 Zorion Agurrak	17:00 Ikusi irratia
17:30 Ur eta lur	16:30 Kantari	16:00 Amaia DJ	19:00 Kantari	17:00 Sagarrondotik	18:30 Berriak	18:00 Ur eta lur
18:00 EKT	17:00 Korapilo	16:30 Kantari	19:30 Amaia DJ	17:30 Geure altxorak	19:00 Begiradak, dantza ikuskizuna	18:30 Berriak
18:25 Zorion Agurrak	17:30 Amaia DJ	17:00 Korapilo	20:00 Debagoiena zuzenean	18:00 Hurbilean	19:30 Muga barik	19:00 Korapilo
18:30 Berriak	18:00 Galdegazte	17:30 Debagoiena zuzenean	20:30 Berriak	18:30 Berriak	20:00 Debagoiena zuzenean	19:30 Galdegazte
19:00 Kantari	18:30 Aramaio ezagutzera nator!	18:25 Astea iruditan	21:00 Debagoiena zuzenean	19:00 Korapilo	20:30 Berriak	20:00 Debagoiena zuzenean
19:30 Aramaio ezagutzera nator!	19:00 Debagoiena zuzenean	18:30 Aramaio ezagutzera nator!	21:30 Berriak	19:30 Harmailatik	21:00 Debagoiena zuzenean	20:30 Berriak
20:00 Debagoiena zuzenean	19:55 Astea iruditan	19:00 Dokumentala: Beltzean mintzo	22:00 Harmailatik	20:00 Debagoiena zuzenean	21:30 Berriak	21:00 Debagoiena zuzenean
20:30 Berriak	20:00 Kantari	20:00 Kantari	22:30 Debagoiena zuzenean	20:30 Berriak	22:00 Galdegazte	21:30 Berriak
21:00 Debagoiena zuzenean	20:30 Galdegazte	20:30 Debagoiena zuzenean	23:00 Berriak	21:00 Debagoiena zuzenean	23:00 Berriak	22:00 Arrasate ezagutzera nator!
21:30 Berriak	21:00 Begiradak, dantza ikuskizuna	21:25 Astea iruditan	23:30 Amaia DJ	21:30 Berriak	23:30 Harmailatik	22:30 EKT
22:00 Amaia DJ	21:30 Hurbilean	21:30 Galdegazte	00:20 Debagoiena zuzenean	22:00 Begiradak, dantza ikuskizuna	23:30 Begiradak, dantza ikuskizuna	23:00 Debagoiena zuzenean
22:30 Debagoiena zuzenean	22:00 Debagoiena zuzenean	22:00 Begiradak, dantza ikuskizuna	00:50 Berriak	22:30 Debagoiena zuzenean	00:00 Debagoiena zuzenean	00:30 Debagoiena zuzenean
23:00 Berriak	22:55 Astea iruditan	22:30 Amaia DJ	01:20 Harmailatik	00:00 Debagoiena zuzenean	00:30 Berriak	01:00 Berriak
23:30 Aramaio ezagutzera nator!	23:00 Dokumentala: Beltzean mintzo	23:00 Amaia DJ		00:30 Berriak		
00:00 Debagoiena zuzenean	00:00 Kontzertua: Zartada	23:55 Astea iruditan		01:00 Muga barik		
00:30 Berriak	00:20 Aramaio ezagutzera nator!					
	00:50 Galdegazte					
	01:00 Amaia DJ					

ARRASATE IRRATIA

Sorkun eta El Drogas zuzenean ikusteko sarrerak zozketan

Elgetako Espaloian izango da El Drogas hilaren 27an, 21:30ean, eta egun berean Oñatiko gaztelekuan izango da Sorkun, 22:30ean, kontzertua eskaintzen. Bi emanaldi horietara joateko sarrerak lortu nahi izanez gero, deitu 943 25 05 05era edo idatzi irratia@goiena.eus helbidera. Zorte on!

Euskaltzetasunari buruzko dokumentua berbetagai izango da

Berrikusi eta berrikusi dokumentua euskaltzetasunaren azken hamarkaden irakurketa kritiko bat da eta horixe aurkeztuko dute bihar, zapatua, Kulturaren 10:00etan. Bertan egingo diren gogoeten berri emango du astelehenean, 11:00etan, irratian, AEDko dinamizatzaile Itxaro Artolak.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE			
Egubakoitza, 19	M.FCA. AZKOAGA	Iturriotz 17	943 79 79 99
Zapatua, 20	FERNANDEZ	Maisu Aranbarri kalea, 1	943 79 22 26
Domeka, 21	IRIZAR	Erguin, 11	943 79 12 39
Astelehena, 22	AMEZUA	Sta. Marina, 32	943 79 09 74
Martitzena, 23	ESPAÑOL MORALES	Araba Etorb., 14	943 79 18 65
Eguaztena, 24	RUIZ	Nafarroa Etorb., 1	943 79 14 09
Eguena, 25	ETXEBERRIA	Zarugalde kalea, 38	943 77 16 30
BERGARA			
Egubakoitza, 19	ZABALA	Barrenkale, 25	943 76 16 87
Zapatua, 20	OIARBIDE	San Antonio, 5	943 76 11 05
Domeka, 21	OIARBIDE	San Antonio, 5	943 76 11 05
Astelehena, 22	ESTELLA	Matxiategi 5	943 76 19 63
Martitzena, 23	ALVAREZ MOZOS	Iparragirre, 2	943 76 12 15
Eguaztena, 24	URRUTIKOETXEA	Orixondo plaza 4	943 76 11 74
Eguena, 25	ZABALA	Barrenkale, 25	943 76 16 87
OÑATI			
Egubakoitza, 19	ANDUAGA	San Lorenzo 3	943 78 21 16
Zapatua, 20	ANDUAGA	San Lorenzo 3	943 78 21 16
Domeka, 21	ANDUAGA	San Lorenzo 3	943 78 21 16
Astelehena, 22	IGARTUA	Kale Zaharra 1	943 78 01 22
Martitzena, 23	IGARTUA	Kale Zaharra 1	943 78 01 22
Eguaztena, 24	GARATE	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Eguena, 25	GARATE	Kale Barria, 42	943 78 05 58

Gipuzkoako farmaziak eskuko telefonoz izateko, bidali FARMA 215800 zenbakira. Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera, (www.cofijuzkoa.com).

EGURALDIA ASTEBURUAN

DEBAGOIENA



Max. 11°
Min. 3°



Max. 11°
Min. 3°


ZAPATUA, 20

Hobera egingo du; hodei gutxiago egongo dira, ostarteak zabalduko dira noizbehinka eta tenperatura igo egingo da.

DOMEKA, 21

Zapatuan baino laino gehiago egongo dira eta ez da urdingunerik zabalduko, nahiz eta tenperaturari eutsi egingo dion.

EUSKAL HERRIA



Goiz partean baliteke Arabako eta Nafarroako zenbait lekutan izotza egiteko arriskua egotea.

GAZTE INFORMAZIOA

LANA

Goi mailako teknikariak. Bizkaiko Foru Aldundia. Lan beharrik asetzeko lan poltsa osatu gura da. Baldintzak: Industria Ingeniaritza, Industria Antolakuntzako Ingeniaritza edo Industria Antolakuntzaren Ingeniaritzako Gradua gehi unibertsitate masterra. Epea: martxoak 9.

Gaztelaniako irakurleak.

Kanpo Harremanetarako Ministerioa. Baldintzak: Doktoretza, Masterra, Lizentzia edo Gradua arlo hauetako batean: Filologian, Linguistikan, Literaturaren Teorian, Itzulpen gintza eta Interpretazioan edo Humanitateetan; prestakuntza espezifikoa, irakaskuntza lanbide esperientzia; eskatutako herrialdeko hizkuntza ofiziala jakitea; 37 urte baino gutxiago. Epea: martxoak 2.

BEKAK

Europar bidaiatu. Schwarzkopf Fundazioa. Alemanian, Grezian edo Internaila lortzeko laguntzak 18 eta 25/26 urte bitarteko gazteentzat. Epea: martxoak 1.

Ikerketak Alemanian. Eisntein Forum, Daimler and Benz Foundation. Baldintzak: 35 urte baino gutxiago, unibertsitate titulazioa: Humanitateak, Gizarte Zientziak edo Natura Zientziak. Azken eguna izango da: apirilak 15.

Arte sorkuntza. Zarauzko Udala. Daniel Txopitea sorkuntza beka, arlo hauetan: marrazketa, pintura, eskultura, argazkigintza, zinea, bideoa, diseinu grafikoa, moda diseinua, artiherialdeko hizkuntza ofiziala jakitea; 37 urte baino gutxiago. Epea: martxoak 2.

INFORMAZIO GEHIAGO NAHI IZANEZ GERO: Arrasateko Gazte Bulegoa: Biteri etorbidea 3 | 943 25 20 65 | gaztebulegoa@arrasate.eus Oñatiko Gazteendako Informazio Gunea: Foruen plaza 4 | 943 71 82 57 | gazteinformazioa@oinati.net



URTEURRENA

**Andres
Alcelay Solana**

Maite Mayoren alarguna



2015eko otsailaren 16an hil zen, 89 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan izango da, otsailaren 21ean, 12:00etan,
Bergarako Santa Marina parrokian.*Zure irudia, hitzak eta maitasuna
gurekin ditugu beti.
Urrun egon arren, alboan zaitugu.*Elizkizunetara joango zaretenoi, eskerrik asko, sendikoen izenean.
Bergaran, 2016ko otsailaren 19an.

URTEURRENA

**Julia
Barrutiabengoa Ecenarro**

2015eko martxoaren 1ean hil zen, 99 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan izango da, otsailaren 21ean, 12:00etan,
Bergarako Santa Marina parrokian.Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Bergaran, 2016ko otsailaren 19an.

URTEURRENA

**Felix
Loidi Astigarraga**

2015eko otsailaren 27an hil zen, 94 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, otsailaren 21ean, 12:00etan,
Bergarako Santa Marina Eliza Nagusian.Aurrez eskerrik asko, bertaratuko zareten guztioi.
Bergaran, 2016ko otsailaren 19an.

HILDAKOAK

Pedro Etxabe Garai. Arrasaten, otsailaren 13an. 92 urte.**Jose Ramon Mondragon Zubizarreta.** Arrasaten, otsailaren 13an. 73 urte.**Jose Inazio Aperribai Maiztegi.** Bergaran, otsailaren 14an. 68 urte.**Juan Alcaide Jimenez.** Aretxabaletan, otsailaren 15ean. 88 urte.**Nieves Mendibil Aiausti.** Bergaran, otsailaren 15ean. 84 urte.**Maria Rosario Alberdi Barrena.** Aretxabaletan, otsailaren 15ean. 91 urte.

ESKER ONA

**Pedro
Etxabe Garai**

Patricia Igarzaren alarguna



2016ko otsailaren 13an hil zen, 92 urte zituela.

Momentu hauetan sentitu dugun hurbiltasun eta maitasunagatik,
guztioi mila esker.Seme-alabak eta bilobak.
Arrasaten, 2016ko otsailaren 19an.

ESKER ONA

**Nieves
Mendibil Ayastuy**

Alberto Fernandez Garciaaren alarguna



2016ko otsailaren 15ean hil zen, 84 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi,
hiletara etorri eta gurekin egon zineten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana familiaren izenean.

Bergaran, 2016ko otsailaren 19an.

OROILORE

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

*Doluminaren sentimenduak eta emozioak bideratzeko, nire lana egoera kuttun batean zuekin egotea da.
Azken agurrean maitasunez agurtu ditzagun hainbeste maite ditugunak.**Heriotza-asegurua baduzu: Ez onartu besterik gabe zure aseguru-konpainiak esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu:
NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua AUKERA DEZAKEZULA BETI.*maribi 617 44 21 55
BERGARA

ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05

edo eskelak@goiena.eus► Hileta egunean eskela Goiena.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Goiena Paperean
eta Goiena.eus-en: 160 € / Goiena Klubeko bazkideendako 142 €► Eskela mota guztiak Goiena Paperean + Goiena.eus-en: 140 € / Goiena Klubeko
bazkideendako 125 €

Goiena: irakurriena Debagoienean.

ASTE BARRUAN, BAITA ERE:

ARRASATE Goiena: Otarora Lizentziaduna 31. 943 25 05 05.

BERGARA Jardun elkarte: Errotalde (kultura etxean). 943 76 08 19.

OÑATI Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.

ELGETA Ugari janari denda: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98.

ANTZUOLA Itzar liburu-denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.



ZINEMA

ARRASATE

AMAIA ANTZOKIA

Joy
Zapatua: 19:30.
Astelehena: 20:30.

Alvin y las ardillas
Zapatua: 17:00.

OÑATI

KULTURA ETXEA

El renacido
Egubakoitzetik eta zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

Alvin y las ardillas
Zapatua eta domeka: 17:00.

ARETXABALETA

ARKUPE

Palmeras en la nieve
Egubakoitzetik eta zapatua: 22:00.
Domeka: 19:30.
Astelehena: 16:30.

Carlitos y Snoopy
Zapatua eta domeka: 17:00.

EIBAR

COLISEO

Carol
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30.

Domeka: 17:00, 20:00.
Astelehena: 20:30.

Deadpool
Zapatua eta domeka: 17:00.
Astelehena: 20:30.

Embarazados
Zapatua: 19:45.

El renacido
Zapatua: 22:30.
Domeka: 20:00.

ANTZOKIA

Deadpool
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.

Zootropolis
Zapatua eta domeka: 17:00.

GASTEIZ

BOULEVARD

Deadpool
Zapatua: 23:30, 00:30.
Egubakoitzetik eguenera: 17:45, 19:00, 20:00, 21:15, 22:15.
Zapatua eta domeka: 15:30, 16:45.

Ave, Cesar
Zapatua: 00:45.
Egubakoitzetik eguenera: 18:00, 20:15, 22:30.
Zapatua eta domeka: 15:45.

El renacido
Zapatua: 23:30.
Egubakoitzetik eguenera: 17:30, 19:00, 20:30, 22:00, 22:30.
Zapatua eta domeka: 16:00.

Zoolander
Zapatua: 00:40.
Egubakoitzetik eguenera: 20:20, 22:30.

Zootropolis
Egubakoitzetik eta zapatua: 17:30, 19:40.

Zapatua eta domeka: 17:00, 19:15.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 18:00, 19:40, 20:15.

Mejor...solteras
Zapatua: 00:30.
Egubakoitzetik eguenera: 17:45, 20:00, 22:15.
Zapatua eta domeka: 15:30.

La verdad duele
Zapatua: 00:35.
Egubakoitzetik eguenera: 19:45, 22:10.

Palmeras en la nieve
Egubakoitzetik eta eguaztena: 21:50.
Zapatua eta domeka: 21:30.

Creed, la leyenda de Rocky
Egubakoitzetik domeka: 19:40, 22:20.
Astelehena, eguaztena eta eguena: 19:40.
Eguaztena: 19:40, 22:20.

Pesadillas
Egubakoitzetik eguenera: 17:40.
Zapatua eta domeka: 15:30.

Alvin y las ardillas
Egubakoitzetik eguenera: 17:45.
Zapatua eta domeka: 15:45.

Embarazados
Zapatua eta domeka: 15:30.

La quinta ola
Egubakoitzetik eguenera: 18:00.
Zapatua eta domeka: 15:40.

La chica danesa
Egubakoitzetik domeka eta eguaztena: 22:30.

Spotlight
Astelehena, eguaztena eta eguena: 22:00.

Truman
Astelehena, eguaztena eta eguena: 22:30.

Carol
Astelehena, eguaztena eta eguena: 22:20.

FLORIDA

El renacido
Egubakoitzetik domeka: 18:40, 21:35.
Astelehenetik eguenera: 17:00, 20:00.

Zootropolis
Egubakoitzetik eta zapatua: 16:40, 18:30.
Zapatua eta domeka: 12:00, 16:40, 18:30.
Astelehenetik eguenera: 19:00.

La ley del mercado
Egubakoitzetik eguenera: 17:30.

La verdad duele
Egubakoitzetik domeka: 17:30, 22:30.
Astelehenetik eguaztena: 20:15.

La juventud
Egubakoitzetik domeka: 20:00.
Martitzenetik eguenera: 20:00.

Zoolander 2
Egubakoitzetik eta zapatua: 16:30.
Zapatua eta domeka: 12:00, 16:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30.

El mal que hacen los hombres
Egubakoitzetik domeka: 18:30, 20:30.
Astelehenetik eguenera: 20:00.

La chica danesa
Egubakoitzetik

domeka: 22:30.
Astelehena, martitzena eta eguena: 20:00.

Carol
Egubakoitzetik domeka: 17:30, 20:00.
Astelehenetik eguenera: 17:30.

Spotlight
Egubakoitzetik domeka: 22:30.
Astelehena, eguaztena eta eguena: 20:15.

Ave, Cesar
Egubakoitzetik domeka: 16:30, 20:30, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:00, 21:00.

Deadpool
Egubakoitzetik domeka: 17:30, 20:00, 22:30.
Astelehena, eguaztena eta eguena: 17:30, 20:15.
Martitzena: 17:30.

La corona partida
Egubakoitzetik domeka: 20:00, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30.

El gran día (euskaraz)
Zapatua eta domeka: 12:00.

Alvin y las ardillas
Zapatua eta domeka: 12:00.

Pesadillas
Zapatua eta domeka: 12:00.



ARRASATE Verdiren 'Rigoletto' opera

Giulio Boschetti baritonoa, Sonia Bellusi sopranoa, David Baños tenorea, Tihomir Androlov baritonoa eta Lillian Mattei mezzo-sopranoa izango dira protagonista nagusiak. Plevengo (Bulgaria) Orkestra Sinfonikoak ipiniko du musika. Otsailaren 24an, Amaian antzokian, 20:00etan.

MUSIKA

OÑATI Mor More taldea

Euskal Herriko gaztetxeen eta gazte asanbladen topaketen hari- ra kontzertua egingo du laukote zarauztarrak. Sarrera, doan. Gaur, egubakoitzetik, gaztetxean, 23:00etan.

ARRASATE Perliata taldea

Rock-and-roll doinuak lantzen ditu Arrasateko taldeak. Doako emanaldia izango da. Bihar, zapatua, Iluntz tabernan, 19:00etan.

OÑATI Trikimailu, Fiachras, Pelax & Cowboys, Orchestra eta Dekot

Euskal Herriko gaztetxeen eta gazte asanbladen topaketen hari- ra kontzertua egingo dute. Sarre- raren prezioa, zehaztu barik. Bihar, zapatua, azoka plazan, 21:00etan.

OÑATI Mara-Mara

Luis Vilek, Juncal Altzugarai- k eta Igor Artzuagak osatzen dute taldea. Doako emanaldia. Bihar, zapatua, gaztetxean, 22:00etan.

BERGARA Anari

Zure aurrekari penalak diskoaren aurkezpen birako emanaldia egin- go dute. Sarrerak, bost euro. Bihar, zapatua, gaztetxean, 23:00etan.

BERGARA Pedro Guallar Otazua

San Pedro parrokiaren dagoen Stoltz-Freres organoaren konpon- ketarako dirua batzeko kontzer- tua. Sarrerak, bost euro. Etzi, domeka, Santa Marinan, 19:00etan.

ANTZERKIA

ARETXABALETA 'Futbolariak eta printzesak'

Parekidetasunean eta berdinta- sunean hazteko eta hezteko antze- lana egingo dute Eidabe taldekoek. Olatz Pagaldai eskoriatzarra eta Jon Zubiaga arrasatearra dira protagonistak. Sarrerak, hiru euro. Etzi, domeka, Arkupen, 12:00etan.

ANTZUOLA 'Zirriborro'

5 urtetik gorako umeendako ema- naldia Badut taldearekin. Bihar, zapatua, Torresoroan, 18:00etan.

ESKORIATZA 'Suerte'

Txaro Gallego aretxabaletarraren antzezlan. Maitasuna, desioa,

oroitzapenak, zahartzarua eta beste hainbat kontu izango ditu oinarri bakarrizketak egiteko orduan. Etzi, domeka, Zaldibarren, 19:00etan.

ERAKUSKETAK

ESKORIATZA Karmelo Oñate

Arroila jaitsierekin, alpinismoa- rekin eta eskiarekin lotutako 30 marrazki ipini ditu Inkernu eta Hotela tabernetan. Hilaren 29ra arte, aipatutako lekuetan.

OÑATI Anfibiaok

Txantxiuak, lupuak, ugara- txuak... anfibioen sekretuak dela- ko erakusketa zabalduko dute hilaren 22an, Ingurumen Astea- ren barruan. Martxoaren 6ra arte, kultura etxean.

ARRASATE Arbolapeta eta Muzibar arteko kalea berrantolatze- ko aukerak

Otalora Lizentziaduna kalea berrantolatze- ko 21 proposamen ipini dituzte ikusgai. Udalaren webgunean ere ikusgai daude plano guztiak. Otsailaren 18ra arte, Kulturaren.

BERGARA Isidro Monzonen arkitektura

Hainbat argazkiz, marrazkiz eta planoz osatutako erakusketa da. Monzonek bere eraikinak pai- saian nola txertatu zituen era- kusten du. Martxoaren 13ra arte, Laboratorio museoan.

BERGARA 'Amama' erakusketa

Asier Altunaren pelikularekin gai- neko erakusketa. Filma egin duen taldeko kideek egindako lanak egongo dira ikusgai; besteak bes- te, argazkiak, bideoak edota gidoi- ko sekuentziak. Otsailaren 28ra arte, Aroztegin.

ARETXABALETA 'Elkarlanean gizarteratzen'

Gu Haziak Gara elkartearen era- kusketa. Aste bukaeretan egongo da zabalik. Otsailaren 26ra arte, Arkupen.

ARRASATE 'Dinbi, danba, mailukaren hotsa'

Bixente Barandiaranen lanak, eta burdinak Arrasaten izandako eragina ikusgai. Harresi aretoan ikusgai

KRITIKA



CAROL ★★★★★

Zuzendaria: Todd Haynes.

Herrialdea: AEB.

Urtea: 2015.

Aktoreak: Cate Blanchett, Rooney Mara, Kyle Chandler.

Iraupena: 118 minutu.

Bizitzan zer egin erabakitzen

AEBetan kokatzen da, 1950eko hamarkadan. Istorioa Gabon garaian hasten da. Carol merkataritza-gune baten sartzen da opariak erostera. Therese saltzailea da. Elkar ikusten duten momentutik, bien arteko erakarpena nabaria da. Carol adin ertaineko emakume erakargarria da. Ondo jantzia eta apaindua. Lehenengo momentuan segurtasun itxura eman arren, bere begiradak tristuraren eta bakardadearen ukituak ditu. Therese neska gaztea, isila eta xarmanta da.

Todd Haynesek dotoreziaz, sentikortasunez, leuntasunez eta doitasunez islatzen ditu bi emakumeen artean sortzen diren sentimendu harremanak,

baita pertsonaien garapen pertsonalak. Euren artean gertatzen den bat-bateko maitemina, sortzen diren sedukzio jokoak eta harremanaren bilakaera ikusiko ditugu. Erakarpena, eta adiskidetasunetik maitemindura heldu arte ematen diren pausoak ikusiko ditugu. Baina filma ez da horretan bakarrik gelditzen. Gertatzen den prozesuak pertsonaien bizitza astintzen du. Gizarteak bere arauak ditu eta horiei aurre egitea ez da batere erraza izaten. Bien arteko harremanak sendotzen doazen heinean, pertsonaiek euren bizitzekin zer egin erabaki beharko dute. Carolek, bere bizitza faltsuarekin jarraitu, edo, pauso

bat emanez, benetako bizitza izan; eta Therese, gaztea izan arren, bizitzako lehen erabaki garrantzitsuak hartu edo ez erabaki beharko du.

Ondo dastatzeko filma da: irudi aldetik zoragarria eta erritmo aldetik kadentzia perfektua duena. Lehenengo planotik harrapatzen zaitu eta bukaerara arte ez zaitu askatzen. Atmosfera magikoa du. Film oso sentzuala da. Begiradek (leihoak eta ispiluak oso garrantzitsuak dira), keinuek eta ferekek bikain islatzen dute pertsonaien sentipenak. Cate Blanchetten eta Rooney Mararen lanak hunkigarriak dira.

ANTONIO ZABALA

ARRASATE 'Etxekoak'

Huts Teatroa taldearen antzez-lana. Txiroa, beltza eta afrikarra da Maddiren mutil-laguna. Egoera horrek etxean sortzen dituen aurreiritzien kontra egin beharko du gogor. Ander Lipus, Maika Etxekopar, Javier Barandiaran eta Kristiane Etxaluz oholza gainean ikusteko aukera. Sarre-rak, hamar euro.

Etzi, domeka, Amaian antzokian, 19:30ean.



ANBOTO.ORG

NON-ZEROTSAILA 19
OTSAILA 25

Emagizue zuen ekitaldien berri eguazteneko eguerdia baino lehen.
Tel.: 943 25 05 05 | kultura@goiena.eus | Faxa: 943 25 05 00

OSPAKIZUNAK**ARAMAIO 'Txotxparta'**

Arrasateko Ttakun txalaparta taldearen jai Aramaion. 20:00etan autobusa irtengo da Arrasatetik: 20:30ean kalejira, 21:30ean afaria Iturrietan eta 01:00etan itzultze-ko autobusa. Alboka, pandero eta txalaparta doinuek eta bertsoek giroa dute jai. Izen-ematea Jai Zalen egin daiteke. Gaur, egubakoitza, aipatutako lekuetan, 20:00etan.

GAZTELEKUAK**ARRASATE 'Bandera' jolasa**

Erronka botako dio Erguingo gazte txokoak San Andresko txokoari. Gaur, egubakoitza, Santa Barbarako dragoian, 17:30ean.

ESKORIATZA Grafiti tailerra

Marrazkiak egiten ikasteko aukera izango dute gazteek. Bihar, zapatua, gaztelekuan, 16:30ean.

OÑATI Disko festa

Lehen Hezkuntzako seigarren mailako neska-mutikoendako dantza emanaldia. Bihar, zapatua, gaztelekuko kuboan, 17:00etan.

ARRASATE Bidaieen kronika

Jorge Ogeak Venezuelara egindako bidaiaren bizipenak kontatuko ditu. Bihar, zapatua, erdiguneko gaztegunean, 18:00etan.

ARRASATE Palak egiteko tailerra

Ping-pongean jokatzeko palak egingo dituzte. Etzi, domeka, erdiguneko gaztegunean, 17:00etan.

OÑATI Karaokea

Otsail musikala ekimenaren barruan karaoke eta playback saioa egingo dute gazteek. Etzi, domeka, gaztelekuko kuboan, 17:00etan.

UMEAK**ELGETA Ipuinen ordua**

3 urtetik gorako umeendako ipuin kontaketa saioa, euskaraz. Gaur, egubakoitza, liburutegian, 17:25ean.

ARRASATE Ludoteka ibiltaria

Aste honetan sukaldaritzan landuko dute umeek ludotekako bi begiraleekin. Otsaileko zapatuetan elkartuko dira. Bihar, zapatua, Musakolan, 10:30ean.

ARETXABALETA 'Margo ipuinak'

Ines Bengoaren emanaldia, 4 urtetik gorako umeendako. Bihar, zapatua, liburutegian, 11:30ean.

ARRASATE Ate irekiak

Okendon, Santa Marinan eta Usaetxen askotariko ekintzak egingo dituzte 3-12 urte artekoek. Otsailaren 25ean, ludoteketan, 17:00etan.

AZOKA**BERGARA Merkealdi azoka**

Herriko merkatarien produktuak, prezio merkeetan. Bihar, zapatua, pilotalekuan, 11:00etan.

BERGARA Domeka azoka

Berrerabilpena, trukea eta artibautza sustatzeko merkatua. Etzi, domeka, San Martin plazan, 11:00etan.

BERGARA Eguazteneko azoka

Eztia, sagardoa, marmelada eta odolosteak nola egiten diren azalduko dute. Pintxo-potea Nahikari tabernaren eskutik. Otsailaren 24an, Oxirondon, 18:00etan.

HITZALDIK**ELGETA 'Bizkar osasuntsua'**

Guraso Elkartearen eskutik, bizkarreko minaz egingo dute berba. Otsailaren 22an, herri eskolan, 18:00etan.

BERGARA Familiako heziketa

Familian hezteko modu desberdina, guztiontzako; jarraibiderik bada? delako hitzaldia egingo dute, Udal Prebentzio Zerbitzua- ren eskutik. Izena emateko: 943-77 91 26 eta 943-77 91 65 telefonoak. Otsailaren 23an, kultura etxean, 18:00etan.

OÑATI 'La migración de las becadas: ¿qué dicen los satélites?'

Ingurumen Astearen lehen hitzaldia Juan Arizaga biologoaren eskutik. Otsailaren 23an, kultura etxean, 19:00etan.

OÑATI 'Auroras boreales'

Arabako Astronomia Elkarteko presidente Javier Marañonen berbaldea Ingurumen Astearren barruan. Otsailaren 24an, kultura etxean, 19:00etan.

DEIA**OÑATI Odol ateratzea**

Urteko bigarrena egingo dute. Gaur, egubakoitza, ikastolan, 17:30ean.

ESKORIATZA Odol ateratzea

Arabako odol bankuko autobusa egongo da Huhezin odol emaila berrien bila. Otsailaren 24an, fakultatean, 16:30ean.

DEBAGOIENA Baserrietako plastikoa

Siloa estaltzeko, belar boletan eta berotegietan eta ortuan lurra estaltzeko erabiltzen den plastiko beltzak eta berotegietako plastiko zuriak batuko dituzte. Herri bakoitzean zehaztuta dauden lekuetan utzi behar dira plastikoa. Otsailaren 23an, dagokion lekuan, 20:00etan.

KIROLA**OÑATI 'Slalom master' saioa patinekin**

Tatarraz Patin Elkartearen eskutik trebetasun maila aurreratua dutenendako ikastaroa, Jon Egi-luz irakaslearekin. Etzi, domeka, Zubikoan, 10:30ean.

IRTEERAK**OÑATI Pagoetara**

Eskola Kirola egitasmoaren barruan, Lehen Hezkuntzako bosgarren eta seigarren mailako eta DBHko ikasleek mendi irteera egingo dute. Izen-ematea, aipatutako egunean eta orduan.

ARRASATE Santiago Bidea

Bigarren etapa -Donostia-Zarautz- egingo dute otsailaren 28an. Martitzenetan eta eguaztetan eman daiteke izena Baserderen bulegoan, 19:30etik 20:30era. Izen-ematea, aipatutako egunean eta orduan.

OÑATI Eski zeharkaldia

Candanchu eta Astun inguruetan egingo dute, martxoaren 5-6ko aste bukaeran. Eraman behar-koa: eskiak, kutxillak, larruak, botak, bastoiak, pioleta, kranpoiak, ARVA, pala eta zunda. Izena emateko azken eguna hilaren 22a da. Izen-ematea, aipatutako lekuan.

**Espaloia kafe antzokiari esker**

'El Drogas'-en kontzerturako sarrerak ditugu

Elgetako Espaloia kafe antzokian
Otsailaren 27an, 21:30ean

ZOKKETAN PARTE HARTZEKO (OTSAILAREN 25A BAINO LEHENAGO)
E-posta: kluba@goiena.eus WhatsApp: KLUBA ELDRÓGAS [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Irabazleei deitu egingo zaie eta goienakluba.com webgunean agertuko dira euren izen-abizenak.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzua- ren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketaren helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestio- natzeara. Eskubidea izango duzu datuak sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezabatuzko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.eus

goienakluba

**Oñatiko Udalarari esker**

Sorkun abeslariaren kontzerturako sarrerak ditugu

Oñatiko Gaztelekuan
Otsailaren 27an, 22:30ean.

ZOKKETAN PARTE HARTZEKO (OTSAILAREN 25A BAINO LEHENAGO)
E-posta: kluba@goiena.eus WhatsApp: KLUBA SORKUN [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Irabazleei deitu egingo zaie eta goienakluba.com webgunean agertuko dira euren izen-abizenak.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzua- ren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketaren helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestio- natzeara. Eskubidea izango duzu datuak sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezabatuzko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.eus

goienakluba

**Bergarako Orfeoiari esker**

'Adiemus Colores' ikuskizuna ikusteko sarrerak ditugu.

Bergarako frontoian
Otsailaren 27an, 20:00etan.

ZOKKETAN PARTE HARTZEKO (OTSAILAREN 24A BAINO LEHENAGO)
E-posta: kluba@goiena.eus WhatsApp: KLUBA ADIEMUSCOLORES [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Irabazleei deitu egingo zaie eta goienakluba.com webgunean agertuko dira euren izen-abizenak.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzua- ren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketaren helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestio- natzeara. Eskubidea izango duzu datuak sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezabatuzko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.eus

goienakluba

**Aretxabaletako Udalarari esker**

Xavier Dentellen eta Jose Andresen bakarrizketa ikusteko sarrerak ditugu

Aretxabaletako Zaria aretoan
Otsailaren 26an, 20:00etan.

ZOKKETAN PARTE HARTZEKO (OTSAILAREN 24A BAINO LEHENAGO)
E-posta: kluba@goiena.eus WhatsApp: KLUBA BAKARRIZKETA [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Irabazleei deitu egingo zaie eta goienakluba.com webgunean agertuko dira euren izen-abizenak.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzua- ren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketaren helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestio- natzeara. Eskubidea izango duzu datuak sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezabatuzko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.eus

goienakluba

Bi lagunendako otorduen zozketa astero Puntua. Hartu parte eta... on egin!

Erreka jatetxeko
z erba-bilkariak risottoz
beteta onddo-saltsarekin



puntua

'PUNTUA' ORAINDIK ETXEAN JASOTZEN EZ BADUZU:
943 25 05 05 edo Puntua.eus edo Whatsapp: 688 69 00 07

goienakluba

goiena

2016-02-19

BUKATZEKO

Hortz-inplanteak hobetzeko lanean

- ▶ Ugutz Garitaonandia ingeniari arrasatearrak horien portaera aztertzeke modu berria proposatu du
- ▶ Mendaroko Createch Medical enpresarekin eta Donostia Ospitalearekin elkarlanean jardun du

MIRARI ALTUBE | ARRASATE

Euskal Herriko Unibertsitateko Ingeniaritza Mekaniko Saileko ingeniaria da Ugutz Garitaonandia Antsoategi (Arrasate, 1970), eta hortz-inplanteen osagaien portaera mekanikoa aztertu du informatika programak erabilita. Horixe izan da, hain zuzen, haren doktore-tesiaren gaia.

Diseinuan hobekuntzak

Mendaroko Createch Medical enpresarekin eta Donostia Ospitaleko Aho eta Aurpegi Masaileko Kirurgiako Sailarekin elkarlanean jardun du: "Ikerketari eduki teorikoa emateaz gain, aplikazio praktikoa eman nahi genion. Horregatik egin genituen Createch Medicalekin eta Donostia Ospitalearekin akordioak. Oso interesgarria izan da esperientzia", argitu du.

Hortz-inplanteek, inplanteen gaineko egiturek eta mikroinplanteek jasaten dituzten indar, tentsio eta deformazioak simulatzea lortu dute: "Emaitza hauekin elementu horien portaera nolakoa den hobeto ezagutzen da. Ezagupen hauek guztiak kontuan hartuko dira, bai ingeniariaritzaren arloko diseinuetan, bai medikuntza eta odontologia arloko aplikazioetan".



Ugutz Garitaonandia, ingeniaria ordenagailuan hartz-inplanteen simulazioa duela. | UGUTZ GARITAONANDIA

Eta Garitaonandiak proposatu du hortz-inplanteen gaineko egiturek egoera erreala aztertzeke beste modu bat: "Hori erabilgarria izango da enpresendako, diseinuak hobetzeko aukera eman go die. Izan ere, enpresa askok egiten dituzte hortz-inplanteak eta guztiak gura dituzte ahalik eta efizientzia handieneko produktuek: hezurarekin duen kontaktuan ahalik eta deformazio

eta tentsio gutxien sortzea, osagaiak eta egiturek hortz-inplanteari indarrak ahalik eta hobekien transmititzea...".

Lanean jarraitzeko asmoa

Ikerketa garrantzitsua da, ingeniariaren esanetan: "Bizi garen gizartearen osasuna eta ongizatea geroz eta maila altuagoan daude. Ildo horretan, argi dago hortz-inplanteen zein aho eta aurpegi

masaileko kirurgian ere geroz eta aurrerapen gehiago izango direla".

Eta orain arte egindako lanarekin jarraitzeko asmoa agertu du, badago eta "zer hobetu eta non ikertu; nazioarteko aldizkarietan etengabe argitaratzen dira azterketa eta emaitza berriak. Guk, orain arte egindako lana oinarri hartuta, lan hauekin jarraitzeko asmoa dugu".

AZKEN BERBA

MIKEL IRIZAR



Udalak indartu

Berriki jakin dugu akordioa erdietsi dutela EAJk eta EH Bilduk Eudel udal elkartearen lankidetzan jarduteko. Baita udal legearen inguruan ere, nahiz akordio hau oraindik ez den osoa.

Udal legea oraindik onartuko balitz -eta bada garaia- udal eskumenen zerrenda finkatuko luke, eta hauei dagokien finantzazioa lotuko. Eta eskumen horien artean badira hizkuntza politikaren esparrukoak, gaurdaino Jaurlaritzak bakarrik zituenak. Bestalde, Eudelen gaineko akordioak erraztu egin lezake lankidetzaren handitzea Ueman ere, eta, horrela, udal administrazioetan euskararen normalizazioan jauzi indartsu bat egitea.

Oso pozik hartu ditut bi albisteak. Erabat sinesten dut tokiko aktibazioan, uste dut beharrezkoa dela komunitate gertuko egituratuta egotea eta auzolanean aritzea plangintza eta egitasmo orokorrek eragina izateko. Eta euskararen tokiko sustapenean funtsezkoa da udalen ekarpena: hautetsien aginpidea, teknikarien ezagutza eta erakundearen baliabideak. Hori guztia gizarte ekimenarekin ondo uztartuta.

Gauza ona da udalak indartzea, lagungarria izan daiteke oso euskaltzaleak aktibatzeke. Euskararen aldeko tokiko lanean garai onak datoz.

R.P.S. 175/15 L.L.G.

VARILUX
ERABATEKO BABESA

ZURE BIGARREN
BETAURREKO PROGRESIBOAK

OPARI

BEASAIN • DONOSTIA • EIBAR • ERRENTERIA • LASARTE • IRUN • ORDIZIA • TOLOSA

www.multioparicgipuzkoa.com

Kontsulta litzazu zure zentroan
kanpainaren ezaugarriak.

Gure betaurreko guztiak bilduma berrietakoak dira

J. Carlos Guerra, 1 • Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai, 16 • Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

MULTIÓPTICAS
lehen zerbitzu optikoetan